# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-09-04
EGUBAKOITZA
000. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## Indarkeria matxista salatu dute

Ekimen ikusgarria Bergarako plazan | 14



Emakumeak lurrean. | JULEN IRIONDO

**ANDRAMAIXAK 2015**
Aretxabaleta eta Gatzaga | 20 eta 26



Eskualdeko alkateak, biktimen aldeko ekitaldian | 2



Maider Unda Las Vegasen da, Munduko Txapelketan | 31



Jose Luis Elkoro, San Martin plazara heltzen atzo, eguena. | XABIER URZELAI

# Harrera beroa egin diote Elkorori Bergaran

Iragarritakoa baino egun bat lehenago utzi dute erabat libre, eta ekitaldia egingo dute gaur, "bakea eta batasuna" ardatz hartuta | 2



**Mikel Irizar** | Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria

## "Ez nator lehendik ondo egindako ezer apurtzera" | 4

**Mikel Irizar astelehenean Gipuzkoako Foru Aldundian.**




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:
**JOSE LUIS ELKORORI**
**ELKARRIZKETA BEREZIA**
**ASKATASUNA LORTU BERRITAN**

**Erreportajea: hegaztiak, ibarreko altxor ezezagunak**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## SINADURAK


IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ | 6

6 | MIRARI ALTUBE



MIGUEL LAZPIUR | 15

24 | PILAR ETXANIZ



IDOIA ETXEBERRIA | 40


DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 8
KIROLA 30 | KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 34
ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36
EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38







Jose Luis Elkoro lorea jasotzen ilobaren eskutik Bergarako plazan. | XABI URTZELAI

# Herrikideen berotasuna jaso du Jose Luis Elkorok, libre geratu ostean

"Batasuna eta bakea" ardatz dituen ekitaldia egingo dute gaur, askotariko gizarte eragileekin

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Herrikideen babesa gertu-gertutik igarri ahal izan zuen Jose Luis Elkorok atzo eguerdian, libre utzi eta hurrengo egunean, Bergarako San Martin plazara iritsitakoan. Eta mikrofonoa hartuta, esker hitzekin batera, indarrak batzearen garrantziaz jardun zuen hark: "Euskal Herria, gure herria, txikiagoa edo handiagoa, aberatsagoa edo txiroagoa, baina gure herria, azken finean, guk behar duguna, haren alde borrokatu behar dugu. Guztiok elkartuta, indarrak batuz herria lortuko dugu".

[Goienak Elkorori egindako elkarrizketa luzea gaurko *Puntua* aldizkarian]

**Lagunen besarkadak**

Atzo eguerdian zuen hitzordua orkatilako gailua kentzeko eta Debagoienetik autobus bi ziren joatekoak Martutenera, libre uzten zuten unean babesa erakusteko. Eguazten arratsaldean deitu zioten, baina, kentzera joateko, eta herritarrek eta lagunek ez zuten joaterik izan. Atzo, ostera, Bergaran erakutsi zioten babesa horiek guztiek. Xabier Amurizak bertsoa eskaini zion, eta elkartutako lagun askok besarkatu gura izan zuten; han zegoen, adibidez, Tasio Erkizia. Ilobek, ostera, loreak eskaini zizkioten.

Zortzi urteko kartzela zigorra betetzear dagoela utzi dute libre Elkoro, 80 urte beteta. *Egin auzian* zigortua, horietatik hiru egin ditu hainbat espetxetan eta beste bostak etxean.

**Ekitaldia San Martin plazan**

Elkorori babesa erakusteko ekitaldiak, baina, ez ziren atzo bukatu. "Batasuna eta bakea" ardatz hartuta egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Bergaran bertan, San Martin plazan.

Gizarte eragile askok hartuko dute parte; honako hauek izango dira, besteak beste: Mariano Ferrer, kazetaria; Juanjo Alvarez, UNED-Bergarako zuzendari ohia; Jose Antonio Altuna *Txatillo*, Arrasateko alkate ohia; Bergarako alkate izandakoak; Maite Aristegi, Amaiurko diputatua Madrilen; Peio Ospital, musikaria; Patxo eta Isidro Murga, preso ohiak; eta Pablo Gorostiaga, politikaria. Arnaldo Otegi ezker abertzaleko buruzagiak idatzitakoa irakurriko dute, eta, bukatzeko, Elkororen emazte Mari Karmen Aiastuik eta Elkorok berak hartuko dute hitza. Ekitaldia girotuko dute herriko musikariek, txistulariek eta soka taldekoek, besteak beste.

# Debagoieneko alkateak biktimen aitortzara doaz

Lehendakaria 128 udaletako alkateekin elkartuko da gaur Bilbon, biktimak gogoratzeko

G.A./M.A. | DEBAGOIENA

Iñigo Urkullu lehendakaria 128 udaletako alkateekin elkartuko da gaur, egubakoitza, biktimak gogoratzeko. Bilboko Artxibategi Historikoan da topaketa eta 1960 eta 2011 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan arrazoi politikoengatik hildakoak jasotzen dituzten liburuxkak banatuko dizkie alkateei. Debagoieneko sei udal ordezkarik jaso dute gonbidapena eta seiak izango dira han: Arrasateko Maria Ubarretxena; Bergarako Juanje Alberdi; Oñatiko Mikel Biain; Aretxabaletako Unai Elkoro; Eskoriatzako Josera Zubizarreta; eta Antzuolako Beñardo Kortabarria.

**Urratsak egiteko unea**

Arrasateko alkate Ubarretxenak uztailean jaso zuen *Memoriaren erretratuak*, hau da, herriko biktimen zerrenda jasotzen duen txostena, eta garrantzi handiko dokumentua dela uste du: "Urratsak egiten hasi egin behar dugu; gizarteak ere, inplizituki bada ere, eskatzen du aurrerapausoak ematen hastea". Horretarako, baina, atzera begiratua "ondo" egin behar dela azpimarratu du.

**"Gabeziak" dituen lanketa**

Oñatiko alkate Biainek ere gai garrantzitsua, delikatua eta arduraz landu beharrekoa dela dio, eta EH Bilduren ordezkaritza zabala izango dela han jakinarazi du. Baina kritika hitzak ere izan ditu: batetik, informazio "gutxi" helarazi dietelako; eta bestetik, "gabezia nabarmena" igarri dutelako: "Lanketa horretan ez da kontuan hartu, esaterako, kartzela politikaren ondorioz eta dispertsioaren eraginez hildako hainbat herritar".

**ESANAK**

"Aurrerapausoak ematen hasi egin behar dugu, gizarteak ere eskatzen duelako"

MARIA UBARRETXENA | ARRASATEKO ALKATEA

"Lanketan ez dira kontuan hartu dispertsioaren eraginez hildako hainbat herritar"

MIKEL BIAIN | OÑATIKO ALKATEA



# Epeleko tratamendu planta urrian izango da gertu

Debagoieneko eta Debabarreneko 9.000 tona bio-hondakin tratatuko ditu


Epeleko plantak itxura hau zuen joan zen astean. | GHK

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Angiozarren kokatuta dagoen hiri hondakinak tratatzeko Epeleko planta hilabete eta erdi barru egongo da prest. Horixe esan zuten Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko orain arteko arduradunek bertara abuztuan egin zuten bisitan. 9.000 tona materia organiko konpost egiteko ahalmena izango du, eta, hasiera baten, Debagoieneko (6.000 tona urtean) eta Debabarreneko (3.000 tona urtean) bio-hondakina tratatuko ditu. Urteko 9.000 tona bio-hondakinekin, 2.300 tona konpost lortuko da urtean. "Kalitate goreneko" konposta lortzeko moduan egongo dela eta horretarako "puntako teknologia" izango duela esan zuten.

Azken urte hauetako balantzea egin zuten Kontsortzioko kudeatzaileek Bergarara egindako bisitan. Izan ere, aurrerantzean, EAJ eta PSE-EE alderdien esku geratuko da azken agintaldian Bilduk gehiengoz kudeatu duen erakundea.

**Transferentzia estazioa**

Gune garbia eta zikina bereiziak egongo dira Epelen. Tratamendu intentsiborako zortzi tunel izango ditu plantak, eta bertan lau astez tratatuko da material organikoa. Beste bost aste heltze gune batean egongo da, eta, azkenik, konpostaren tamaina egokia bermatuko duen kribadora batetik igaroko da.

Bestalde, Epelekoa ez da konpostatze planta bakarrik izango, transferentzia estazioa ere izango da, Debagoieneko errefusa, papera eta ontzi arinak elkartzeko funtzioarekin, gero dagokion tratamendu plantara eramateko. Horiez gain, azpiegitura nagusiei zerbitzu emango dieten beste gune batzuk ere egongo dira: bio-filtroa, baskula, kamioen garbiketa gunea, bulegoak…

# MUren laborategia bertatik bertara ezagutu du Tapiak

**TXOMIN MADINA** | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburu Arantza Tapiak Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoaren funtzionamendua eta bertako laborategietan garatzen ari diren proiektu teknikoetako batzuk bertatik bertara ezagutu zituen eguen goizean bertara egindako bisitan. Bertan, Tapiak eta MUko errektore Bixente Atxak unibertsitateen eta enpresen arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuten.


Sailburua, bisitaren une baten. | VK COMUNICACION

Sailburuak esan zuen Eusko Jaurlaritzak bete dituela ikerketan eta garapenean 2015erako hartutako konpromisoak: hain zuzen, aurten, 133,6 milioi euro inbertitzea, iaz baino %7 gehiago.

**Industria-lidergoa sendotu**

Bisita hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2020 Planean (ZTBP 2020) kokatuta dago. Planak hainbat ildo jasotzen ditu Euskadiko enpresen industria-lidergoa sendotzeko.



**Mikel Irizar** | Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria

# "Hizkuntzen arteko bizikidetzak eskatzen ditu molde berriak"

- Tokikom eta Goienako sortzailea arduratuko da euskaraz Diputazioan
- Lehen elkarrizketan dio ez datorrela aurretik egindako "ezer apurtzera"



Mikel Irizar, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, Donostian, astelehenean. | ENEKO AZKARATE

**ENEKO AZKARATE** | DONOSTIA

Euskalgintzan jarduna da Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria, Mikel Irizar (Ormaiztegi, 1954). Debagoienean toki hedabideak bultzatzearren nabarmendu da. Tokikomeko bultzagile eta lehen presidente izana da. Hain justu ere, Tokikomi eskaini dio kargu berrian lehen elkarrizketa.

**Zigor Etxeburuak utzitako lekuan diharduzu lanean. Baduzu haren politikak jarraitzeko asmorik?**

Etxe honetan badago ardatz bat hizkuntzaren gaian oso atzetik datorrena eta eten handirik izan ez duena. Lehenago egon diren euskara zuzendariek ere metatu dute aurrekoek egindakoa. Ez nator lehendik ondo egindako ezer apurtzera. Egongo dira egokitzapen batzuk, edo ñabardura batzuk, baina jarraituko dugu lehengo ildotik.

**Sailaren izena aldatu egin da: Euskara Zuzendaritzatik Hizkuntzen Berdintasunerako Zuzendaritzara. Zergatik?**

Hausnarketa baten ondorio da. Euskarak behar ditu euskaltzaleak, jakina, baina fokua edo diskurtsoa euskaran eta euskaltzaletasunean bakarrik jartzea mugatua da. Euskarak behar du diskurtso irekiago edo inklusiboagoa, demokratikoagoa. Gizartean edonork partekatzen dituen balioen gainean eraiki behar dugu hizkuntzen bizikidetzaren aldeko diskurtsoa.

**Bizikidetza, zelan?**

Hiru ardatzen gainean. Bata, askatasuna. Pertsonei aitortu behar zaie arautu gabeko esparruetan hizkuntza hautatzeko eskubidea dutela. Bigarrenez, hautuen arteko berdintasuna behar da, bestela, askatasun faltsua litzateke-eta. Berdintasunak eskatzen du oreka. Gipuzkoan bi hizkuntza ofizial daude. Baina horietako batek, gaztelaniak, ditu 500 milioi hiztun eta, gainera, legez derrigorrez jakiteko beharra gaztelaniari aitortzen zaio, ez euskarari. Kasu horretan, berdintasuna lortzeko hizkuntzen arteko oreka lortu beharko da, eta, horretarako, Gipuzkoako erakundeek eta eragileek egin behar dugu esfortzua euskarak eduki ditzan berezko esparruak.

**Hirugarren ardatza?**

Justizia. Bizikidetza justiziaren gainean oinarritu behar da. Nik neuk gaztelaniaz ikasi behar izan nuen, euskara debekatuta zegoelako. Baliabide asko jarri zen euskararen kontra; orain, legezkoa eta justiziazkoa da euskararen alde jartzea baliabideak.

**Ze berritasun dakarzu?**

Berritasun nagusia begirada luzatzea litzateke. Estilo kontua. Zubiak eta lankidetza oinarri hartuko dituena. Euskararen biziberritze prozesua geldiune edo bidegurutze baten dago. Ziklo luze batetik gatoz. Emaitzak hor daude. Asko aurreratu da. Baina, aldi berean, jomuga batzuk erdietsi baditugu ere, gauza berdinak eginez lorpenak berdinak ez dira izango.

**Euskalgintzaren diskurtsoak ere berritu behar dira?**

Bai. Franco hil ostean, argi geneukan tapoia irekitzea nahikoa izango zela berez hizkuntza haz zedin. Gero, trinkotze diskurtsoak eraiki behar izan genituen. Gutxienez, euskaldunak eta euskaltzaleak identifikatzeko. Egun, beharrezkoa da diskurtsoa modu inklusiboan osatzea. Euskalgintzaren zeregina, funtzionamendua, berrikusi beharra dago.

> "Euskarak behar du diskurtso irekiago edo inklusiboagoa, demokratikoagoa"

> "Berdintasuna lortzeko hizkuntzen arteko oreka lortu behar da"

**Urte onak izan daitezkeela euskararen berreskuratze prozesuetarako eta normalizaziorako. Zergatik?**

Egin den inbertsio handi bat, une honetan, ez delako bistaratzen. Ulermenaren kontua bada modu bat euskaldunok euskaraz gehiago egin dezagun. Euskal hiztunak ez izan arren, hizkuntza ulertzen dutenak euskarara batzen baditugu, euskaldunok askoz ere leku gehiagotan egingo genuke euskaraz eta euskarak izango luke ikusgarritasun handiagoa.

**Aldundiko langileen %100 dira gauza zerbitzuak euskaraz eskaintzeko?**

Oso hurbil gaude horretatik. Erakundea frankismotik zetorren eta egoera bat heredatu zuen, baina lan sistematiko egokia egin da eta gaur egun euskara zerbitzu hizkuntzarena bermatuta dago, eta lan hizkuntza izateko urratsak egiten ari dira atalez atal...

**Zenbat diruko poltsa kudeatu behar duzu?**

Zuzendaritzan, diru poltsa osoa, barne gastua kontuan hartuta, bost milioi eta erdiren bueltan dago. Hiru eta erdi nola edo halako diru laguntzetarako izango da.

**Euskarak ere ez ditu batu izan instituzioak eta eragile sozialak...**

Oso aukera ona daukagu aurrerapausoak egiteko. Gauza izanez gero gizarte ekimena eta erakundeena ondo uztartzeko, aurrerapausoak egingo ditugu. Adibideak baditugu. Herri gutxi izango dira ekimen indartsuagoa izango dutenak. Kanpoan, askotan, ez dute ulertzen. Gainera, dauzkagu erakunde ahalmentsuak diruz-eta. Bi horiek uztartu behar dira.

**Topagunean euskalgintzako eragile jardun duzu, eta orain instituzioetarako jauzia eman duzu. Horrek lagun dezake euskararen inguruan eragileen eta instituzioen arteko harremanak estutzen?**

Kargu berri honetarako izendatu nautenek hori bilatu dute. Borondatea badago. Zubiak eraikitzea eta lankidetza esparruak sustatzea izango da nire zeregin eta erronka, agintaldi amaieran egoera hobea izan dadin.

**Uemari buruz zein da zure posizioa?**

Nire planteamendua da Uema indartzea. Udalak, orain, aurreko agintaldian baino politikoki orekatuagoak dira. Eta, hain zuzen ere, hori baliatu nahiko nuke Uema balioan jartzeko.

> "Legezkoa eta justiziazkoa da euskararen alde jartzea baliabideak"

> "Beste egoera baten gaude eta nire planteamendua da Uema indartzea"

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Miren Elgarresta. | EAJ

## Miren Elgarresta, Berdintasuneko zuzendari

**E.A.** | OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak Miren Elgarresta Oñatiko EAJren bozeramailea izendatu du Emakume eta Gizonen Berdintasuneko zuzendari. Elgarrestaren erronka nagusia izango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna "Gipuzkoako agendaren erdigunean" kokatzea, "arreta berezia" jarriz indarkeria matxistari aurre egiten eta "munduko berdintasun politika aurreratuak inportatzen". Oñatiarra, eskarmentu handia du administrazio eta gestio kontuetan oso sektore anitzetan, lehen sektoretik hasi eta ingurumen gaietaraino.

## Langabezia igo egin da herri guztietan abuztuan

Abuztuak enplegu datu txarra utzi du: langabezia igo egin da Debagoieneko herri guztietan. Denetara, 3.518 langabe zeuden abuztu bukaeran, uztail bukaeran baino 118 gehiago. Langabezia tasa %11,80 da, uztailean baino 0,39 handiagoa. Elgetan igo da gehien langabezia: %1,29. Bestalde, Arrasaten (%15,02) eta Bergaran (12,32) dute langabezia tasa handiena. Txikiena, berriz, Leintz Gatzagan (%4,44) eta Oñatin (%7,85).

## Aizkorri-Aratzeko kaltetuak Oñatin batuko dira gaur

Aizkorri-Aratz Intereseko Lekuko Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko erresoluzioari alegazioak aurkezteko epea irailaren 30era arte luzatu dute, Debagoieneko kaltetuek –gehienak eremu horretako lursail pribatuen jabeak– 800 alegazio inguru egin dituztela-eta. Lurjabeak berriro elkartu dira Apotzagako elkartean, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako kaltetuak, eta gaur, barikua, Oñatikoak elkartuko dira kultura etxean, 18:30ean.


MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 73 97 65
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
lanerako gertu!
20152016
Eskaintza akademikoa
•Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
•Automatizazioa eta Robotika Industriala
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
•Mekatronika Industriala
Matrikulazioa zabalik irailean
HUMANITY AT WORK MONDRAGON
Asociado a HETEL Elkarteko kidea
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Entitate laguntzailea Entidad patrocinadora
LABORAL kutxa
lanbidez heziketa formación profesional

## ZABALIK



**IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ**
goiena.eus/komunitatea/

# Arroza babarrunekin

Irailaren 1a iritsi eta bueltan naiz berriz, hozkailua hutsik eta harategiko mostradorearen aurrean. Uda ederki igarota, eguzkia, beroa, gozoa, gazia, musika*, arroza babarrunekin, Puertorriko,* dantza, gaupasa… Mostradore aurrean, horixe, ze erosi erabaki nahian, petxugak, oilaskoa, solomoa, okela, edota tofua aukeran. Ganadu eta urdaiazpiko mordoa inguruan eta ni bertan, aukeraketan.

Inoiz sentitu al zarete okelaren gisan? Bai? Hala bada, ulertuko nauzue; ezezkoa bada, ongi etorri emakumeon jaietako sentsazioetara!

Ba bai, oraindik horrela gabiltza, festarik festa ganadu sentsazioa izaten; begirada lizunak, hitz zikinak eta ukitu onartezinak jasotzen.

**Erasoak salatzen ditugu, erasoei aurre egiten diegu**

Festa dantza den moduan, festa ere jolasa da. Bertan elkartzen gara lagun zaharrak, bertan egiten ditugu lagun berriak, eta bertan sortzen dira begiradak ere. Begiratzea, elkartzea edo kasualitatez topo egitea; gonbidatzea, onartzea edo ez onartzea; eta gero gerokoen garaia izaten da.

Beraz, non dago muga? Bakoitzaren askatasunaren zapaltzean, noski. Begirada batek min eman badit, esan ezetz; esandakoa ez bada nire gogokoa, erantzun, esan ezetz; jarrera ez bada niretzat onargarria, burua gora eta ezetz! Nire lagunek baietz diotela eta nik ezetz? Gora zu! Nire lagunak ere ezetz dioela? Lagundu eta aurrera.

Erasoak salatzen ditugu, erasoei aurre egiten diegu, baina noiz arte izan behar dugu harrapakin?

Uda badoa, baina festak, egunerokoak aurrera segitzen du, eta beste behin errepikatzeko garaia da: ezetza, beti ezetza da! Nire, gure gorputza gurea bakarrik da! Nire dantza, nirea eta niretzako da, disfrutatzekoa, festarakoa!

Kalea maite dugulako eta kaleak ere maite gaituelako, hortzak erakutsi, egin irri eta segi dantzan!

## USTEAK USTE

**MIRARI ALTUBE** | aretxabaleta@goiena.eus

# Kuarteletik sormen etxera

Orain dela 25 urte alde egin zuten guardia zibilek Aretxabaletako kuarteletik. Eta 25 urteotan hainbat erabilera izan ditu herriko sarreran dagoen eraikinak: haur eskola, musika eskola, gaztetxea… Egun, ostera, herriko musika talde askoren topalekua da, baita antzezlanean dihardutenena ere, eta dantzan jarduten duen talderen batena. Eraikin handia ez dago batere egoera onean –25 urteotan apenas egin diote berritze lanik–, baina sormena bor-bor dago han, ideia berriak, lanerako gogoa eta ilusioa gainezka dituzte-eta herriko gazteek. Eta hori erakutsiko dute irailaren 12an, zapatua, Aretxabaletako kaleetan.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Euskaltzaletasunak mirariak egiten ditu

**Inazio Arregi**
http://goo.gl/mndJsM

Pilare Baraiazarrari kendu diot esaldia abuztuaren 23ko *Berria*-ko egunkariko azalean irakurrita.

Euskalerria irratiarena miraria ez, baina euskaltzale saiatu batzuen indarrak, kemenak, pazientziak eta lanak lortutako arrakasta itzela da. Hemezortzi urte behar izan ditu irratiak lehiaketa publikoan irabazitako lizentzia eman ziezaion Nafar administrazioak.

Bidegabekeria honen arduradunak, Nafarroako politika eta administrazioa mendean izan duten UPN eta bere buru ezagunak. 1997an egin zuen esleipena UPNko Gobernuak. [...]

Noski! Lehian Euskalerria irratiak lizentzia merezi arren, euren lagun Opuseko Unibertsitateari oparitu zioten. Azpimarratu behar dena da hemezortzi urte pasata, aldeko hainbat epai izan arren, eta bidean makina bat buruhauste, eta seguru asko diru dezente xahutu ondoren, boterean zeudenak, prebarikatzaile eta inoren diruaren goseti amorratuak, berdin Nafarroako Kutxako diruena, Gobernukoarena, edonongoa, horiek, oraindik ere kirio guztiak dantzan jartzen zaizkienak Euskal Herria izena entzun orduko, Gobernutik kanpo behar izan ditugula epaileen sententziak bete daitezen. [...]

Baina ez zekiten euskaltzaletasunak mirariak egiten dituela, eta ezta ere gure hizkuntzak bizirik badirau euskaldunok tematiak, saiatuak eta burugogorrak garelako dela.

Gure ezaugarri horiek dohain bihurtzen ditugu norabide zuzenean erabiltzen ditugunean, eta horrela egin dute irratiko kide eta laguntzaileek azken hemezortzi urte hauetan. Hauen sendotasunak eta tinkotasunak, mesede galanta egin diete nafarrei, eta ez bakarrik euskaldunei, askatasun kontuetan nafar guztiek irabazten dutelako hizkuntzen bizikidetza errespetuz bermatzen denean. Guztiek, demokrazia eta askatasuna euren mendean eta euren probetxurako nahi dituztenek izan ezik.

### Izarapean

**Anjel Lertxundi**
http://goo.gl/We1ctl

"Orain aste batzuk, mendian nengoela, hiriko argietatik urrun, zeru osoa ikusi nuen izarrek zipriztindua […], horrelako zeru bat ikusi nahiko nuke hiltzen ari naizenean". Oliver Sacksen orain hilabete doiko artikulutik.

Egunkaria mahaitxo gainean utzi Sacksen heriotzaren albistearekin eta begiak itxi ditu, hobeto berritzeko udako gau epel batez bikotekidearekin belarretan etzanda egon zenekoa zeru izartsuari begira, Soriako Laguna Negratik hurbil, zeruaren ederra eta infinitoa lausotzen dituzten hiriko argietatik urruti. [...] Ez luke asmatuko esaten zenbat denbora egin zuten elkarren ondoan etzanda, hitzik egin gabe, gauaren eskortan babestutako hotsen kantika beste deus entzuten ez zutela, begiak zabal-zabal eta arnasari eutsiz, unibertsoaren misterioak zeta leun finenaren izara batez bilduta baleuzka bezala, han, belar gainean, eternitatearen asez, ederraren hordiz...

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# Lana Jauregi familiaren partetik, esker mila

**Maitane Lana Jauregi**
(Lana Jauregi familiaren izenean)
Arrasate

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu abuztuaren 24an eta aurreko egunetan Lana Jauregi familiarekin egon zinetenoi.

Banan-banan aipatzea zaila eta oso luzea da, eta, seguru aski, norbait bidean utziko dugunez, milioi bat esker guzti-guztioi!

Hemen gurekin egon zinetenoi, eta baita urrunetik zuen indarra eta doluminak bidali zenizkigutenoi, zuei guztioi, bihotzez, eskerrik asko!

Aipamen bat egin nahi diegu Arrasateko Debagoieneko ospitaleko langileei, euren tratu atseginagatik.

# Udaltzainen malgutasunaren ondorioak

**Agotz Iturbe Murgiondo**
Oñati

Uztailak 4, larunbata, 09:05. Atzeko kaletik autoz noa, udaletxe atzean biratu eta Kale Barrian gora joateko asmoz. Zoritxarrez, asmoa bertan gelditu zen, Laboral Kutxa eta Kutxa bitartean zegoen erdiko pibotearekin topo egin baitzuen autoak, ez aurrera ez atzera geldituz. Berehala, ezer larririk gerta ez zenez eta trafikoa ez oztopatzeko, autoa baztertu nuen. Telefonoz aseguru konpainiarekin hitz egin ondoren eta grua bidaliko zutela ziurtatuta, udaltzainen bulegora jo nuen izandakoaren berri ematera.

Bertan zegoen udaltzainarekin hitz egin nuen gertatutakoaren berri emateko. Lehenengoz eta behin, kale hori itxita egoten ohi dela esan zidan. Ados, horrela bada, horrela da eta ez daukat ezer esateko.

Autoa utzi nuen lekura bueltatu eta nire harridurarako pibotea falta zen!

Bai Kutxako eta bai Euskadiko Kutxaren horman letra handiz eta argi eta garbi Kale Barrian autoak pasatzeko ordutegia azaltzen da: 08.00-12.00. Nola liteke pibotea kendu gabe egotea 09:05ean?

Bigarrengoz, haserre bizian, Udaltzaingoaren bulegora itzuli nintzen. Galdetu nion ea nola zen posible duela 5-10 minutu kalea itxita egon ohi dela esatea eta orain irekita egotea, ordutegiak argi adierazten duenean 08:00etatik 12:00etarako tartea. Udaltzainak ez zidan inongo arrazoi logikorik ematen, eta, horretaz gain, errua nirea zela behin baino gehiagotan adierazi zidan.

Honen aurrean erantzun gabeko hainbat galdera ditut: nola liteke kartelek eta ordenantza munizipalek ordutegi bat jartzea eta beste bat errespetatzea udaltzainek?

Udaltzainek malgutasun bat omen dute piboteak kendu eta jartzeko; herritarrok malgutasun bera izaten al dugu gure zergak ordaintzerakoan?

Autoa konpontzeko modurik gabe gelditu da, eta nork ordezkatuko dit?

Kontuz ibili ordutegiarekin Oñatiko Kale Barrian autoz joaterakoan, malgutasunaren izenean auto gabe gelditzeko arriskuan baitzaudete.

# Maite zaitugu

**Iñigo San Miguel Zubizarreta**
(Arrate Bengoaren senideen izenean)
Bergara

Une latz hauek bizi beharko genituela imajinatzen ez genuen arren, bizitzak amildegi horri aurre egitera behartu gaitu. Etengabe galdetzen diogu gure buruari nola beteko ote dugun Arratek utzitako hutsunea. Ohartu gara, ordea, hutsuneak bete baino gehiago, beraiekin bizitzen ikasi behar dugula; ahaleginduko gara horretan.

Esaldi hauek baliatu nahiko genituzke denbora honetan guztian jaso dugun babesa eskertzeko. Egoera gogor honen aurrean, zuen maitasunaz ari gara ateratzen indarra zegoenik ere ez genekien lekuetatik.

Ospitaletik hasi eta etxeraino, ezergatik aldatuko ez genituzkeen bidelagunak izan ditugu osasungintza publikoan.

Hautu argi bat egin zuen Arratek hasieratik: betidanik babestu eta beste askorekin batera eraiki duen kalitatezko zerbitzu integralaren esku uztea bere bizitza. Gaur, ziurtasun osoz diogu erabaki egokia izan dela, ezin baitugu hitzez deskribatu arlo publikotik jaso dugun zerbitzuaren kalitatea eta gertutasuna.

Mila esker prozesu honetan zuen onena eman duzuen profesional guztiei, bereziki Arrasateko etxeko ospitalizazio unitatetik jaso dugun hurbiltasunagatik eta goxotasunagatik.

Eskerrik asko, bazterketarik egin gabe, herritar guztiontzako osasungintza publiko duinean sinetsi eta haren alde borrokatzen zaretenoi. Guztion eskuetan dago herritar ororen oinarrizko eskubide hau baldintza egokietan egikaritzea. Eta apustu hori ekonomikoki ere egin behar da, instituzioek beraien partetik eta herritarrok guretik.

Barruan gordeta ditugu herri honen etorkizuna diren haurrek Arraterentzat egindako marrazki guztiak, oparitutako irribarre bakoitza eta ilusio begirada guztiak. Zaindu ditzagun haiek, eta zaindu ditzagun gure buruak.

Ama, miresten dogu minbizixari aurre egitteko euki dozun ausardixia. Eman doskuzun indar horrekin gogoratuko zaittugu eta egingo dogu aurrera.

Mila esker lagunok.

Gozatu bizitza!

# Askapena (ere) ilegalizatu gura dute

**Kirmen Gaztelu**
(Arrasateko Askapenaren izenean)
Arrasate

Askapena Euskal Herriko erakunde internazionalista da eta bere jarduna munduko beste herri borrokalariekin elkartasun politikoan oinarritutako harremanak sortzean datza: Venezuelarekin, Kolonbiarekin, Kubarekin, Sahararekin, Kurdistanekin, Donbassekin, Kataluniarekin, Palestinarekin... betiere, Euskal Herriaren askapen borrokan murgilduta. Horretarako, brigadak, hitzaldiak, kanpainak, kontzientziaziorako tresnak, komunikazio politikorako bideak... antolatzen ditu. Izan ere, herri zapaldu guztion helburua da mundu honetako sistema kapitalista-inperialista apurtzea eta mundu justuago, parekideago eta libreagoa eraikitzea. Beraz, elkar indartzeko beharra daukagu.

Hala ere, munduan zehar Euskal Herriaren berri ematea eta Euskal Herrian beste herri borrokalariekiko babesa eta elkarlana egotea Espainiako Estatuak jasan ezin duen zerbait da, horrela gure zilegitasuna eta indarra hazi egiten direlako. Horregatik, Estatuak Askapenaren aurkako ilegalizazio prozesua martxan jarri du eta bost kiderendako seina urteko espetxe zigorra eskatzen du. Ondo ezagutzen dugun Auzitegi Nazionalean egingo da epaiketa aurtengo urrian, eta ezinbestekoa da herritarren mobilizazioa, epaile torturatzaile eta faxista horiei oraingoan ere herri hau oinperatuko ez dutela entzunarazteko.

Hortaz, Askapenetik dei egiten diegu debagoiendarrei ahal duten bezala ilegalizazio honen aurka egin dezaten, bidegabekeria honen salaketa zabalduz.

Bereziki, irailaren 26an, 18:30ean, Arrasateko plazatik abiatuta egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egin nahi dugu.

Hamaika herri, borroka bakarra!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

ANDRAMAIXAK GATZAGAN



GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN
ASTELEHENA, IRAILAK 7, 20:00, 21:00 ETA 22:30

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK

BERGARA

# Hutsik, konponketak egin eta garbitzeko

- Bergarako Agorrosin kiroldegiko barruko igerilekuak hustu dituzte astean
- Arrasateko igerilekuetara joateko aukera dute erabiltzaileek

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Hustu egin dituzte Bergarako Agorrosin kiroldegiko barruko igerilekuak, bai txikia, bai handia. Ohikoa da urtean behin garbitze lanak egitea, baina, oraingoan, konponketak ere egingo dizkiete. Irailaren 16a bitartean egongo dira itxita, eta, bien bitartean, Arrasateko Musakolako igerilekuetara joan ahal izango dira erabiltzaileak.

**Milioi bat litro ur**

Igerileku handiak milioi bat litro ditu eta txikiak ia 300.000. Eta eguaztena eta eguena artean hustu dituzte horiek. "Aluminio herdoilgaitzez egindakoa da eta barrutik PVCarekin babestuta dago. Azpitik ikusi egin daiteke ura nondik galtzen duen eta ikusten ari ginen PVCa zulatu, aluminioa pasatu eta ura galtzen zebilela. Konpondu beharreko egoera zen eta horri heltzea erabaki dugu garbitasun lanak aprobetxatuta", jakinarazi du Udaleko Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk. Alpe Pools enpresako langileak dabiltza horretan.

Spa eta kanpoko igerilekua, ostera, zabalik daude. Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, barrukoa gertu egon arte mantenduko dute zabalik kanpokoa: "Lanak ondo bidean direla, hilaren 17rako zabalik izango ditugu barrukoak eta orduan itxiko ditugu besteak". Lan horiek egin bitartean kiroldegiko beste hainbat guneren mantentze-lanak ere egingo dituzte egunotan: "Hala, erabiltzaileei traba gutxiago sortuz".

**Arrasatera joateko aukera**

Herriko igerilariak Arrasateko Musakola kiroldegiko igerilekura joan ahal izango dira Bergarakoa itxita dagoen bitartean. "Hori bai, Arrasaten kanpoko igerilekuak bakarrik dituzte zabalik, eta hara joan beharko dute", jakinarazi du Ugarteburuk. Kirol abonu arruta eta osoa dutenak joan ahal izango dira, eta ez dute inongo tramitazio administratiborik egin beharrik izango. Ordutegia da 10:00etatik 16:00etara. Edozein argibide gura izanez gero Agorrosinera dei egin daiteke (943 77 70 95), edo mezu bat bidali honako helbide honetara: *iugarteburu@bergara.eus*.

**4.000 abonatu Agorrosinek**

Erabiltzaile asko ditu igerilekuak. Handiak, 21x25 metroko neurriarekin, hamar kale ditu eta bergarar asko hurreratzen da urtean zehar hara. "Erabiltzaile kopuru benetan polita daukagu. 07:00etatik 22:00etara bitartean dute zabalik eta beti dago jendea", dio, eta gaineratu du: "Igeriketa eskolan, gainera, 200 eta 300 ume artean daude; klubean beste 100 bat ume eta gazte; eta helduen ikastaroetan ere asko".

Agorrosin kiroldegiak 4.000 bat abonatu ditu urtean zehar, eta udan gehiago: "Aurten 5.000tik gora izan ditugu", dio Kirol teknikariak, pozik. Egunotan jarriko dituzte abian denboraldiko jarduera asko, eta Ugarteburuk bergarar guztiak gonbidatu gura ditu Agorrosinera hurreratu eta kirola egitera.



Agorrosingo barruko igerileku handia hutsik, atzo, langile bat barruan dela. | MIRARI ALTUBE

## Arautegi zorrotza igerilekuetan

Osasun Sailak arautegi zorrotza ezartzen duela dio Ugarteburuk: "Orain dela bi urte arte urtean birritan ixten genuen garbiketa orokorra egiteko. Behin bakarrik hustuta ere arautegia betetzen dugu eta erabiltzaileei kalterik ez eragiteko behin ixten dugu orain". Egunero hiru aldiz egiten dituzte hainbat neurketa; kloroarena eta pHarena, esaterako. "Eta gero eta zorrotzagoak dira. Orain, $CO_2$a ere neurtu behar dugu, legionelaren aurkako tratamenduak eman... ", dio, eta gaineratu du: "Bota beharreko produktu kimikoak automatizatuta ditugu eta erabileraren arabera neurtzen dute guztia; izan ere, kontrol benetan zorrotza daukagu". Hori guztia uraren kalitate osasuntsua bermatzeko.

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea
Bueltan gaude!
Etor zaitez!
Janaria ere etxera eramaten dugu
Etxez etxeko zerbitzua: Bergara: +1,80 € Inguruko herriak: + 2 €
☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

















# BERGARAKO GIARTZU KARATE KLUBAREN EKINTZEN MEMORIA 2014-2015

### 2014

**Otsailak 22:** Eskola Kirol txapelketa. Eibar.
**Otsailak 28:** Kluben arteko entrenamendua. Aretxabaleta.
**Martxoak 23:** Eskola Kirolaren Gipuzkoako txapelketa. Azkoitia.
**Apirilak 6:** Alebinen, infantilen eta kadeteen Gipuzkoako txapelketa. Lezo.
**Maiatzak 17:** 33. Nazionala. IV. Yama No Kokoro, Kyokushin Trofeoa. Vielha
**Maiatzak 25:** Eskola Kirolaren udaberri jaia. Azkoitia
**Maiatza:** Udako Kyokushin karate kontzentrazioa. Espejo.
**Maiatzak 31:** Euskadiko 33. Eskola Kirol Jokoak. Gasteiz.
**Ekaina:** Gradu azterketak.
**Irailak 20:** Proiektu mundial entrenamendua. Algorta.
**Urriak 12:** Gipuzkoako txapelketak, juniorrak eta kadeteak eta 21 azpikoak. Hondarribia.
**Urriak 18:** I. Logroño Hiria nazioarteko trofeoa. Logroño.
**Azaroak 1:** 22. Euskadiko txapelketa (kadeteak eta juniorrak) eta VI. Euskadiko Kopa: Gasteiz.
**Azaroak 29:** Gerriko beltz eta marroiendako kurtsoa, Kyokushin. Zaragoza.
**Abenduak 13:** II. Karate Trofeo Nazionala. Arnedo.
**Abenduak 14:** Eskola Kirolaren Gabon Festa. Hondarribia.
**Abendua:** Gradu azterketak.

### 2015

**Urtarrilak 31:** Kyokushin entrenamendu berezia. Gasteiz.
**Otsailak 28:** Kyokushin entrenamendu teknikoa (gerriko beltzak eta marroiak).
**Otsaila:** Kluben arteko entrenamendua (3 klub). Aretxabaleta.
**Martxoak 7:** Eskola Kirol txapelketa. Eibar.
**Martxoak 15:** Gipuzkoako Eskola Kirol txapelketa. Hondarribia.
**Martxoak 21:** 37. Kyokushin karate txapelketa nazionala. Cheste (Valentzia)
**Apirilak 18:** Gipuzkoako txapelketa, alebin, infantil eta kadete mailetan. Hondarribia.
**Apirilak 25:** Vianako haurren III. Shinkyokushin txapelketa. Viana
**Maiatzak 23:** Udaberriko haurren festa. Azkoitia.
**Ekainak 12, 13, eta 14:** 17. Udako Kyokushin karate kontzentrazioa. Espejo.
**Ekaina:** Gradu azterketak.

### Urte amaiera arteko ekintzak:

Teknifikazio espezifiko kurtsoa
**Urria:** kadeteen, juniorren eta 21 urte azpikoen txapelketa.
**Azaroa:** Promozio txapelketa (14 urtetik gorakoak)
**Azaroa:** Oyama Kopa (Bartzelona)
**Azaroa:** Emakumezkoen trofeoa
**Abendua:** Kyokushin txapelketa nazionala. Zaragoza
**Abendua:** Gabonetako haurren festa
**Abendua:** Gradu azterketak

### 2014-2015 Palmaresa

Javi Rodriguez Kumite Kyokushin, Espainiako txapelduna (Gasteiz)
Javi Rodriguez: Kumite kyokushin, Espainiako txapeldunordea (Vielha)
Izar Muñoz: hirugarren postua Espainiako Kyokushin txapelketan (Vielha).
Jon Errasti: lehen postua bere kategorian.
Irati Alberdi: Eskola Kirolean txapelduna.
Olaia Iza: Eskola Kirolean txapeldunordea.
Izar Muñoz: txapelduna (Viana)
Izar Muñoz: Eskola Kirolean Gipuzkoako txapelduna.
Rose Mari Meza: bigarren postua Gabonetako Festan.
Irati Alberdi: hirugarren postua Gabonetako Festan.

*Body Gym • Easy Line • Karate • Spinning • Crossfit • Defentsa Pertsonala • Body Balance*

GCD

## *GIARTZU gimnasioa / karate kluba*

**Boni Laskurain 3 behea BERGARA - 943 763005 - *gimnasio@giartzu.com* - *www.giartzu.com***

***Informa zaitez!***

# Urri amaierara arte iraungo dute Arrasate pasealekuko lanek

Irailaren bukaerarako errei bat zirkulaziora irekitzea espero du Udalak

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE
Arrasate pasealekuko lanak orain, irailean, amaitzea aurreikusten zuten arren, urriaren amaierara arte iraungo dute.

Arrazoia da pasealekua eta Udala plazako biribilgunea lotzen dituen zubian –Aramaio errekaren gainekoa– segurtasun-arazoak antzeman dituztela. Ondorioz, zubiaren zati bat bota –Munar aldekoa– eta berregin egingo dutela erabaki dute arduradunek.

Otsailean hasi ziren kalea birmoldatzeko lanak, eta martxoa ezkero autoen zirkulaziora itxita dago Arrasate pasealekua.

**Arriskuak ekiditeko**

Uztailean, langileak lur azpiko hodiak sartzen ari zirela, zubia bi zatitan eraikita zegoela eta aipatutako aldea egoera txarrean zegoela ikusi zuten. "Zamaren bat pasatzerakoan oinezkoentzat eta autoentzat arriskutsua" izan zitekeela azaldu du Maria Ubarretxena alkateak, Igor Kortabarria Hirigintza teknikariarekin batera lanen egoera azaltzeko eskainitako prentsaurrekoan.

**Urrirako errei bat zabalik**

Hala ere, irailaren bukaerarako errei bat zabalduko dutela aurreratu du Ubarretxenak: "Herritarrekiko konpromisoa hartu genuen eta ahalik eta azkarren zabaldu nahi dugu".

Ordutik aurrera, eta bi erreiak zabaldu bitartean, semaforoak ezarriko dituzte zirkulazioa erregulatzeko; beraz, zentzu batera zein bestera doazen autoak igaro ahal izango dira bertatik.

**Kostu gehigarria Udalarentzat**

Aipatu bezala, arriskuak ekar ditzakeen zubiaren zatia eraitsi egingo dute, ondoren segurtasun berme guztiekin berreraikitzeko. Ubarretxenak azpimarratu du ezusteko obra berri hori "egin beharreko" zerbait dela, egoerak eta herritarren segurtasunak hala eskatzen duelako.

Lan berri horrek zati guztiaren atzerapena ekarriko du. Zubiaren konponketa plana proiektu osagarri batean bildu du Udalak, eta, ondorioz, lanen atzerapenaz gain, pasealekuko proiektuak 106.044,69 euroko kostu gehigarria izango du hasiera batean aurreikusitako 1.134.995,90 euroko aurrekontuaren gainean. Construcciones Amenabar SA eraikuntza etxeari esleitu zizkion Arrasateko Udalak kalearen birmoldaketa lanak.

**Pasealeku berria**

Lan guztiak bukatu eta pasealekua osorik irekitzen dutenean hogeita hamar kilometro orduko abiadura muga ezarriko dutela zehaztu du Igor Kortabarria teknikariak. Bestalde, zirkulazioa ibilgailu arinentzat soilik egongo da baimenduta. Hortaz, trailerrek Olandixoko tuneletik pasatu beharko dute.

Herri barruan autoen mugimendua txikitu eta kalea oinezkoentzat eta bizikletentzat egokiago bihurtzeko helburuarekin, aparkalekuak kendu eta espaloia handitu dute langileek Arrasate pasealekuan.



Berriztatu beharreko zubiaren zatia. | MAITE TXINTXURRETA




# Zalduspe-Osinaga zubiko lanak amaitu dituzte

Azken lanak eta zama-proba guztiak bukatuta, asteon zabaldu dute pasabidea herritarrentzat

M.T. | ARRASATE
Ia bederatzi hilabete oinezkoendako itxita egon ondoren, irailean zabalduko du Arrasateko Udalak Musakolako Zalduspe eta Osinaga kaleak lotzen dituen zubia.

Urtarrilean hasi zituzten zubia eraberritzeko eta hobetzeko obrak, baina hainbatetan luzatu behar izan dute amaiera epea: maiatzaren 8an lehenik, 29an berriro ere, eta, azkenik, uztailaren 10ean.

Epeak luzatzeko arrazoiak askotarikoak izan dira: eguraldi eskasak obran sortutako eragozpenak, material hornikketan arazoak eta, batez ere, pasabidearen segurtasuna bermatzeko burutu dituzten egonkortasun-proba ugariak. Izan ere, lanen azken fasean sortutako konplikazioen ondorioz, behin eta berriro errepikatu behar izan dituzte zama-probak.

**Azken lanak**

Azken fase honetan, zubia margotu, ur hodien probak egin, zoladura hormigonatu eta barandak jarri dituzte. Bukatzeko, aurreko astean azken zama-proba egin zuten, plataforma bidoi handiz estalita, zubiak pisu handia har zezakeela egiaztatzeko.

**Hormigoizko zubia**

Lehenago lur bustiarekin egurrezko zorua irristakor egoten zela eta, hura aldatu eta pasabidean hormigoizko harlauza berriak jartzea erabaki zuten. Horrez gainera, argiztapena hobetzeko farola berriak ere ipini dituzte.

Hain zuzen ere, eraberritze lanak Construcciones Morga enpresak egin ditu, 119.410 euroko aurrekontuarekin.

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Zubiaren itxura berria. | M.T.



Iazko udako merkemerkaua Biteri plazan. | IMANOL SORIANO

# Maukak lortzeko aukera izango da bihar egingo duten Merkemerkauan

## Udaberri-uda denboraldiko azken beherapenak kalera aterako dituzte herriko 38 dendarik

M.T. | ARRASATE

Merkemerkauaren 14. edizioa egingo dute bihar, irailak 5, Ibai-Arte merkatarien elkarteko bazkide diren 38 komertziok. Udaberri-uda denboraldiko *stock*-a izango da, eta azken prezioak aterako dituzte kalera.

Goizeko hamarretan hasi eta iluntzeko zortzi eta erdiak arte egongo da arropa, oinetakoak, mertzeria, dekorazioa eta bestelako produktuak prezio murriztuan erosteko aukera.

Erdiguneko komertzioek denden kanpoaldean jarriko dituzte ikusgai produktuak, eta inguruko auzoetako dendariek, aldiz, Olarte kalean eta Biteri plazan instalatuko duten karpa-gunean.

**Egunean zehar animazioa**

Ibai-Arteko kideak ez dira, ordea, produktuak kalera ateratzera mugatuko, eta, eguna girotzeko, egitarau berezia prestatu dute.

Goizean zehar, hamaiketatik eguerdiko ordu bata bitartean, batukada izango da Sambaña taldearen eskutik. Arratsaldean, aldiz, buruhandiak eta Erraldoi eta Kilikien Konpartsakoak ibiliko dira kalean zehar 17:30etik 19:00etara bitartean.

**Komertzio berdearen astea**

Irailaren 16an hasi eta 22ra bitartean Merkataritza Berdearen astea ospatuko dute herrian. Udalak antolatzen duen Mugikortasun Astearen baitan kokatzen da ekimen hori, eta kontsumo arduratsua bultzatzea du helburu.

Hori dela eta, Arrasate txartelarekin erosten dutenen artean Jakion produktu ekologikoen 70 sorta zozkatuko ditu Ibai-Artek. Irailaren 19an (13:30) banatuko dizkiete sariak irabazleei San Frantzisko elizan.

Bestalde, merkatarien elkarteko bazkideek birziklatutako materialekin apainduko dituzte euren denda eta erakusleihoak, eta bertan, salgai dauzkaten produktu ekologikoak erakutsiko dituzte.

**Jesus Mari Elkoro** | Ibai-Arteko merkataria

# "Arrasate txartelari ahalik eta etekin onena atera nahi diogu"

## 150 merkatari inguruk osatzen dute Ibai-Arte. Martxoan Arrasate txartela kaleratu zuten, hainbat abantaila eskaintzen dituen ordainketa txartela

M.T. | ARRASATE

Olarte kaleko negozio baten jabea eta Ibai-Arte merkatarien elkarteko zuzendaritzako kidea da Jose Mari Elkoro. Oporretatik bueltan, elkarteari buruz eta kurtso berriari begira dituzten erronken gainean hitz egin du.



Etxetresnak saltzen ditu Elkorok bere dendan. | MAITE TXINTXURRETA

**Nola joan da abuztua herriko merkatariendako?**

Suabe, oso suabe. Jende asko oporretan kanpora joan dela nabaritu dugu. Gutako askok ere oporrak hartzeko aprobetxatu dugu.

**14. Merkemerkaua egingo duzue zapatuan.**

Bai, potente hasiko dugu kurtsoa. Herrian jada formula ezaguna da Merkemerkauarena, eta arrakasta izaten du.

Giro polita sortzen da herrian, mugimendua egoten da. Aurten 38 saltoki izango dira produktuak kalera aterako dituztenak.

**Martxoan Arrasate txartelak Ibai-Arte txartela ordezkatu zuen. Zein abantaila ditu?**

Gauzarik garrantzitsuena da txartel unibertsala dela, eta dohainekoa. Ibai-Arte txartelaren abantailak mantentzen ditu; promozioak egiten dira, puntuak ematen ditugu... Jauzi handi bat egin dugu, eta hemendik aurrera gu ere joango gara ikusten erreminta horrek eman ditzakeen aukera gehiago.

**Zer egin behar da txartela eskuratzeko?**

Ibai-Arteko edozein dendatan eta Caja Ruralen egin daiteke. Martxoan Ibai-Arte txartela zeukaten guztiei txartel berria egiteko gonbidapena bidali genien, eta 3.000 pertsonara heldu gara jada.

Martxotik hona erabilera ugaritu egin dela ere sumatu dugu.

**Gaur egun zenbat komertziok hartzen dute parte Ibai-Arten?**

150 merkatari inguru gara, eta ateak zabalik dauzkagu. Elkartea ez da soilik promozioak egiten dituen talde bat; nolabait, arduratzen gara instituzioetan hirugarren sektorea ordezkatzeaz.

**Zer asmo dituzue ikasturte berrirako?**

Erronka nagusia Arrasate txartelari ahalik eta etekinik handiena ateratzea izango da aurten, eta horrekin lotuta sorpresatxoren bat ere izango da.






# Egun osoko giroa Zarugaldeko jaietan

Goizetik gauerako egitarau betarekin, ederto ospatu zituzten jaiak zapatuan Zarugalde kalean. Umeentzako jolasak, buruhandiak, karta txapelketak, txistulariak eta bonba japoniarrak izan zituzten, besteak beste. Gauean, karpapean afaria egin zuten, irudian ageri den moduan, eta ondoren erromeriaz eta zezensuzkoaz gozatu zuten.



SERGIO AZKARATE



Ttakun txalaparta taldekoak Udalatxen txalaparta jotzen albokarekin lagunduta. | EKAITZ ZILARMENDI

# Txalapartaz bere habitatean gozatzeko proposamena

Kurtzetxikiko tontorrean pintxoak eta edariak dastatzeko aukera egongo da

JOSU BILBAO | ARRASATE

Txalapartak mendira eramango dituzte *Kurtzetxikiparta! Lorentxo Altube Memoriala* egunean, irailaren 12an. 11:00etan izango da irteera, Zaldibartik, eta 12:00etan txalaparta saio libreak egingo dituzte Kurtzetxikiko tontorrean. Alboka entzuteko ere aukera izango da. Gainera, jan-edana ere izango dute animatzen direnek. Goizeko plana bukatzeko, 13:30ean, txalaparta-poteoa egingo dute Arrasateko alde zaharrean.

**Herritarrak gonbidatuta**

Arrasateko Ttakun txalaparta taldetik adin guztietako jendea Kurtzeberrira igotzera animatu nahi dute irailaren 12an egingo dituzten ekitaldietarako: "Jendea etor dadila, bai noski. Aurreko urtean Udalatxera igotzea erronka gogorregia izan zen askorentzat. Aurten mendi errazagoa jarri dugu, eta herritar guztiak gonbidatuta daude. Tontorrean zer jan eta zer edan egongo da, eta egun polita izango da".

**Lorentxo Altube oroituz**

Taldeko kide Gorka Zubizarretak gogoratu du Altubek euskal musika tresnen ondarea berreskuratzeko eta txalapartaren inguruan egindako lana: "Txalapartaren bueltan antolatutako egun bat da. Altuberen oroimena egun honetako parte izatea ere nahi dugu. Guretako, txalaparta instrumentu ezezagun bat zen orain dela 30 urtetik atzera, eta instrumentua gizarteratu eta jendeari erakutsi zion".



2014ko Trikitixa Eguna. | GOIENA

# Arrasateko Trikitixa Eskola plazara irtengo da hilaren 11n

Arratsaldeko seietan hasita, kaleetako giroa berotuko dute trikitiek eta panderoek

J.B. | ARRASATE

Trikitixa Eskolak ate irekien eguna ospatuko du irailaren 11n, egubakoitzean. 18:00etan, kalejira egingo dute eskolatik herriko plazara; eta 18:30ean, trikitiekin eta panderoekin hartu-emana egongo da. Nahi duenak jotzeko edota zalantzak argitzeko eta metodoari buruzko xehetasunak ezagutzeko aukera izango du bertan. Gainera, 18:30ean ere, ikasleek nahi dutena joko dute, banaka, binaka edo taldeka, eta Trikitixa Eskolatik herritarren parte-hartzea une oro oso garrantzitsua izango dela azpimarratu dute.

Plazan, pintxoak, sagardoa eta ardoa dastatzeko aukera izango dute festara joatera animatzen direnek. Panderoak egiten dituen artisau bat bertan izango da, eta *pulpeiro* bat ere bai. Datorren ikasturterako matrikula bertan egiteko aukera izango dute herritarrek, eta aurtengo ikasturte bukaerako emanaldia pantaila batean ikusi ahal izango da.

**Lehenengo 'trikigin'-a**

19:00etan, Arrasateko lehenengo *trikigin*-a ospatuko dute. Gin-tonicak prestatzeko erakustaldia izango da, hain zuzen ere. Herriko zenbait tabernatako zerbitzarik gin-tonicak modu egokian nola prestatzen diren erakutsiko dute, eta epaimahai batek erabakiko du zein den onena. Ondoren, prestatutako gin-tonicak kontsumitu ahal izango dira.

"Jendeak kalean ikus dezala trikitia zer den. Herritarrak parte hartzera animatzen ditugu; izan ere, Trikitixa Eskolan adin guztietako jendea dugula erakutsi nahi dugu", azaldu du Maite Loidi irakasleak.

# Irailaren 19an ospatuko dute Elkartasun eguna

J.B. | ARRASATE

Prest dute euskal preso, iheslari eta errefuxiatuen omenezko eguneko egitaraua. Eguna hasteko, 10:30etik 14:00etara *LKRTSN* (elkartasun) azoka egongo da Herriko Plazan. Bertan, artisauak, baserriko produktuak, bertsolariak, txalaparta, *LKRTSN* materiala eta beste hainbat ekintza egongo dira.

Gainera, 10:30ean, Biterin, umeentzako jolasak, puzgarriak, ipuin kontalariak, musika, pintxoak eta beste hainbat ekintza egongo dira. Kontzertu sorta, ostera, eguerdian hasiko da tabernetako emanaldiekin, eta bazkarirako txartelak Amaiur, Monte eta Irati tabernetan eros daitezke, 13 euroren truke. Bazkariko menua hauxe izango da: paella, saiheskia txingarretan, edariak eta kafea.

**Gaueko kontzertuak**

19:30ean manifestazioa izango da, euskal preso, errefuxiatu eta iheslari politikoen eskubideen defentsan, eta, eguna bukatzeko, 21:00etan, kontzertuak hasiko dira Monterronen. Besteak beste, Anje Duhalde, Fiachras, Arkada Social, Gramones eta Kañeria 13 taldeek emanaldiak egingo dituzte.

# Bi jardunaldi berezi Julio Galartaren erakusketan

J.B. | ARRASATE

Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkarteak bi jardunaldi berezi antolatu ditu, lehena irailaren 10erako eta bigarrena irailaren 24rako, Gasteizko Vital Fundazioa Arte Aretoan (Foruen plaza). Jardunaldietan, Iñigo Arregi erakusketaren komisario artistikoa eta Josemari Velez de Mendizabal elkartearen presidentea egongo dira, 18:00etatik 20:00etara, eta egun horietako bisitariek Julio Galarta pintorearen obraren eta bizitzaren gaineko zehazkizunik garrantzitsuenak haien eskutik ezagutzeko aukera izango dute. Arrasateko pintorearen lanen erakusketa maiatzaren 28an zabaldu zuten eta urriaren 4ra arte egongo da ikusgai.

# Harresiko erakusketa berriz ere zabalik

J.B. | ARRASATE

*Dinbi, Danba, Mailukaren hotsa* erakusketa abuztuan itxita egon da, eta irailaren 3an berriro ireki du Arrasateko Udalak. Sarrerak doan dira, eta ordutegia izango da ostegunetan eta ostiraletan 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:30etik 13:30era.

Erakusketan, Bixente Barandiaran *Mentu* (1922-2004) Arrasateko azken errementariaren lanbidea, sutegi baten simulazioa, perratzaile ofizioaren nondik norakoak eta herrian hain garrantzitsua izan den metalgintzaren tradizioa gertutik ezagutu ahal izango dituzte bisitariek. Gainera, lanbide horri loturiko lan prozesuak, teknikak eta sekretuak bereganatu ahal izango dituzte bisitariek.

## Arizmendiarrietaren gaineko dokumentala urte bukaerarako bukatuko du Gaizka Urrestik

Zinegile bilbotarra Jose Maria Arizmendiarrietaren gaineko dokumentala prestatzen dabil, eta laster helduko dio filmaren zati handiena osatzeko lanari. *Arizmendiarrieta, el apóstol de la cooperación* izena izango du dokumentalak, eta kooperatibismoaren sortzaile izan zenaren bizitza eta lana zabaltzeko balio izango du. Dokumentala apirilean hasi ziren filmatzen, eta, besteak beste, Jose Maria Ormaetxea, Alfontso Gorroñogoitia, Javier Retegi eta Juan Leibar agertuko dira.

## 1951n jaiotako arrasatearrek Zarautzera eta Getariara txangoa antolatu dute urriaren 17rako

Txangoa antolatu dute 1951n jaiotako arrasatearrek urriaren 17rako. Egun-pasa Zarautzera eta Getariara joango dira, hain zuzen ere. Izena emateko epea irailaren 30era arte izango da, eta animatu nahi duenak 60 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxako 3035 0001 52 0011161015 kontu zenbakian. Norbaitek informazio gehiago edo txangoaren zehaztasunak jakin nahi baditu, Dionirekin (661 73 37 74 telefono zenbakia) edota Anarekin (639 90 22 01 telefono zenbakia) harremanetan jartzeko aukera du.



Opel Meriva autoa istripua gertatu eta berehala, eta ondoan suhiltzaileak eta ertzainak. | LARRAITZ ZEBERIO

# Sebastian Gorosabelen heriotzak mina ekarri du errugbi elkartera

Eguenean hil zen 44 urteko gaztea, Kanpanzarren auto istripua izan ostean

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Sebastian Gorosabel 44 urteko arrasatearra auto istripuan hil zen eguenean Kanpanzar inguruan. Muxibarrerantz zetorren, kamino zaharrean beherantz, eta, Meatzerreka elkartearen parean zihoala, bazterra jo eta autoaren kontrola galdu zuen. Istripuaren ondorioz, errepide ertzean geratu zen gidatzen zihoan Opel Meriva autoa. Aurreko aldea, batez ere, gidariaren aldea, erabat hondatuta geratu zitzaion autoari. Hildakoa bakarrik zihoan autoan.

Kostata, suhiltzaileek atera behar izan zuten auto barrutik eta ospitalera eroan zuten anbulantzian osasun zerbitzuek. Hasiera baten, ez zuen konorterik galdu. 12:35ean gertatu zen istripua, Herrizaingo Sailetik adierazi dutenez. Arratsaldeko lehen orduan hil zen, Arrasateko Eskualde Ospitalean.

Istripua dela-eta errepidea itxita egon zen 14:00ak arte, bi noranzkoetan, ertzainek eta perituak atestatua egin, garabiak autoa erretiratu eta bidea libre geratu zen arte.

**Arrasate Errugbi Taldean**

Sebastian Gorosabelek emaztea eta semea utzi ditu. Oso ezaguna zen herrian, besteak beste, Arrasateko errugbi taldeko jokalari izana zelako, eta elkartearekin kolaboratzen zuen sarri. Donostiako Bera Berako jokalari ere izatera heldu zen eta Euskal Selekzioaren elastikoa ere janzteko aukera izan zuen. Gertaerak mina eta atsekabea sortu du Arrasaten. Haren hileta elizkizunak atzo egin zituzten San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Kolpe latza izan da senideendako ez ezik herriko errugbi zale guztiendako ere. Ez bakarrik herrikoendako. "Donostiatik, Bera Beratik, dolumin mezu ugari jaso ditugu" dio Patxi Gorosabelek, hildakoaren lehengusuak eta haren moduan errugbi taldean ibilia denak. Una gogor hauek pasa ostean, omenaldiren bat antolatzeko asmoa dutela ere aurreratu du. Beteranoek aldiro elkartzeko ohitura badute eta halako bat baliatu nahiko lukete.

# Josu Zubiak indartsu hasi nahi du Liga Antzuolan

E.A. | ARRASATE

Ilusio handiarekin entrenatzen dihardute Mondrako talde nagusiko futbolariek. Josu Zubia entrenatzailea Arrasate Irratian izan da asteon, eta irailaren 20an Antzuolaren aurka hasiko duten denboraldiaren gainean jardun du. Baita atzo hasi eta asteburuan jokatuko den Arrasate Hiriari buruz. Elgoibar, Bergara, Elorrio eta Arrasate nor baino nor gehiago ariko dira.

Preferentean ariko dira aurten ere Zubiarenek, eta Ohorezko Erregionalera igotzea izango dute helburu. Antzuola eta Bergara kategoria berean ariko dira aurten, iaz jaitsi ostean. Zubiaren ustez, Bergara eta Mondra dira mailaz igotzeko faborito nagusiak, Amaikak Batekin eta Urolarekin batera.

Bloke bera dauka bere agindu etara Zubiak, "gazteen eta beteranoen arteko nahasketa". Gainera, Antzuolatik bueltan etorri da Julen Aranbarri mondragoetarra. "Liga hasieran ahalik eta puntu gehien batzea da helburua, eta Antzuolara irabaztera joango gara", dio.



# Indarkeria matxistaren aurka, ekintza ikusgarria

Batez ere sare sozialen bidez zabaldutako deiari erantzunez, 150 emakume inguru batu ziren plazan, beltzez, lurrean etzanda, hil egiten dituztela salatzeko

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Bergaran ere egin zuten eguazten arratsaldean *Women in black* izeneko ekimena –Euskal Herriko eta Espainiako hainbat herri eta hiritan egin zen–. Erabateko arrakasta izan zuen ekintzak; sare sozialen bidez, Whatsappez, ahoz aho... zabaldu zen deialdiaren berri, eta 19:30 aurretxorako jende ugari zen San Martin plazan, beltzez jantzita.

Ordua iristean, lau ilaratan lurrean jesarri ziren 150 emakume inguru; Bilboko Mujeres Inperfectas elkartearekin harremanetan, Lur Ortiz izan zen ekimena herrira ekartzea pentsatu zuena, eta haren hitzek eman zioten hasiera: "Neskak, hilda gaude". Hori esanda –zentzu berean zihoazen lurrean klarionaz idatzitakoak ere: *Geu hiltzen dabiz!*–, etzan egin ziren jesarrita zeuden denak.

Ekimenera batutako zenbait mutilek emakumeen soslaiak marraztu zituzten orduan lurrean; marrazten amaituta, emakume bakoitza albokoari sorbalda ukituta joan zen banan-banan lurretik altxatzen, eta zutik geratu ziren marrazkiaren gainean.

Ikusgarria izan zen ekintza, eta jende asko batu zen plazan han egiten ari zirena ikustera; isiluneak –gidoiaren parte ziren horiek ere– eta plazan batutakoen txaloak –behin baino gehiagotan jo zituzten– tartekatu ziren ekintzaren azken aldera. Azken txalo sortarekin, beltzezko emakumeek nork bere bidea hartu zuen, klarionaz marraztutako soslaiak bakarrik utzita plazan.

**"Oso pozik eta harrituta"**

Indarkeria matxistak emakume asko eta asko desagerrarazten, hiltzen, dituela salatu nahi izan zuten eguaztenekoarekin: "Ez dira kasu isolatuak, gizartearen akatsa da. Hau geratu egin behar dugu, agerikotasuna eman behar diogu errealitate honi, jendea kontzientzia dadila, eta goikoei ere esan nahikoa dela: "Bat ere ez gutxiago!", zioen Ortizek. "Oso pozik eta harrituta" zegoen ekimenak izandako erantzunarekin.

Dozenaka emakume San Martin plazan etzanda. | JULEN IRIONDO

## Elkartasun afaria bihar, 'Bixkai' eta Elkoro bertan direla

**J.I.** | BERGARA

Bergarako presoen eta iheslarien lagunek antolatu dute afaria. Bihar, zapatua, 21:30ean izango da, Udal pilotalekuan eta eskaria ikusita txartel gehiago jarri dituzte salgai Pol-Polen eta Arranon; hitzordua 20:30erako egin dute, Pol-Polen, afaritara batera joateko.

Presoen senideei elkartasuna adierazteaz gain, "bakean bizi izateko eskubidea" eta euskal herritarren hitzaren errespetua aldarrikatu nahi dute afariarekin. Horrez gain, Jose Luis Elkororen –eguaztenean amaitu zuen etxean bete beharreko zigorra– eta Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai*-ren askatasuna ere ospatuko dute *Bixkai* abuztuaren 25ean geratu zen aske. Bi alditan banatuta, Espainiako eta Frantziako hainbat espetxetan 20 urte egin ostean atera zen Murtziakotik.

*Bixkai*, kartzela utzi berritan. | GOIENA

## OHARRAK

**UDAKO POSTAL LEHIAKETA**
Euskaraz izan behar dute, eta Jardunen egoitzan hilaren 18ra arte jasotakoek balioko dute.

**2016KO EGUTEGIA**
Hilaren 25ean amaituko da Udalean argazkiak aurkezteko epea: *Zura* da aurtengo gaia.

**KAFEKONPON HILAREN 9AN**
16:00etan, San Joxepen.

**HELDUEN ESKOLA**
Hilaren 15era arte egin daiteke matrikula, Irizar jauregian.

**IKASTURTEAREN AURKEZPENA IPINTZAN**
Irailaren 8an izango da. Ordutegiak: *www.ipintza.eus*.

**M. ALTUNA: AURKEZPENAK**
Hilaren 8an eta 9an hasiko da ikasturtea: *www.imaltuna.com*.

ariznoa elkartea

**2015-2016 KURTSO HASIERA**

**Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):**
irailaren 4an, 18:00etan, Labegaraietan
•
**Aurre-benjaminak I (2010ean jaioak):**
irailaren 17an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan
•
**Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailetakoak):**
irailaren 17an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan
•
**Benjaminak (3. eta 4. mailetakoak):**
irailaren 17an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan
•
**Antzuolako taldea:**
irailaren 23an, 14:30ean, frontoian



ERRITMIKOA ariznoa elkartea bergara
http://ariznoaelkarteabergara.com

**Matrikula berrientzako bilera informatiboa**
Irailaren 10ean, 18:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

**Harremanetarako:** *ariznoa_ge@hotmail.com*
690 394 492 telefonoa (10:00-13:00 eta 17:00-20:00 ordutegian)

**Iraila osoan zehar ATE IREKIAK Ipintzan.**

**Etor zaitez gu ezagutzera!**

# Hasiera ona museoari 'Simonen ondarea'-rekin

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Uztailaren 30ean ireki eta abuztu osoan izan da Laboratorium museoan Simon Arrietaren jaiotzaren mendeurrena aitzakia hartuta jarritako erakusketa ikusteko aukera; eta oraindik hilabetez egongo da horretarako modua, urriaren 4ra arte. Gainera, inaugurazio ofiziala irailaren 25ean izango den arren, museoak erakusketa horrekin ireki ditu ateak, praktikan, publiko orokorrarentzat.

Erakusketak jasotzen ditu era batera edo bestera Simon Arrietaren eragina jasotako 22 pintore bergararren lanak, eta baita Lorenzo Askasibar eskulturagile elgetarrak egindako Arrietaren bustoa ere. Pintoreei dagokienez, Xabier Agirre, Mari Paz Alustiza, Agustin Amasorrain, Mikel Ariztegi eta Fernando Azkargortaren lanak jasotzen ditu, adibidez; askotariko koadroak dira.

Museoko arduradunen esanetan, "oso ondo joan da abuztua" bisitan joan zaizkienei dagokienez. Azaldu dute, gainera, CN Travel enpresak, esaterako, bere zirkuitu kultural baten sartu duela Bergara, eta horrek ehun lagun dakartzala astero museora eta herrira. Erakusketa iraunkorrarekin ere, bertako zein kanpokoek "oso sorpresa atsegina" hartu dutela adierazi dute.



Erakusketaren irekiera eguneko argazkia. | UBANE MADERA

## Irekita kultur, kirol eta gizarte zerbitzuen alorreko diru laguntzak eskatzeko epea

**J.I.** | BERGARA

Aipatutako alorretan diharduten elkarteei eta gobernuz kanpoko erakundeei dago zuzenduta deialdia. Gizarte zerbitzuetakoei dagokienez, alor horretan diharduten elkarteek ez ezik, garapenerako lankidetza-programak lantzen dituzten GKEek ere jaso ahal izango dituzte.

Irailaren 1ean hasi eta 21 laneguneko epea dago diru laguntzak eskatzeko. Astelehenetik egubakoitzera egin daiteke, udaletxeko erregistro orokorrean, 09:00etatik 13:00etara. Informazio gehiago Udalaren webgunean kontsulta daiteke.

**Deialdi bateratua**

Udalak diru laguntzon deialdi bateratua egin du aurten, lehen aldiz. Horretarako arrazoia izan da "diru laguntzak hartuko dituzten elkarte eta entitateei araudi erreferentzia bakarra ematea eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzea", Udaletik adierazi dutenez.

## Hamabost dendaren produktuak bihar Seminarioko karpan

Bedelkarreko hamabost komertzioren parte-hartzearekin, *Stock factory* delakoa egingo dute bihar, zapatua, Seminarioko karpan. 10:00etatik 20:00etara izango da beherapenen azoka berezia. Uztailean egin zuten aurrekoa, eta, oraingoan, azken prezioak topatu ahal izango dituzte erosleek, denboraldi bukaerako azoka izango da-eta. Askotariko arropa eta osagarriak izango dira bihar.

**NIRE USTEZ**

**MIGUEL LAZPIUR**



## Errekuperazio ekonomikoa

Itxura guztien arabera, ekonomia ari da errekuperatzen era batera edo bestera; hori da, behintzat, gure politikariek egunero esaten digutena. Hitz egiten dute, besteak beste, ekintzaileatasunak, hura zabaltzeak eta praktikara eramateak duen garrantziaz; eta diote hori ez dela gutxi batzuen egitekoa, baizik eta gizarte osoarena, eta, bereziki, erakundeena eurena.

Beste alde batetik, 4.0 egitasmoarekin lotutako dena dugu: helburua da sektore industrial osoaren modernizazioa eta birmoldaketa; horren araberakoa izango da gure lehiakortasuna. Gakoa dira, zalantzarik gabe, gure langileria garai berrietara egokitzeko formazio planak; era guztietako formazioa, baina bereziki profesionala, hizkuntzak ere oso aintzat hartuta. Formazio arautua lehenengo, baina baita etengabeko formazioa ere.

Lanaren, ahaleginaren eta sakrifizioaren bidez, unean uneko egoeretara behin eta berriz egokitzen jakin izan duen herria gara, eta ondo egiten jakin dugu. Dena den, egunotan plazaratzen ari diren informazioen arabera, gure sektore industriala pisua galtzen ari da Euskadiko BPGan; sei puntu galdu ditugu hamar urte baino gutxiagoan, eta zerbitzuen sektoreak irabazi ditu horiek. Bada zerbait ondo egiten ari ez garena; edo, behintzat, egiten dugun hori ez da nahikoa, ze argi dut industriarik gabeko Euskadi batekin edo sektore ahul batekin gutxi egin dezakeela dugun ongizate mailari eusteko.





Pantxika eta Txinparta pailazoak Oxirondoko ludotekan. | MAITE TXINTXURRETA

# Kultura hitzordu ugari udako oporretatik bueltan

30. Moises Aspiazu dantza solte txapelketa egingo dute pilotalekuan San Martin jaien atarian

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Kultura hitzorduz beteta dator iraila Bergarara. Duela bi egun, umeentzako antzerkia izan zen hileko lehen eguazteneko azokaren aitzakiatan Oxirondoko ludotekan, Pantxika eta Txinparta pailazoen eskutik. Haur eta guraso ugari gerturatu ziren bertara, eta txikienek ederto pasatu zuten ikuskizunarekin.

Irailaren 11n, egubakoitza, Imanol Ituiño magoaren ikuskizuna izango da, 18:30ean, Errotalde parkean, Jardunek antolatuta. Egun berean, 19:00etan, bikote nagusien dantza solte txapelketa izango da Udal Pilotalekuan, Moises Aspiazuren omenez. 30. aldia da.

Nabarmentzekoa da hilaren 25ean Zabalotegi aretoan ikusgai izango den antzezlana: *Los intérpretes: movimiento allegro ma non troppo,* Altosf antzerki talde venezuelarraren eskutik.

**Ana Abajoren erakusketa**

Hilaren 13ra arte izango da Aroztegi aretoan Ana Abajo artista bergararrak jarri duen instalazioa ikusteko aukera. Askotariko lanak daude bertan, margolanak eta proiekzioak nagusiki.

**Akuarela erakusketa**

Beart elkarteak akuarela erakusketa jarriko du ikusgai gaurtik aurrera Nahikari tabernan. Rikardo Azkargortaren ikasleek egindako obrak izango dira, baita Azkargortarenak berarenak ere; guztira, hamabost margolarik jarriko dituzte akuarelak.

**'Kirola kalera' 27an**

Irailaren 27an, hileko azken domekan, *Kirola kalera* ekimena itzuliko da, Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta.

# Ikasturte berria Musika Eskolan

KOMUNITATEA GOIENA
MUSIKA ESKOLA | BERGARA

Kaixo, lagunok. Opor zoragarriak pasa ondoren bueltan gaude beste ikasturte batez zuekin musika egin eta gozatzeko asmoz.

Irailaren 7an hasiko dugu 2015-2016 ikasturte berria Bergarako Musika eta Dantza Eskolan, honako eskaintza honekin: Suzuki metodoa, musika eta mugimendu tailerra, dantza, hizkuntza musikala, musikoterapia, ahotsa eta instrumentu sinfonikoak, polifonikoak herrikoiak eta modernoak.

Hilaren amaiera arte egin daiteke matrikula. Informazio gehiago: *idazkaritza@bme.e.telefonica.net*-era idatzita edo 943 76 57 80 zenbakira deituta.

## Hasi dira San Martin jaietako danborrada prestatzeko entseguak

Astelehenean eta martitzenean egin zituzten irailaren 15ean, San Martin bezperako gauean, izango den helduen danborrada prestatzeko lehen entseguak. Talde askotariko zuzendari eta danbor-joleak seminarioko patioan elkartu ziren, eta hala egiten jarraituko dute datorren astean zehar ere. Umeei dagokienez, astelehenean (hilak 7) hasiko dituzte euren danborradarako entseguak. Irailaren 16an izango da hori. Aurten, nobedade gisa, danbor-joleek alde batetik eta japoniarren segizioak Udal bandarekin bestetik, bananduta egingo dute ibilbidea, bien artean denbora tarte bat utzita.

## Azoka eta ortuko produktuen dastaketa domekan San Juanen

Bosgarren urtez jarraian egingo dute azoka San Juan auzoan, eliza ondoko plazan. 11:30ean zabalduko dituzte postuak, eta ondoren, 12:30ean, aurtengo ortu lehiaketako produktuen dastaketa izango da. Bost euroren truke plater konbinatua eta edaria banatuko dute, aurreko urteetan bezala. Bergarako trikitilariak han izango dira giroa alaitzen, eta aurtengo ortu lehiaketako argazkiak plazan bertan jarriko dituzte ikusgai. Obieta eta San Juan Erreka elkarteak eta Tartufo jatetxea izan dira antolatzaileak.

## San Mateo jaiak eta ardo dastatze ikastaroa Uberan

Bihar, zapatua, San Mateo jaiak ospatuko dituzte Ubera auzoan. Goizez, 10:30ean hasita, kalejira, meza, boloak eta azoka izango dira, eta ordu bietan auzo-bazkaria. Arratsaldean jokoak egingo dituzte eta gauean afaria izango da. Bestalde, irailaren 10ean ardo dastatze ikastaroa izango da elkartean, Mikel Garaizabalek zuzenduta. Bertan parte hartzeko Udaleko Kultura Zerbitzuan eman beharko da izena, eta 3 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiagorako 943 77 91 59 telefonora dei egin daiteke.

# BKEren saskibaloi sailak harrobia aurkeztuko du

**M.T.** | BERGARA

San Martin jaiak aprobetxatuaz, Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi sailak 2015-2016 denboraldiari ongietorria egingo dio irailaren 12an, zapatua, klubaren harrobia herritarren aurrean aurkeztuta.

Ekitaldia 19:30ean hasiko da, eta bertan, saskibaloi elkarteak hastear den sasoi berrirako atera dituen talde guztiak aurkeztuko dituzte, jokalari zein entrenatzaileekin. Amaieran, familia-argazkia aterako dute guztiek batera BKEren elastikoa jantzita, azken urteotan egin izan duten moduan.

**GBC-Baskonia**

Bestalde, irailaren 15ean, goi mailako saskibaloi partidu profesionala ikusteko aukera izango da Labegaraietako kiroldegian. ACB mailako GBC Gipuzkoa Basket eta Laboral Kutxa Baskonia taldeek lagunartekoa jokatuko dute.

Norgehiagoka 19:30ean izango da, eta hamar euro ordaindu beharko dira lehia ikustera joan ahal izateko.

"Saskibaloia herrira gerturatzeko helburuarekin" antolatu du BKEk lagunarteko hori, azaldu du Mariam Mellado arduradunak.

STONE HOUSE HIZKUNTZAK
- INGELESA
- FRANTSESA
- ALEMANA
Matrikula epea zabalik!
Informa zaitez!
Ibargarai 18 behea - 3 • Tel.: 943 76 06 87
stonehousebergara@gmail.com
www.stonehousehizkuntzak.com

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ESPOLON
School of English
BERGARA
Ingeles klaseak
Matrikula epea zabalik
• Haurrak (2 urtetik gorakoendako)
• Gazteak
• Helduak
• Azterketa ofizialetarako prestakuntza
25 urte zuekin!
Informa zaitez:
Ibargarai, 31 behea BERGARA • Errekalde, 1 eta 2 behea ANTZUOLA
Tel/Faxa.: 943 76 03 53 • espolon@euskalnet.net

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

# BERGARAKO SHOTOKAN
## KARATE - DO KE

# KRAV MAGA - BERGARA
## DEFENTSA PERTSONALA









**SHOTOKAN KARATE ESKOLAK**
**IRAILAREN 9AN HASIKO DIRA.**
**ASTELEHEN, ASTEAZKEN ETA OSTIRALETAN.**

**Umeak:** 1. Txanda: 17:30etik 18:30era. 2. Txanda: 18:30etik 19:30era
**Nagusiak:** 19:30etik 20:15era
Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza institutuko DBH eraikineko gimnasiora entrenamendu orduetan.













**DEFENTSA PERTSONALA**
**BERGARAKO KRAV MAGA ESKOLA**

Entrenamenduak irailaren 10ean hasiko dira
Bergarako institutuko DBH eraikineko gimnasioan.

GAZTEAK: Astearteetan eta ostegunetan 18:00etik 19:00etara.
HELDUAK: Astearteetan eta ostegunetan 19:00etatik 20:30era.

Harremanetarako, deitu 615 79 90 78 telefonora,
bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatzi edo zatoz
Bergarako Ipintza institutuko DBH eraikineko gimnasiora
entrenamendu orduetan.



Langileak bidegorriko lanak egiten eguazten arratsaldean. | O.E.

# Urrian helduko da bidegorria Olabarrietara

## Datorren astean hasiko dira errepidea zulatzen lur azpiko pasabidea egiteko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bi tokitatik hasi dituzte Ugarkaldetik Olabarrietako autobus geltokiraino iritsiko den bidegorriaren lanak: Ugarkaldetik eta Billarko bidegurutzetik. Zornotzako Gabika enpresa ari da lanak egiten, eta, hango arduradunek azaldu duten moduan, hainbat arrazoirengatik hasi dituzte lanak bi puntutatik: Oñatitik Legazpi alderako noranzkoan ezkerraldean egiten ari diren lanak bidegorria egiteko lanak dira; eskuinaldeko lanak, berriz, errepidea zabaltzeko lanak.

Bidegorriak 800 metroko luzera eta hiru metroko zabalera izango ditu. Errepide bazterreko lursailei kenduko diete zatia bidegorria egiteko, baina San Kristobal gordetzen duten etxetxoaren inguru horretan errepideari kenduko diote, eta, beraz, estutu egingo da GI-2630 errepidea. Horregatik, errepidearen beste aldeko lurrei zatia kendu eta alde hartara zabalduko dute errepidea. Hala ere, errepidea sei metrora estutuko da.

Egingo duten bidegorrian oinez edo bizikletan joan ahal izango da eta babestuta egongo da. Hau da, babesa jarriko dute errepidearen eta bidegorriaren artean. "Babes elementurik jarriko da, baina hainbat aukera aztertzen ari gara oraindik, eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta oinezkoen eta txirrindularien zein motordun ibilgailuen babesa bermatzeko", azaldu du Iñaki Landa udal arkitektoak.

Gipuzkoako Aldundiaren diru laguntza izango du Udalak proiektu hori egiteko.

### Semaforoak

Olabarrieta eta Murgia lotuko dituen pasabidea egiten ere hasi dira. Egaralur ari da lan horiek egiten, eta abuztuan bota zuten Udana hasieran zegoen eraikin bat, pasabidea egiteko. Datorren astean hasiko dira errepidea zulatzen lur azpiko pasabidea egiteko. Horren ondorioz, bide bat itxita egongo da eta lanek dirauten bitartean semaforo bidez arautuko dute zirkulazioa.

# Ostatu hartzeko arazoak izan dira abuztuan Oñatin

## Turismo Bulegoan eta Arrikrutzen pozik daude aurtengo udan izan den bisitari kopuruarekin

O.E. | OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoan eta Arrikrutzen pozik daude udan egin duten lanarekin. "Joan den urtean baino bisitari gehiago izan ditugu. Gainera, gehiagok hartu dute parte antolatu ditugun bisita gidatuetan. Oso pozik gaude", adierazi du Turismo Bulegoko Jaione Elortzak.

### Belgikarrak

Guztira, 4.051 pertsona joan dira Turismo Bulegora uztailean eta abuztuan, eta 100 bisita gidatu egin dituzte. "Unibertsitatea eta parrokia erakutsi diegu. Turismo Bulegoan dagoen errota behin baino gehiagotan jarri dugu martxan turistendako", dio Elortzak.

Bisitarien jatorriari dagokionez, aldaketa egon da aurten. "Valentziarrek bigarren eta hirugarren tokian utzi dituzte madrildarrak eta kataluniarrak eta turista belgikarren igoera nabarmena izan da oso", zehaztu du Jaione Elortzak.

Etorri diren bisitari askok, gainera, Oñatin hartu dute ostatu. Astebeteko edo hamar eguneko egonaldia egin dute askok, eta batek baino gehiagok arazoak izan dituzte tokia aurkitzeko, aurretik erreserba egin ez eta Oñatiko ostatu guztiak beteta zeudelako.

### Jendea kanpoan

Arrikrutzeko kobak ikustera 3.426 lagun joan dira. Abuztuan, gainera, hiru eskaintza berezi izan dituzte Geoaizkorri egitasmoaren barruan, eta oso erantzun ona izan dute. Arantzazu errekako arroilaren eta Gesaltzako kobaren bisitan, adibidez, kanpoan gelditu zen jendea, eta halako irteera gehiago egiteko eskaerak jaso dituzte.




Goizuetako kuadrilla hori eguaztenean joan zen Arrikrutzera. | O.E.

# Auzitegiak Udal Gobernuaren alde egin du San Martingo auzian

## Aderdi jeltzaleak ez du epaia errekurrituko

O.E. | OÑATI

Euskal Autonomia Elkarteko auzitegi nagusiak arrazoia eman dio Udal Gobernuari San Martin auzoko plan partzialaren auzian. Uztailaren bukaeran jakin zuten ebazpena.

Auzia aurreko agintaldikoa da. Udal Gobernuak proposatu zuen San Martinen egin behar ziren etxebizitzen lursail berean "etxebizitza gehiago, txikiagoak eta merkeagoak" egitea; 49 gehiago, 132 guztira. Etxebizitza horiek prezioa mugatua izatea gura zuen EH Bilduk, hau da, babes ofizialekoen prezioa bider 1,7, gehienez. EAJ ados agertu zen plan partzialarekin, baina uste zuen proposamen horrek ez zuela betetzen 1994ko lurzoru araudia ezta egungoa ere. Hala, planteatzen zuen guztira egingo ziren 132 etxebizitzetatik 32 babes ofizialekoak izatea.

Udal Gobernuaren proposamenak legea betetzen ez zuelako epaitegietara jo zuen udaleko alderdi jeltzaleak eta auzi horren epaia jaso dute orain. Udal Gobernuaren aldeko epaia da.

EAJko zinegotzi Lourdes Idoiagak adierazi du epai hori "aurreikusten" zutela, "epailearendako teknikoki oso gai zaila zelako", baina "ardura sozialengatik eta politikoengatik" egin zutela aurrera. Epaia ez dutela errekurrituko gaineratu du, "nahiz eta legez arrazoia" dutela "ziur egon". Eta gaineratu du: "Auzi honetan, baina, ez du EAJk galdu eta EH Bilduk irabazi. Herritarrek galdu dute, familia askok prezio altuagoan ordaindu beharko dituztelako etxebizitzak. Udalaren proposamenarekin, eraikuntza enpresek bakarrik irabazi dute, gehiago kobratu ahal izango dutelako".

# Datorren martitzenetik aurrera ikaslez beteko dira ikastetxeetako gelak

O.E. | OÑATI

Martitzenean, irailak 8, hasiko dute ikasturte berria herriko ikasle gehienek. Txantxiku Ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasleak dira salbuespena; irailaren 10ean hasiko dituzte eskolak haiek.

Haurtzaindegi zerbitzuak hilaren lehen egunarekin batera zabaldu dituzte ikastetxeek eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskolak martitzenean hasiko dituzte herriko hiru ikas zentroetan. Hurrengo eguna, irailak 9, Arantzazuko Amaren eguna da, eta, hala, jai izango dute Txantxiku Ikastolan eta Elkar Hezin. Urgainen, berriz, laneguna dute, eskola eguna.

### Goizez

Ordutegiari dagokionez, irailean goizez izango dira eskolak hiru ikastetxeetako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza mailetan.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek, berriz, Urgainen, irailaren 9an hasiko dituzte eskolak Hauspoa programari jarraituz, eta Elkar Hezin eta Txantxiku Ikastolan, iraileko hirugarren astetik aurrera, hilaren 14tik, goizez eta arratsaldez izango dituzte eskolak.

# Lizargarate egunean trikitia ere bai

**Abuztuaren 23an ospatu zuten Lizargarate eguna, eta, beste behin, trikiti doinuez gain, herri kirolak, jolasak eta bazkaria egon ziren, besteak beste. Herritar askok sartu dute oporretako egutegian Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatzen duen eguna.**



LIZARGARATE TRIKITIZALE ELKARTEA

# Gazte mailako beste talde bat gehiago du Aloña Mendik futbolean

- Lehenengo Erregional Mailan lehiatuko da
- Diego Teixido argentinarra da entrenatzailea

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Lehenengo Erregional Mailako taldea atera du Aloña Mendiko futbol sailak. 23 urtez azpikoak dira taldeko jokalari gehienak, mutilak. "Batetik, jubenilen maila pasa eta goiko taldean tokirik topatu ez baina futbolean jokatu gura duten gaztetxoak sartzen dira talde honetan. Baita arrazoi bategatik edo besteagatik futbola utzita eta futbolean jarraitu gura dutenen gaztetxoak ere", adierazi du Jabi Azpiazuk, Aloña Mendiko futbol saileko presidenteak. Taldea osatuta dute eta entrenatzailea ere badute. Diego Teixido izango da, 13 urtez Oñatin bizi den argentinarra. "Ezagutzen dugu Diego. Semea jokalaria da eta alebin mailako jokalariak entrenatzen ibilitakoa da. Oso pozik gaude", dio Jabi Azpiazuk.

**Gogoz**

Teixido berak ere aitortu du pozik dagoela proiektu honekin. "Elkarteak taldea sortzeko egin zuen lehen deialdian mutil asko apuntatu ziren. Uztailean izan nuen lehen hartu-emana eurekin eta oso inpresio onarekin bueltatu nintzen etxera. Ikusi nuen jokatzeko gogoz eta ilusioz zeudela guztiak, eta horrek balio du. Guk ez dugu ezer jokoan, ez dago lehiarik, futbolean jokatzeko gogoa baizik", dio entrenatzaileak.

Astean hiru entrenamendu dituzte, bi Azkoagainen eta bat, astelehenetan, fisikoa, Larrañan. Lehenengo Erregional Maila zonaldeka dago antolatuta; Gipuzkoa mailan sei zonaldetan sartu dituzte taldeak. Multzo bakoitzean zortzi bat talde daude eta lehen partiduak bere multzo berean daudenen aurka jokatuko ditu Aloña Mendik. Irailaren 20an izango dute ligako lehen norgehiagoka.



Diego Teixido eguaztenean Azkoagainen. | O.E.

## Komunikazio ez bortitza landuko dute irailean Txantxikin

O.E. | OÑATI

*Komunikazio ez bortitza: guraso/hezitzaile eta haurren elkar ulertzea: erlazioak eraikitzeko zigorra, xantaiak eta mehatxuak ekiditzen.* Horixe da, zehazki, Txantxikik antolatu duen ikastaroaren izenburua. Joan den ikasturtean egindakoaren jarraipena da. Nerea Mendizabal psikopedagogoa izango da gidaria eta hauek dira landuko dituzten gaietako batzuk: zer egin umeak borrokan hastean, zein muga jarri eta autoritatea zer den eztabaidatu.

Irailaren 16an, 17an eta 22an izango dira saioak, Eltzian, 17:00etatik 20:00etara. Txantxikiko kideentzat doan izango da eta gainerakoek 25 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko: *txantxiki@gmail.com.*


Nerea Mendizabal. | GOIENA

## Irailaren 26an izango da haurren danborrada

O.E. | OÑATI

Normalean baino beranduago hasi dira aurtengo haurren danborrada antolatzen, horretarako jendea falta zelako. Hala, eta danborrada antolatzeko denbora luzeagoa izateko, irailaren 26an egingo dute aurtengo jaietako haurren danborrada.

Entseguak Eltzian ari dira egiten, martitzenetan eta eguenetan. Kantinerek eta danbor-jotzaileek irailaren 15ean jasoko dituzte arropak. Beste konpainiei ere jakinaraziko zaie zer arroparekin joan behar duten danborradara.

## Ur jardueretan izena emateko epea astelehenean zabalduko dute

Datorren astean gimnasioko ateak, zabalik

O.E. | OÑATI

Astelehenean, hilak 7, zabalduko dute epea kiroldegian igeriketa ikastaroetan eta ur jardueretan izena emateko. Egubakoitzera arte egongo da zabalik, eguaztenean ezik. Behin-behineko zerrendak hilaren 16an kaleratuko dituzte eta hurrengo bi egunetan egongo da aukera erreklamazioak jartzeko. Behin betiko zerrendak hilaren 22an argitaratuko dituzte eta igeriketa eta ur jardueretako ikasturte berria urriaren 7an hasiko dira.

Bestalde, datorren astean, ate irekien jardunaldia egingo dute kiroldegiko fitness gunean, gimnasioan. Zerbitzuak doan probatzeko aukera egongo da.

**Neguko ordutegia**

Ordutegiari buruz, neguko ordutegia dute dagoeneko Zubikoan. Hala, zapatuetan itxita egongo da 13:30etik 15:00etara eta domeka eta jai egunetan 13:30ak arte bakarrik zabalik. Helduen liburutegiak ere ohiko ordutegia du eta haurrena martitzenean zabalduko dute.

## 45 irazankidek hasiko dugu lehen ikasturtea datorren astean

Martitzen eta eguenetan egingo ditugu saioak


Irazan antzerki topalekuaren egoitza, Eltzian. | IRAZAN

KOMUNITATEA GOIENA | IRAZAN ANTZERKI GUNEA | OÑATI

Irazan antzerki guneak 45 kide izango ditu lehen ikasturtean eta oso pozik gaude. Sorpresa atsegina izan da horrenbeste jendek izena eman duela ikustea. Bi talde egin ditugu. Gaztetxoen taldean 11 eta 16 urte arteko neska-mutikoak egongo dira eta 16tik gorakoak, berriz, helduen taldean sartu ditugu. Saioak, talde horien arabera egingo ditugu. Hala, martitzenetan, gaztetxoekin jardungo dugu eta eguenetan, nagusiekin. Hilaren 8an hasiko ditugu eta denak izango dira 20:00etatik 21:30era, Eltzian dugun egoitzan.

Lehen hartu-emana egin dugu irazankideok eta ikasturte honetarako proiektuak finkatu ditugu. Ariketak eta jolasak egiteko prest gaude eta batez ere, antzerkiaz gozatzeko gogoz!

## Udal euskaltegiak epea zabaldu du ikasturte berrian matrikulatzeko

Udal euskaltegiak zabalik du ikasturte berriko matrikula epea. Hauxe da 2015-2016 ikasturtean eskainiko duena: euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak (1, 2, 3, eta 4. hizkuntz eskakizunak); ikastaro bereziak (ostalaritza, aisa...); EGA eta Oñatiko euskara. Horiez gain, ekintza osagarriak prestatu ditu ikasleei eskaintzeko.

Eskaerei egokitutako erritmo eta ordutegiak antolatuko dituzte eta ohiko beken sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuendako doan izango dira euskara ikasteko eskolak. Informazioa eta izena ematea, euskaltegira deituta egin daiteke; hauxe telefonoa: 943 78 24 96.

## Zinta lasterketarekin hasiko dira Atzeko kaleko jaiak, gaur

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte izango dira jaiak Atzeko Kalen. 16:00etan botako dituzte etxafuegoak eta ohiko zinta lasterketa egingo dute horren segidan. 22:30ean, Chalwaband & King Konsul, Revolutionary Brothers eta Sangre de Mono taldeek joko dute. Zapatu gauean, berriz, *mariatxi* doinuak entzungo dira. Aurretik, baina, 19:00etan, garagardo dastatzeko aukera egongo da eta gauerdian, piroteknia saioa eta suzko zezena. Domekan, berriz, 20:00etan, bertso saioa egongo da, besteak beste, bertso eskolakoen eskutik.


Gaztetxoak gustura apar artean.


*Atxabalta mexikarra* aldarrikatuta hasi zituzten jaiak, gazteek, txosnagunean.


Eider Urkia alkate txikia.


Txupinazo osteko konfetia.

# Bete-betean ospatu dituzte andramaixak

Jendetzarik ez, baina inoren hutsunerik ere ez dute igarri herritarrek, eta, egunez egun berotzen joan ostean, kuadrillek gorenera eraman dute jai giroa


Txosnagunean elkarrekin afaldu zuten gazteek, beste behin.

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Mexikar jantzita eta "Ajuiaaa!" oihukatuta hasi zituzten andramaixak txosnagunean abuztuaren 13an. Jai ofizialei, ostera, Eider Urkiak eta Hodei Etxebarriak eman zieten hasiera bertso dotorea botata. Lehengoz udalbatzako hainbat kide elizbiran izan ziren –alkatea eta EAJko zinegotziak–, eta, ohi legez, meza nagusian ere bai, *Alkate soinua*-ri jarraituta.

Jolasak izan zituzten umeek –zezen mekanikoa…– eta gazteek –kale-bloka, kuadrillen artekoak…–; herri bazkarietan lagun asko elkartu zen –presoen aldekoa, paella erraldoia…– eta kirol ekitaldiek ikusmina sortu zuten, beste behin: 77. txirrindulari lasterketa Juan Antonio Lopez Cozar granadarrak irabazi zuen eta pilotan Artola-Ibai Zabala bikotea gailendu zitzaion Berasaluze II.a-Aretxabaleta bikoteari.

Ikuskizunek girotu zituzten kaleak, eta, musikari dagokionez, era askotako doinuz bete ziren bazterrak: La Negrak soula ekarri zuen; Charlot Dixie Jazz Bandek jazza; Vendettak ska doinuak; Def Con Dosek rap metala; eta mariatxiak eta erromeria doinuak ere izan ziren, besteak beste.

"Jaiak lasai joan dira, aparteko arazo barik, istripu txikiren bat bakarrik izan da", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak, pozik: "Herritar guztien gustuko ekitaldiak izan dira, baina hainbat aldaketa egiteko proposamenak jaso ditugu datorren urterako".

**Bideoak eta argazkiak ikusteko:**
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.


Zezenari ondo heldu behar ez jausteko.


Andramari eta San Roke, Durana kalean, herritarrak atzetik datozela.


Udalbatzako kideak eta herritarrak elkarrekin ikurrinari egindako agurrean.


Herriko eraikinetako hormetan gora ibili ziren gazteak.


Charlot umeekin.


Cesar Strawberry (Def Con Dos) kantuan txosnagunean.


Lopez granadarra txapelduna.


King Kongekin filma grabatu nahian Los Filmaticos taldeko kataluniarrak.


Vendetta taldekoak Herriko Plazan.


Kuadrillak aulki jolasean Herriko Plazan.


Gaztetxo kuadrilla paella jaten hasteko gertu.


Herritarra zezentxoarekin jolasean.


RocKalean taldeak betiko kantuekin girotu zituen herriko kaleak. | ARGAZKILARIAK: AITOR AGIRIANO ETA ANDONI GOITI

IOSU
haragetegia • taberna







Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

# Lausittako kaleari noranzkoa aldatuko diote martitzenetik

Bizilagunen aldetik kexak egon dira eta lehengora itzultzea eskatu dute

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Irailaren 8tik aurrera Lausitta kaleari noranzkoa aldatuko diote. Hala, lehengoa izango du berriro, hau da, Otalora kaletik –parrokia albotik– Lausitta aldera. Udalaren asmoa zen abuztuan egitea aldaketa hori, baina lurrean margotutako stop seinalea ezin izan dute kendu orain arte.

"Otalora kalea oinezkoendako jartzeko asmoa zela-eta noranzkoa aldatu zitzaion Lausittara doan bide horri. Oinezkoendako izatea bertan behera gelditzerakoan, lehengo noranzkoa aproposagoa iruditzen zaigu", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu: "Hango bizilagunen partetik kexa ugari jaso ditugu lehengo egoerara itzultzeko eskaerarekin batera". Bide batez, abuztuan egitekoak ziren beste margotze lantxo batzuk ere egingo dituzte datorren astean.



Parrokiaren albotik Lausittara doan kalea. | MIRARI ALTUBE

**Arratoien tratamendua**

Bestetik, arratoiak direla-eta kexa ugari jasotzen dabiltza Udalean. Horregatik, Udalak jakinarazi gura die herritarrei hiru hilabetean behin txokeko tratamenduak egiten dituztela eta, horrez gain, hilabetean behin joaten direla tokian tokiko tratamenduak egitera. Hala, bada, eskatu dute norbaitek inguruan arazoa egon daitekeela igarriz gero Udalean jakinaraz dezala, tratamendua ematera doazenean hara joateko.

# Hesiaren zain daude ibai alboko pasealekua bukatzen hasteko

**M.A.** | ARETXABALETA

Txarapea ibilbidearen azpiko ibai ertzeko pasealekua bukatzear dago. Hesiaren zain daude langileak lanokin aurrera egin dezaten. Behin hori jarrita, asfaltatu egingo dute bidea.

Iturrizar plazan bukaera duen tarteak 185 metro luze eta lau metro zabal ditu, eta oinezkoendako zein bizikletendako egokitzen dabiltza Ortuzal promozioko langileak. Lanok bukatutakoan, argiteria egokia jarriko dute, puntu ilunik egon ez dadin.

Pasealekuaren gainerako lanak ere aurten egin dituzte eta dotore utzi dute Loramendi kaleraino doan ibaiaren bazterra. Guztiz txukuntzeko, baina, argindarraren posteak lurperatzea geratzen da. Hori Iberdrolak egin beharreko lana dela jakinarazi dute udal ordezkariek.



Deba ibai ertzeko pasealekua, Txarapea ibilbidearen azpian. | M.A.



Areantzako musikariak iazko *Arientzarock* ekitaldian. | JULEN ABASOLO

# 'Arientzarock' aurten ere Agorreko Andramaixetan

Martitzenean hasiko dituzte jaiak Areantza auzoan, meza esan eta Martin Kabarrixa eroanda

**M.A.** | ARETXABALETA

Kanpai-joaldiarekin hasiko dituzte martitzen ilunkeran Agorreko Andramaixak Areantzan. 19:00etan meza esan, eta, ondoren, tantaia jaso eta Martin Kabarrixa pertsonaia auzora eroango dute, beste urte batez.

Jaiek aste bukaeran izango dute jarraipena, eta egubakoitzean, irailak 11, auzo afaria egingo dute. "Betaurrekoak ekarri ordurako afalostean kantuan egin dezagun guztiok", gonbidatu dute antolatzaileek. Kantuan bakarrik ez, dantzan ere jardungo dute.

Zapatuan txistulariek alaituko diete goiza auzotarrei eta 12:00etan meza izango dute, Basotxo erretiratuen elkarteko kantu taldeak lagun eginda. "Ostean, auzoko jeneroarekin gertatutako mokadutxoa eskainiko dugu, trikitilariek girotuta", diote. Eta 13:00etan *Arientzarock* emanaldia egingo dute, bigarrenez. Antolatzaileek herritarrak gonbidatu dituzte bertara, ekitaldi polita gertatu dutelako. Eta ezin falta ginkana jolasa; 13:45ean egingo dute eta 30.a izango da aurtengoa.

Domekan, Kurtzebarri mendira joango dira, 09:30ean irtenda Iturriko erromaratik: "Areantzako basoetan gora, Kurtzebarrira igotzera animatzen ditugu herritarrak, hain zainduta dagoen ibilbide txukun eta paregabe horrekin gozatzera", iragarri dute antolatzaileek. 12:00etan aurtengo argazkia aterako dute auzokoek Kurtzebarri tontorrean, eta ondoren ipurdi gainean lanbaderan jaitsiko dira etxe aldera.

# Udal ordezkari batzuk eta hainbat herritar Arantzazura doaz astelehenean, erromes

**M.A.** | ARETXABALETA

Ireileko lehen astelehenean joan ohi dira aretxabaletarrak Arantzazura Ama Birjinaren bederatziurrenaren barruan, eta halaxe egingo dute hainbat lagunek irailaren 7an.

Udalbatzako hainbat kide eta hainbat udal teknikari joango dira, herritarren ordezkari legez. Horietako batzuek oinez joateko asmoa agertu dute; Unai Elkoro alkateak, esaterako. Herritar batzuk ere joango dira oinez, eta gainerakoak autoetan gerturatuko dira.

Behin Arantzazura iritsita, meza entzungo dute 12:00etan gehienek, eta gero, bazkaltzera geratuko dira.

## 'Basalagunak' eta 'La familia Bélier' filmak gaur Herriko Plazan

Uda sasoiko zinemarekin jarraituta, bi film emango dituzte gaur, egubakoitza, plazan. 19:30ean, umeek *Basalagunak* marrazki bizidunak izango dituzte, euskaraz; eta helduek 22:00etan –ez 21:30ean, egitarauan jarritako legez–, *La familia Bélier* drama komikoa (Frantzia, 2014, 105 min.).

## Astelehenean jarriko dituzte abian KZguneko ikastaroak

Markole auzoko KZgunea arratsaldez dago zabalik irailean (16:00-20:00) eta ikastaroak astelehenean hasiko dituzte; besteak beste, sare sozialen eta argazkien gainekoak. Argibide gehiagorako bideak, hauek: 943 02 36 14; *tutor.aretxabaleta@kzgunea.net; eta www.kzgunea.net.*



# Eskoriatzako Ostegun Bidaiariak ekimenaren bigarren edizioa hastear

- Hiru astean, hainbat bidaiaren kontakizunak eskainiko dituzte herriko zenbait txokotan
- Irailaren 10ean, Xabier Gonzalezek Japoniara egindako bidaian bizi izandakoak ekarriko ditu

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Irailaren 10ean hasiko da Eskoriatzako Ostegun Bidaiariak ekimenaren bigarren edizioa. Hiru astean, eguenero, Eskoriatzako zenbait txokotan, kalean, hainbat bidaiaren diaporamak eskainiko dituzte. Iaz ere, hiru hitzaldi eman ziren Kultura Etxean, baina aurtengo berritasuna kontakizunak kalera ateratzea izan da. Hala, hainbat pertsonak urruneko herrialdeetan izandako bizipenak Eskoriatzara ekarri eta herritarrekin partekatzeko asmoz.

Eskoriatzako Udalak antolatutako eta herriko hainbat tabernak lagundutako ekimena da eta herriarentzat askotariko eskaintzak egitea du helburu. Bestalde, hizlariak eskoriatzarrak izaten saiatu da Udala, eta, oporretatik bueltan, herritarrek datorren udako oporretarako ideiak hartzea da ekimenaren asmoa.

Lehenengo bidaiaren kontakizuna Xabier Gonzalezek egingo du irailaren 10ean Herriko Plazan. 21:30ean izango da eta Japoniara egindako bidaiaren kontakizuna eskainiko du. Bidaia aitzakia eta adibide hartuta, norberaren kontu bidaiatzearen kontakizuna izango da. Plangintza zorrotzik ez jarraitzearen abantailak, toki bat edo beste aukeratzearen arrazoiak, motxilan eramaten diren beldurrak, bidean galtzearen balioak, eta abar azalduko ditu.

**Mugikortasun astearekin bat**

Marivi Zurutuzak eta Mikel Bringasek bizikletan egin dituzte euren bidaiak. Bata Mozambiken izan da; eta bestea, berriz, Senegalen eta Gambian, emaztearekin eta seme-alabekin.

Irailaren 17an kontatuko dute bidaian ikusitakoa, eta, aste horretan Mugikortasun Astea izanik, ikuspegi hori landuko dute.

**Sei hilabeteko bidai luzea**

Felix Azkaratek eta Maite Gartziak ez dituzte oporretako bidaia normal batzuen kontakizunak egingo. Haiek sei hilabeteko bidea egin dute, Ushuaiatik Alaskara.

Ametsak egia bihurtuz urte erdian batutako esperientzia kontatuko dute, Ostegun Bidaiarietatik bidaia luzeena erakutsita.

## Hamaika istorio batzen dituzten bidaiak



XABIER GONZALEZ

**JAPONIA; AITZAKIA BAT**

**Non eta noiz:** Irailak 10, eguena, 21:30. Herriko Plazan.

**Bidaiaria:** Xabier Gonzalez.

Japoniara egindako bidaia aitzakia eta adibide hartuta, norberaren kontu bidaiatzearen gaineko kontakizuna egingo du Xabier Gonzalezek. Toki bat edo beste aukeratzeko arrazoiak, beldurrak, plangintza...



MIKEL BRINGAS

**SENEGAL-GAMBIA BIZIKLETAN ETA MOZAMBIKE BIHOTZEAN**

**Non eta noiz:** Irailak 17, eguena, 21:30. Huhezin.

**Bidaiariak:** Marivi Zurutuza eta Mikel Bringas.

Senegalera eta Gambiara joan zen Mikel Bringas, emaztearekin eta 5 eta 8 urteko seme-alabekin, bizikletan bidaia egitera. Arriskuak, ezustekoak... kontatuko ditu. Marivi Zurutuzak Mozambikeko esperientzia azalduko du.




FELIX AZKARATE

**USHUAIATIK ALASKARA; AMETSETIK ERRONKARA**

**Non eta noiz:** Irailak 24, eguena, 21:30. Zaldibar antzokiaren pareko plazan.

**Bidaiariak:** Felix Azkarate eta Maite Gartzia.

Felix Azkaratek eta Maite Gartziak Ameriketako bizkarrezurraren gainean, Ushuaiatik (Argentina) Anchoragera (Alaska) bitarteko hamalau herrialdetan ikusitakoa kontatuko dute.

### Erretiratuei omenaldia egiteko bazkarirako izen-ematea zabalik

Azken urteotan egin izan duten moduan, aurten ere erretiratuei omenaldia egingo diete Eskoriatzan. Hala, irailaren 27rako egitaraua honako hau izango da: 11:00etan salda izango dute, 12:30ean meza, 14:00etan bazkaria egingo dute pilotalekuan eta ondoren dantzaldia eta opari banaketa egingo dituzte.

### Iker Eskibel, Leintz Bailarako Itzulian hamaikagarren

Aretxabaletan abuztuaren 16an jokatutako Leintz Bailarako 77. Itzulian Iker Eskibel Eskoriatzarra hamaikagarren postuan sailkatu zen; bailarako azkarrena izan zen. Debagoienetik, guztira, bost txirrindulari izan ziren. Eskibelez gain, Jokin Etxabe, Unai Mendikute, Beñat Etxabe eta Julen Irizar.



Iazko irabazlea *Fresh!* argazkia izan zen. | EKAITZ OÑATE

## Udako argazkien lehiaketara argazkiak bidaltzeko epea zabalik dago oraindik

I.B | ESKORIATZA

Ibarraundi museoak Udako Argazkien IV. Lehiaketa antolatu du, eta urriaren 1a izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna. Argazkiak *ibarraundi@eskoriatza.eus* helbidera bidali beharko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bi argazki aurkez ditzake lehiaketara, kontaktua, adina eta izenburua jarrita.

Hiru sari egongo dira: 15 urtera artekoentzat, 16-49 urte bitartekoentzat eta 50 urtetik gorakoentzat. Sari bakoitza 50 axtroki izango da.

**30 argazkirekin erakusketa**

Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzordeak aukeratutako 30 argazkirekin erakusketa egingo dute Ibarraundi museoan urriaren 12tik 16ra bitartean.

## Eskoriatza, UDA eta Mondrate taldeek hiruko torneoa jokatuko dute zapatuan

I.B | ESKORIATZA

Euskal Ligan jokatuko duten Eskoriatza, Aretxabaleta eta Mondrate taldeek denboraldiaurreko hiruko txapelketa jokatuko dute zapatuan, 17:00etan, Manuel Munoz kiroldegian.

Hamar minutuko bi zatiko partiduak jokatuko dituzte hiru taldeek, eta, partiduak arratsaldean izan arren, goizean hainbat ekintza egingo dituzte harrobiko taldeek.

**Harrobikoak goiza girotzen**

Motorrak berotzen hasteko, goizean Eskoriatzako harrobiko taldeek erakustaldia egingo dute. 10:00etan, lurralde mailako Eskoriatzako taldeak Ziraunztaren aurka jokatuko du; 11:15ean, Eskoriatzako emakumezkoak izango dira erakustaldia egiten; eta 12:30ean, gazte mailako Eskoriatzako taldeak Aurrera taldearen aurka jokatuko du partidua.



Eskoriatzako areto futbol taldeko jokalaria baloiarekin. | IMANOL SORIANO

# Elkartasuna banatuko du Meiga batek gaur

## Galiziar ukitua hartuko du aurtengo Elkartasun festak

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Anelkarrek antolatutako Elkartasun Festaz gozatzeko aukera izango dute gaur, irailak 4, antzuolarrek. Festa "berezia eta sorpresaz betea" izango dela diote elkartekoek. Izan ere, aurten Meiga baten bisita izango dute herritarrek. Galiziako sorginak konjuru bat irakurriko die gaur Zurrategi plazara 19:30ean gerturatzen direnei. Ondoren, queimada, Galiziako likore ezaguna, prestatuko dute, denek proba dezaten.

Baina hemengo gastronomian ohikoagoak diren tortilla eta txistorra dastatzeko aukera ere izango da gaur iluntzean.

**Kongo eta Senegal**
Elkartasun Festan batzen den dirua Kongon eta Senegalen Anelkar gobernuz kanpoko erakundeak dituen proiektuak bultzatzeko bideratuko da. Bittor Arbulu Kongora joango da azaroan. Kristina Bakaikoa, aldiz, udazkenean, Senegalera.

Iazko festan 760 euro batu zituzten. Bada, azaldu dute polita izango litzatekeela kopuru hori gainditzea.



Iazko Elkartasun festan herritar ugari batu zen. | GOIENA

**BITTOR ARBULU** | ANELKARREKO KIDEA

## "Egindakoa zaintzea da borroka handiena"



MAIDER ARREGI

Bittor Arbulu antzuolarrak 12 urte daramatza Kongoko Pande bailarari herritarren elkartasuna zuzenean helarazten. Azaroan, hango proiektuei bultzada ematera joango da.

**Zein asmo dituzu aurten?**
Eskolaratze proiektuari bultzada eman nahi diogu. Orain dela 12 urte hasi ginen lan horretan eta komeni da urtero bidaiatxo bat egitea eskolen eta ikasle-irakasleen egoera nola dagoen ikusteko.

**Sentsibilizazio kanpainekin jarraitzen duzue?**
Bai. Umeak eskolara joatea zein garrantzitsua den barneratu nahi diegu bertakoei.

**Ur-sarea ere amaituta dago.**
Egun, hiru herritan, ura bertan jasotzeko aukera dute. Euren auzoetan iturriak jarrita dituzte.

**Mantentze-lanek, baina, segitu egin beharko dituzte.**
Euri sasoian euria egiten badu, ez da arazorik izaten. Edozelan ere, gure ardura ura gutxitzen denean etortzen da. Horregatik, mantentze-lanak egiten jarraitzea garrantzitsua da ur-ihesak ez daitezen gertatu eta iturriak egoera onean egon daitezen.

**Auzolanean dabiltza hangoak ere.**
Eurekin egin ditugu instalazio guztiak. Baina horiek zaintzea da borroka handiena. Gaur egun, gobernuz kanpoko erakundeok daukagun arazo handiena horixe dela uste dut. Hau da, bertakoak sentsibilizatu eta auzolan horretan jarrai dezaten esaten diegu. Eurek ura doan dutela azaltzen diegu; guk, aldiz, ordaindu egiten behar dugula. Hala, iturri bat apurtzean, zementu pixka bat erosi eta konpondu egin behar dutela azaltzen diegu.

**"Eskolara joatea garrantzitsua dela barneratu nahi diegu"**

**Azaroan zoaz, euri sasoian.**
Ez naiz inoiz euri sasoian izan, baina euria gogor egiten duela diote. Horrek zaildu egiten du errepidean eta bertako bideetan barrena mugitzea. Gainera, familia osoak euren herrixketatik ortuak dituzten tokietara lanera joaten dira hilabeteetarako eta herriak hutsik geratzen dira. Ikusi egin beharko da zein egoera topatzen dudan han...

**Egubakoitzean herritarrek elkartasunari erantzungo diote?**
Nik uste dut baietz. Antzuolarrek beti eman diete oso erantzun ona horrelako elkartasun festei.

## Eskaintzaz beteta ireki ditu ateak gimnasioak

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Irailetik aurrera Udal Gimnasioak berrikuntzak eskainiko ditu. Tartean, giharren berreziketa eta luzaketak egiteko *K-strech* metodo berritzailea dago. Baita *krossfit* teknika ere. Gainera, abonatua izanez gero, erabiltzaileek nahi duten ekintza guztietan parte hartzeko aukera izango dute –*K-strech* izan ezik, eta, beti ere, beste ekintzetan lekua badago–. Body pumpa, pilatesa, hipopresiboak, spinninga, spinning *lowcost* delakoa, sasoian egoteko gimnasia, hirugarren adinekoendako gimnasia, *zumba*, gazteendako *zumba* eta karatea egongo dira. Prezioen eta ordutegien berri gimnasioan dute.

### OHARRAK

**OINEZKOEN PLANA**
Herritarrendako bilera egingo da Olaranen irailaren 9an, 19:00etan.

**INGELES IKASTAROA**
EPAk ingeleseko ikastaroa antolatu du. Taldeak hamabost lagunekoa izan behar du martxan jartzeko. Izena Bergarako EPAko egoitzan eman behar da.

**LANDATXOPE IRTEERA**
Santoñara irteera egingo dute erretiratuek irailaren 16an. Izena irailaren 7an eta 8an eman behar da, 16:00etan.

### NIRE USTEZ

**PILAR ETXANIZ**



## Bizi, besterik ez

Milaka euskaldun irten dira oporretan; antzuolarrak ere munduan zehar ibili gara arazo barik eta etxera itzuli gara maleta bete esperientzia eta bizipenez. Beste milaka familia, ordea, desesperatuta geratu dira muga ezberdinetan Europara sartu ezinik. Gatazka belikoetatik ihesi datoz Bigarren Mundu Gerra geroztik desplazatuen drama handiena bihurtu den honetan. Baina ez diete eman guri atzerrian eman diguten tratu bera. Hesiak jarri dizkiete, poliziek kolpez edo gas negar-eragilez eman diete harrera. Europako Batasunak ez du estrategia gizatiarrik, ezta ere eraginkorrik egoera honi aurre egiteko geroz eta baliabide errepresibo ugariagoak erabili arren, bizi besterik nahi ez dutenen kontra.

Bitartean, eta hipokrisia muturreraino eramanda, mundu mailako arma salmentak %24 egin du gora azken 5 urteetan; esportatzaileen artean Europako estatuak daude.

Gerra negozio den heinean, ez da giza odolustutze dramatiko hau amaituko.

Memoria eta enpatia behar dugu europarrok. Ezin dugu ahaztu iraganean Europan gatazka belikoak egon zirenean europarrek babesa jaso zutela munduan zehar; eta pertsona orok duela bizitzeko eskubidea, are gehiago batzuen interesengatik galtzeko arrisku larrian daudenean.

**"Mundu mailako arma salmenta %24 igo da"**



UBANE MADERA

## Uzarraga hesiz itxita segurtasuna bermatzeko

Uzarragako eliza hesi metalikoz itxita dago abuztua ezkero. Eraikina oso egoera txarrean dago, eta, Gotzaindegiarekin zer egin erabaki arte, itxita egongo da. "Segurtasuna bermatu gura dugulako itxi dugu. Erortzear dago eta ez dugu nahi istripurik gertatzea", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak. Orain, auzotarrekin batzeko asmoa dutela eta zein urrats egin adostu beharko dutela –Gotzaindegiarekin batera– azaldu du alkateak.



2013ko Marixeka Egunean, kuadrilla mahaiaren bueltan. | GOIENA

# Egun-pasa ederra egingo dute domekan Marixekan

12:00etan meza izango dute izen bereko baselizan; ondoren, musika eta bazkaria

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Marixekako Amaren omenez Aramaio eta inguruetako hainbat lagun elkartuko dira etzi, domeka, Uribarri auzoan. Marixeka Eguna ospatuko dute, izen bereko baselizaren inguruan.

Tradizio eta ospe handia duen jaia izaten da; hala, Aramaioko, Oletako, Maringo, Otxandioko, Gasteizko eta Legutioko jendea elkartu ohi da ospakizunean.

**Salda eta txorizoa**

Gure Aterpea elkarteko lagunek antolatzen dute ospakizuna. Salda, txorixo eta edariekin hasiko dute eguna. 11:00etan izango da hori. 12:00etan meza santua esango dute ermitan bertan. Mezaren ondoren trikitilariek girotuko dute jaia bazkalordura arte.

**Gorritiren animaliak**

14:30ean bazkaria izango dute elkartean. Arratsalde partean, etxeko gaztetxoen gusturako Gorriti eta haren animaliez, gozatzeko aukera egongo da. 17:00etan hasiko da ikuskizuna. Horrez gain, arratsaldean zehar trikiti doinuek hartuko dute Marixeka ingurua.

**Gerra aurretiko ohiturak**

Marixeka baseliza inguruetako zaharrenetakoa da, baina gerra garaian suntsitu egin zuten, eta, ondorioz, erromeria eguna galdu egin zen.

Gerra ondoren, Gure Aterpea elkarteko lagunek eliza berritu eta erromeria berriz ere antolatzen hasi ziren, aspaldiko ohitura hori berreskuratzeko asmoz. Aurten 35. erromeria antolatuko dute.

# Solidaritatez betetako uda izan da haurrendako

Udalak horrelako ekimenak laguntzen jarraitzeko asmoa azaldu du

A.E. | ARAMAIO

Azken urteotan bezala, aurten ere kanpotik etorritako hainbat haurrek Aramaion pasa dute uda. *Oporrak bakean* Saharako programaren bitartez Enhubuha gaztetxoa etorri da Aramaiora, eta Ukrainatik, aldiz, Naia, Marina eta Illya neska-mutikoak. Aramaioko udal ordezkariak pozik azaldu dira, "solidaritatearen aldeko jarrera" agertu dutelako aurten ere Aramaioko familiek. "Solidaritatez betetako uda izan dute herriko hainbat etxetan, eta Saharako ume batek eta Ukrainako hiru umek uztaila eta abuztua igaro dute herrian", azaldu dute ohar bitartez. Hiru familia animatu dira haurrak etxean hartzera; Udalaren balorazioa "ezin hobea" izan da.

**Ekimenak lagunduko ditu**

"Orain arte, Aramaioko Udalak bat egin izan du *Oporrak bakean* Saharako programarekin, eta, aurrerantzean, Ukrainatik datozen umeak hartzeko programa ere kontuan hartuko da, familia hauei behar duten laguntza eskainiz", azaldu dute. Modu berean, aurrerantzean ekimen hauek laguntzen jarraitzeko asmoa ere azaldu du Udalak eta herriko beste familia batzuk animatu nahi ditu udan umeak etxean hartzera. Solidaritatez betetako oporrak izan dezaten.



Ukrainatik etorritako haurrak Bilboko aireportuan. | CRISTINA ETXENAUSIA



Saharako Enhubuha neskatila Aramaioko familiarekin. | CRISTINA ETXENAUSIA

# Galdara berriarekin energia aurreztuko dute

Eskolako berogailu sistema berritu egin dute uztailean eta abuztuan egindako lanekin

A.E. | ARAMAIO

Hainbat lan egin dituzte eskolako galdaran uztailean eta abuztuan. Lanok amaituta, berogailu sistema berrituarekin ekingo diote ikasturteari haur eskolan –gaur, irailak 4– eta eskolan –irailaren 8an.

Clima Vitoriak egin ditu lanok, 35.500 euroko aurrekontuarekin.

**Guneak bereizi dituzte**

Oier Ezquerra Udaleko arkitekto teknikoak azaldu du bi arazo nagusi zituztela galdararekin: "Batetik, zirkuitu bakarra zuen lehengo galdarak, eta, ondorioz, kontrol bakarra. Modu horretan, gune batzuk asko berotzen ziren eta beste batzuk ez hainbeste". Orain, hainbat gune bereizi dituzte: gune bakoitzak modu independentean funtzionatuko du aurrerantzean. Hala, aurrerantzean haur eskolako berogailua piztuta izan dezakete eskolarik ez dagoen egunetan ere. "Orain arte eraikin guztiko berogailuak piztuta egon behar izaten zuen haur eskolan berogailua piztuta izan zezaten, nahiz eta eskola-eguna ez izan".

Bestetik, kontrol sistema hobetu egin dute: "Lehen, galdara gelditzen baldin bazen, arazoa ez zen konpontzen norbait horretaz konturatu arte", dio Ezquerrak. Aurrerantzean, arazoren bat dagoenean sistemak berak mezua bidaliko du telefono zenbaki jakin batera arazoaren berri emanda.

Aipatutako hobekuntzekin energia aurreztuko dute eskolan; eta, modu horretan, baita dirua ere.

## Andra Mari Kofradiaren gainekoak, liburu batean jasota

Ibabeko Andra Mari Kofradiak elkartearen bostehun urteak jasotzen dituen liburua aurkeztuko du martitzenean. Aurkezpena Arrasateko Ferrerias kaleko 40. zenbakian izango da, 11:00etan. Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du, eta Jesus Mari Elejaldek eta Cristina Etxenausiak hitzaurre bana idatzi dute.

## Urriaren 31ra arte ordain daiteke kontribuzioa

Hiri eta landa-lur ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko aldia urriaren 31ra artekoa da. Udalak Kutxabanken eta Laboral Kutxan dituen kontuetan egin beharko dute sarrera ordainagiria helbideratuta ez duten herritarrek. Helbideratuta dauden ordainagiriak, aldiz, urriaren 1ean kobratuko dituzte.

# Zuiako Kuadrillak argazki lehiaketa jarri du martxan

Lanak aurkezteko epea urriaren 14ra artekoa izango da: irabazleak 200 euro irabaziko ditu

A.E. | ARAMAIO

Kuadrillarekin zerikusia duten argazkiak eta Kuadrilla osatzen duten udalerrietan ateratako argazkiak bakarrik onartuko dituzte.

**Lanak aurkezteko modua**

Kartazal batean *Zuiako Kuadrillako XIII. Argazki-lehiaketa – A kartazala* idatzi beharko da. Kartazal horren barruan honako hau sartu beharko da: argazkia, CD batean grabatuta, JPG formatu digitalean. Argazkiaren izenburuak CDan idatzita joan beharko du –ez dira paper formatuan dauden lanak onartuko–; eta orri bat, ondorengo datuekin: lanaren izenburua, argazkia atera den tokia, lanaren kokaleku den udalerria. Gainera, aparteko beste kartazal bat aurkeztu beharko da, itxita. Kanpoaldean *Zuiako Kuadrillako XIII. Argazki-lehiaketa – B kartazala* eta argazkiaren izenburua izan beharko ditu idatzita. Barruan orri bat joango da, honako hauekin: lanaren izenburua eta lehiakidearen datuak: izen-abizenak, nortasun agiri zenbakia, helbidea eta telefonoa eta posta elektronikoa.

Lanak aurkezteko azkeneko eguna urriaren 14a izango da, asteazkena. Lanak astelehenetik egubakoitzera aurkeztu beharko dira, 08:30etik 14:30era, Zuiako Kuadrilla, Udaletxeko Plaza 1, 2 ezkerra –Murgia– helbidean.

**Lanak aurkezteko modua**

Sariak izango dira: lehenengo saria 200 euro; bigarren saria 150 euro; eta hirugarren saria 100 euro. Sari horiez gain, argazki bat aukeratuko da udalerri bakoitzeko eta 60 euro emango zaizkio horietako bakoitzari.

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUBAKOITZA

### 04

**18:00** JAIEN HASIERA.

▶ Etxafuegoak eta bonba japoniarrak

▶ Kanpai errepika eta txalaparta

**19:30** BURUHANDIAK.

**22:00** ROCK JAIALDIA plazan.

## ZAPATUA

### 05

**12:00** Trikitilariekin KALEJIRA.

**12:30** *Nai* MALABARISTA.

**13:00** Batukotekin BATUKADA.

**16:00** MUS eta BRISKA txapelketak, elkartean.

**17:00** PUZGARRIAK.

**18:00** BOLO TXAPELKETA.

**20:00** MEXI-POTEOA, Los Soraluzeñosek girotuta.

**21:30** HERRI AFARIA

**23:00** Kodigo Norte eta Fan&Go taldeekin JAIALDIA.

## AGURRA

**ENEKA ZANKADA**
Leintz Gatzagako alkatea



### Ondo pasau andramaixak!

Heldu da! Irak gorritze bideari ekinaz batera, Leintz ibarrak goiena duen herriko jaien garaia!

Joandakoak gogoan, ez daudenak laster izango ditugulakoan, eta etorriko direnei zor, milesker denagatik, gatzitzen aurrera jotzeko asmoa bizi-bizi.

Herritarrok elkarlanean, gidaritza emakume jantzirik, erabakitzeko eskubide eta guzti, eta geure hizkuntza nagusi. Aurrera beti!

Gure mezua laburra izan arren, luze joko genuke eskerrak ematen: aurreko udalbatzari jorratutako bideagatik, herritarrei auzolanerako deiek izaten duten erantzunagatik, egitaraua prestatzen parte hartu dutenei, andramaixetan jo eta ke arituko direnei, gure herrira hurbilduko diren guztiei... eskerrik asko!

## DOMEKA

### 06

**09:30** Mendi bizikleta zeharkaldia.

**13:00** HERRI KIROLAK, plazan.

**17:00** PILOTA TXAPELKETAko finalak: senior eta promes mailak.

**17:30** APAR FESTA.

**18:00** ELEKTROTXARANGA, herrian zehar.

**19:00** TRIALSIN erakustaldia Aitor Muruarekin.

**20:00** Txamukosen RANTXERAK

## ASTELEHENA

### 07

**19:00** BEDERATZIURRENA Dorletako Santutegian, Eskoriatzako abesbatzarekin

▶ Ondoren, MOKADUTXOA

## MARTITZENA

### 08

**11:30** Otxandioko lagunei ONGIETORRIA.

**12:00** MEZA Dorletako santutegian, Eskoriatzako abesbatzarekin.

**17:00** Otxandiokoekin JOLASAK.



UNAI SAENZ

**NAI MALABARISTA** | ZAPATUA | HERRIKO PLAZA | 12:30
Unai Saenz *Nai* malabarista gasteiztarrak eskujokoak, dantza eta antzerkia uztartuko ditu plazan eskainiko duen ikuskizunean



GOIENA

**HERRI KIROLAK** | DOMEKA | HERRIKO PLAZA | 13:00
Urtero legez, herri kirol erakustaldia izango da plazan. Punta-puntako harri-jasotzaileak eta azkoilariak etorriko dira haien dohaiak erakustera.




Kodigo Norte gasteiztarrak. | KODIGO NORTE

# Rock musikak, Kodigo Norteren rapak eta mexikar doinuek hartuko dute herria jaietan

Askotariko estiloak batuko dituzte aurtengo andramaixetako kontzertuek

M. TXINTXURRETA | LEINTZ-GATZAGA

Urtero bezala, herriko gazteek punk eta rock musika estiloetako taldeak ekarriko dituzte herrira gaur, jaietako lehen egunean.

Jaietako motorrak berotzen hasteko, arratsaldeko seietan hasita Deskarga taldeak kontzertua eskainiko du, gaueko jaialdiaren aurrerapen gisa.

Lau talde izango dira gaueko hamaiketatik aurrera eszenatoki gainera igoko direnak: Fourscore gasteiztarrek eta Worth it bizkaitarrek hardcore doinuak jorratuko dituzte. Aretxabaletako Criminal Remainsek eta Crap taldeek, berriz punk-rock estiloko musika egiten dute.

**Zapatuko kontzertuak**

Zapatuan, aldiz, herri afariaren ostean Kodigo Norte gasteiztarren txanda iritsiko da, 23:00an.

Rap eta reggae estiloak uztartzen ditu 2004an Arabako hiriburuan sortutako talde horren musikak. DJ Lororen laguntzaz gizarteari zuzendutako kritikaz jositako abestiak egiten dituzte gasteiztarrek.

Lehen kontzertuaren ostean, dantzarako tartea izango dute gatzagarrek. Fan&Go talde zarauztarraren erromeriak gaueko ordu txikiak arte girotuko du gaua euskal abesti ezagunekin.

**Musika mexikarra**

Aurten, mexikar doinuek protagonismo berezia izango dute Leintz Gatzagako andramaixetan.

Hasteko, zapatu iluntzean, *mexi-poteoa* egingo dute Los Soraluzeños taldekoen musikaz lagunduta. Ondoren, herri afaria izango da, 21:30etik aurrera.

Hurrengo egunean, berriz, Txamukos mariatxien rantxerek alaituko dute egunaren amaiera iluntzeko zortzietan hasita.

# Kirola ere protagonista izango da andramaixetan

Aitor Murua aretxabaletarraren eskutik trialsin erakustaldia izango da ikusgai domekan

M. T. | LEINTZ-GATZAGA

Musikaz, jolasez eta jan-edanaz gain, kirolak ere tarte garrantzitsua izaten du urtero Leintz Gatzagako jaietan, eta aurten ere hala izango da.

Apuntatu beharreko hitzorduetako bat domeka goizekoa da. 09:30ean plazatik aterata, mendiko bizikleta zeharkaldia antolatu dute, beste behin ere.

Mendi bizikleta martxa jada andramaixetako tradizio bihurtu dela esan daiteke. Beti bezala, bi ibilbide izango dira, bata nagusientzat eta bestea, laburragoa, gaztetxoentzat.

**Trialsin erakustaldia**

Egun berean eta bizikletarekin jarraituaz, arratsaldean, 19:00etan hasita, trialsin erakustaldia izango da plazan, Espainiako txapeldun izandako Aitor Murua gazte aretxabaletarraren eskutik. Bizikleta gainean geldi-geldian jauziak egin eta oztopoak gainditzean datza kirol ikusgarri hori.

**Pilota txapelketa**

Domekako kirol hitzorduekin jarraituaz, 18:00etatik aurrera pilota txapelketako senior eta promes mailetako finalak jokatuko dituzte pilotalekuan.

Seniorretan, Zubiria berrobiarrak eta Arratibel ataundarrak osatutako bikotea Soraluzeko Atxutegiren eta Arrasateko Bolinagaren aurka arituko da. Promes mailan, Peña (Beasain)-Salegi (Zestoa) eta Garate (Arrasate)-Martinez (Bera)-en artean jokatuko dute txapela.

Irailaren 27an jokatuko dituzte gainontzeko finalak. Mauri Zubillaga antolatzaileak dio "munduko txapelketarik luzeena" dela Leintz Gatzagakoa.


Aitor Murua, Bergaran eginiko erakustaldi batean. | IMANOL SORIANO


Iazko topaketako talde-argazkia. | IMANOL GALLEGO

# Otxandioko lagunekin batera egun-pasa martitzenean

Urtero legez, herri bietako bizilagunek elkarrekin ospatuko dute Dorletako Amaren eguna Gatzagan

M. T. | LEINTZ-GATZAGA

Ohiturari jarraituaz, oinez zein autobusez otxandiar asko etorriko dira aurten ere Leintz Gatzagara irailaren 8an, martitzena, Dorletako Amaren egunean.

Hori dela eta, herrikoek ongietorria prestatu diete, beste behin ere. 11:30 aldean izango da bizkaitarren etorrera, eta eguerdian meza izango dute Dorletako Amaren Santutegian.

**Arratsaldez jolasak**

Elkarrekin bazkaldu ostean, berriz, Gatzagako eta Otxandioko lagunek plan bikaina prestatu dute arratsalderako.

Pilotan zein bolotan arituko dira guztiak elkarrekin, eta, haur asko joaten denez, haiendako jolasak ere ez dira faltako.



ELGETA

# Berrikuntza nabarmenekin dator Udalaren kirol eskaintza

Kirol dinamizatzaile bat kontratatu eta jardueren eskaintza handituko dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Urrian hasiko dira Udalak eskainitako kirol jardueretako saioak. Udal Gobernu berriak aldaketa nabarmenak aurreikusten ditu: jarduera gehiago eskainiko dituzte, kirol dinamizatzaile bat kontratatuko dute eta erabiltzaileei hainbat ordainketa formula eskainiko zaizkie; tartean, urte osorako bonua. "Orain arte eman den kirol zerbitzua hobetzea eta kirol zerbitzu zabalagoa eskaintzea pentsatu dugu", adierazi du Iraitz Lazkano alkateak.

Lazkanok aditzera eman duenez, mantendu egingo dituzte aurreko ikasturteko jarduera guztiak eta gehituko dituzte pilatesa, tonifikazioa, 1. eta 2. mailetako neska-mutikoendako eskola kirola eta karatea.

Bestetik, Udalaren soldatapeko dinamizatzaile batek gidatuko ditu saiook, karatea salbu. Ekintza hori beste herritar batek eskainiko du. "Gezurra ematen du, baina zerbitzua ordu kopurutan bikoiztuta askoz ere merkeago ateratzen da. Orain arte 2.000 euro ordaintzen ziren astean bi eguneko jardunagatik. Gure gain hartzen dugu antolaketa, baina bitartekaria kentzen dugu eta bermatzen dugu ordaintzen den diru hori langile batendako dela".

**Bono bereziak**

Orain arte moduan, ekintza bakoitzak bere prezioa izango du, baina Udalak bonu berezi bat ere aterako du. Urtean 300 euro ordainduta erabiltzaileek nahi beste jardueratan parte hartzeko aukera izango dute, eta sarrera librea gimnasiora, squash kantxara eta saunara.

**Ludoteka eta zaintza**

Udalak jakinarazi du hilaren 14an zabalduko dituela ludoteka eta zaintza zerbitzuak. Interesatuek udaletxean jasoko dituzte argibide gehiago eta izen-emate orriak.



EMILIO MANDALUNIZ

## Txirrindulari ohien bazkaria

Abuztuko azken zapatuan elkartu dira txirrindulari profesional izandako hainbat lagun Elgetan. 50 pertsona izan dira mahaiaren bueltan; besteak beste, Abraham Olano, Julian Gorospe, Migel Mari Lasa, Antonio Ferraz, Andres Gandarias eta Urbezubia anaiak.

## Elgetako Herri Eskolak 119 neska-mutiko hartuko ditu martitzenean hasiko den ikasturtean

L.Z. | ELGETA

Martitzenean, hilak 8, emango diote hasiera 2015-2016 ikasturteari Elgetako Herri Eskolan. 09:00etan joko du txirrinak, eta 104 neska-mutiko espero dituzte eskolan.

Lehenengo astean goizeko jardunaldia izango dute, eta hilaren 11ra bitartean honako hau izango da irteera ordutegia: Haur Hezkuntzako umeendako 12:30ean, Lehen Hezkuntzako umeendako 13:00etan eta jangelako erabiltzaileendako 14:00etan. Lehenengo egunetik eskainiko dute jangela zerbitzua.

Aurten, bestalde, hamabost neska-mutiko sartuko dira 2 urteko gelan. Horiek, eguaztenean, hilak 9, hasiko dute ikasturtea. Egokitzapena egingo dute.

**Bederatzi unitate**

Ikasturte honetan bederatzi unitate izango ditu eskolak: Haur Hezkuntzan lau talde eta Lehen Hezkuntzan bost talde, 3. eta 4. mailetako neska-mutikoak batera egongo dira-eta.

Irakasleei dagokienez, hamahiru lagunek osatuko dute klaustroa, eta, Nora Olabideren faltan, Arantxa Espartzak egingo ditu zuzendari lanak.

**Haurreskola ere martxan**

Gaur, hilak 4, eman diote hasiera ikasturteari Elgetako haurreskolako erabiltzaileek; 0-2 urte bitarteko sei umek, hain zuzen ere. Hezitzaileak, berriz, bi dira. Urrian zabalduko dute hurrengo izen-emate epea Elgetako haurreskola zerbitzuan.

### Kalteak eragin ditu aste hasierako ekaitz bortitzak

Domekatik astelehenerako gauean haizeak hondakinendako bi edukiontzi irauli zituen Galgorri gainean. Eibarrerako bide bazterrean dauden zuhaitzetako zenbait adar ere apurtu zituen, eta Domingo Iturbe kale bukaeran dagoen etxe baten kontra jo zuten adarrok.

### Liztor beltzak iaz baino habia gehiago aurten

Mankomunitateak udazkenean emango ditu datu zehatzak, baina Elgetan lau habia neutralizatu dituzte dagoeneko: bana Domingo Iturbe kalean, Torrealdean eta Bastarrika zein Olaegi baserri inguruetan. Garatu gabeko habiak ziren. Urrian agertu ohi dira habia gehienak.

## OHARRAK

**BISITA GIDATUA**

Domekan, hilak 6, Intxortako frontera bisita gidatua egiteko aukera izango da. Izen-emateak: *turismo@debagoiena*.net, 943 71 89 11 edo 943 79 64 63.

**BASERRITARREN AZOKA**

Irailaren 19rako iragarri du Udalak herriko feria. Postua ipini nahi duten nekazariek hilaren 7ra arte dute udaletxean izena emateko.

LEINTZ GATZAGA

# XIII. mendiko bizikleta martxa izango da domekan

IMANOL BELOKI | LEINTZ GATZAGA

Domeka honetan Dorletako Ama txirrindulari elkarteak antolatutako XIII. mendiko bizikleta martxa egingo dute Leintz Gatzagan.

Lasterketan parte hartu nahi duenak 08:00etatik 09:00etara bitartean eman beharko du izena. Nagusiek 18 euro ordaindu beharko dituzte; federatuek, berriz, 12 euro; eta umeek, 2 euro.

Gatzagako plazan emango zaio hasiera probari eta irteten lehenak nagusiak izango dira, 09:30ean. Bi zati izango ditu ibilbideak: lehenengo, Gure Ametsa, Hiruerreketa, Deba Ibaiaren sorrera aldera… joango dira; ondoren, herrira jaitsi, pixka bat deskantsatu eta beste aldera egingo dute txirrindulariek. Guztira, 42 kilometroko bidea izango da eta 12:30 aldera iritsiko dira, gutxi gorabehera, lehenengoak helmugara. Gaztetxoek, berriz, Gatzagako plazatik Dorletako santutegira joan-etorria egingo dute 10:00 inguruan irtenda.

**Opariak zozketan**

Izena ematen duten aurreneko 200 pertsonei aurtengo lasterketako kamiseta opariituko diete, eta, gainera, oparien zozketa eta luntxa ere egongo da ibilbidea egin ondoren.



Iaz egin zen lasterketan gaztetxo taldea mendiko bizikletekin. | GOIENA





Soran Etxea
Hotela Jatetxea
ondo ibili jaixetan!
10 logela zabal eta erosoak
•
Menu bereziak
•
100 lagunendako hiru jangela

Santiago kalea 3 • 20530 LEINTZ GATZAGA • Tel.: 943 71 53 98 • info@soranetxea.com • www.soranetxea.com

IRAILAREN 4AN ETA 5EAN

# EZ GALDU

la vuelta

# GORBEIAN

Familia osoarentzako jarduera dibertigarriak 2.000 m² baino azalera handiagoan.
Promozio paregabeak izango dituzten 30 stand baino gehiago.
Zuzeneko opariak.
Haurrentzako jolasak.
Produktuen dastaketak.

# DOAN

## OSTIRALA 4, DASTAKETA: PATATAK TXORIZOAREKIN*

## LARUNBATA 5, DASTAKETA: PAELLA*



Argazkia: ez-komertzialak.

*13:30etik aurrera, izakinak amaitu arte.

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Carrefour
PATROCINADOR PRINCIPAL
la vuelta
#carrefourconlavuelta

IMAGEN21

**Markel Uriarte** | Orbea Enduro Crew taldeko riderra

# Orduko errekorra ondu gura du Uriartek, gurpil baten gainean

## Manuel Scheidegger-ek du egun errekorra; izan ere, suitzarrak 25,7 kilometro bete zituen ordubetean


Markel Uriarte, Orbea etxearendako egindako argazki saioan, uztailean, Yesa urtegiko ing

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Markel Uriarte aretxabaletarrak bi asteko oporraldia aprobetxatuko du mendiko bizikletaren gainean dituen erronkei aurre egiteko. Irailaren 20an Arrasateko Enduro Txapelketan izango da –lehenengoz egingo dute lasterketa hori–, eta ondoren Ainsan (Enduro World Series) eta Galizian (Espainiako Txapelketa) lasterketetan hartuko du esku. Urte amaierarako, baina, badu *caballitoa* egiten jarraitzeko motibazio iturri bat: orduko errekorra ondu gura du.

**Zelan doa urtea?**

Ondo, ezin gara kexatu. Lasterketa askotan parte hartzen nabil, Espainiako Openetakoak, maila xumeagokoak eta baita Munduko Kopakoak ere. Uztailean, esaterako, Alpeetan izan nintzen, Samoens-en, eta aspaldian egin dudan lasterketa politena izan zen. 1.500 metroko desnibela zuen jaitsieran denetariko parajeak zeharkatu genituen, ederra benetan.

**Laster duzu hitzordu handi bat, Ainsan –Pirinioak– egingo dute–eta lehenengoz Enduro World Series mailako lasterketa bat.**

Bai, eta oso maila oneko jendea batuko da bertan, munduko bazter guztietatik etorritako jendea. Orain arte AEBetan, Kanadan, Australian... antolatu dituzte zirkuitu horretako lasterketak, eta oraingo hau etxetik gertu izatea gauza handia da. Ainsan paraje ikusgarriak daude, baina egia da ez dela niretako lurrazal aproposena, oso sikua delako, eta harri askokoa. Ni, ostera, lokatz artean moldatzen naiz ondoen. Baina gorputzaldi onean nagoela uste dut, eta lan ona egitera joango gara.

**Eta ondoren, urri hasieran [urriak 4 eta 5] Galizian duzu Espainiako Txapelketa.**

Europa mailako beste lasterketa batera joatea zen hasierako asmoa, baina, azkenean, Galiziara joango naiz, Espainiako Txapelketa egin gura dut. Europa mailako lasterketak esperientzia moduan apartak dira, bazter askotako oso jende onarekin batzen zara bertan, baina Galizian aurrealdean ibiltzeko aukera handiagoa dut. [Barre].

**Bi hitzordu handi horien aurretik, baina, Arrasateko lasterketa dago, lehenengoz Debagoienean egingo dena.**

Bai, irailaren 20an. Enduroa geroago eta indar handiagoa hartzen dabilen bizikleta modalitatea da, baina gurean ez dago halako lasterketarik. Pirinioetan, Asturiasen, Galizia aldean... sarriago ikusten ditugu halako probak, baina hemen ez. Hala, Arrasateko hainbat lagunen ekimenez lasterketa bat izango dugu.

**Zelakoa izango da?**

Dakidanez, Anporreta inguruan izango dira tramuetako bi, eta beste bi sekretupean gordeko dituzte, lasterketa egunera arte. Horrek abantaila kenduko digu bertakoei, ez dugulako izango aurrez entrenatzeko astirik, baina hor ikusten da benetan zein den jaisten azkarra. Esaterako, Asturiasera lehiatzera joaten garenean, bertakoek goitik behera ezagutzen dituzte jaitsiera guztiak, eta abantaila handia da hori.

**Endurolasterketetarako prestatzeaz batera, dagoeneko hasi zara gurpil bakarraren gainean entrenatzen. Nondik sortu zaizu orduko errekorra ontzeko gogoa?**

Duela hilabete gutxi [ekainaren 11n] lortu zuen suitzar batek errekorra ezartzea [Manuel Scheideggerek 25,72 kilometro egin zituen], eta hura ikusita animatu nintzen neu ere proba egitera. Iaz Tourmalet igo nuen gurpil bakarrean, eta ondoren jaitsi, eta beste erronka polit bat da hau. Oraindik ez dut eguna erabaki, gauza askotan nabil buru-belarri, eta horretarako ere denbora behar dut. Baina negu inguruan egin nahiko nuke.

**Ondo entrenatu behar, batetik, eta leku aproposa aukeratu behar, bestetik.**

Bai, atletismo pista batean egin beharko nuke, edo belodromo batean. Oraindik ideia bat baino ez da, buruan darabilkidan zerbait. Ea negu inguruan egin dezakedan.

**Eta entrenamendua Tourmalet igo zenueneko berbera izango litzateke? Izan ere, ez dira gauza bera.**

Ez, ez da gauza bera. Dagoeneko hasi naiz Urkulun bueltak ematen [Barre], baina Tourmaleten banekien bi orduko esfortzu proba bat zela, 150 pultsaziotara, eta hau ordubetekoa izango dela, baina 170 pultsaziotara. Hemen oso garrantzitsua izango da lasai egotea, tentsio eta urduritasunei eustea, edozein momentutan egindako akats txiki batek pikutara bidaliko luke-eta dena.

**Dituzun askotariko erronkekin jarraituko dugu; mendi tontorretatik bizikleta gainean jaistea. Udalatx jaitsi zenuen lehenengo, eta Aizkorri gero [Bideoak Youtuben], baina Anbotok zailtasun handiagoa du.**

Bai, hori ere buruan daukat. Teknikoki Anboto koska bat gorago dago, eta garrantzitsua da mendia siku egotea, haitzak ez egotea labainkor. Ea udazkenean erronka hori ere egin dezakedan. Aizkorrin inoiz egoteke nengoen, bizikletan joan nintzen arte [Barre], eta goranzkoan zati gehiena bizkar gainean eraman nuen bizikleta. Mendia ezagutzen ez nuenez, goranzkoan adi joan nintzen, zelako bidea zen ikusten. Eta bai, zatiren bat nahiko txarra du, Udalatxen moduan. Baina asko gozatu nuen jaisten. Udalatxek malda handiagoa du, baina jaisteko zailagoa da Aizkorri.

**"Arrasateko probako bi tramu sekretuan gordeko dituzte; ondo dago hori"**

**"Orduko errekorra egiteko atletismo pista behar da, edo belodromoa"**

**"Ainsan harri asko dago, eta sikua da; ez da niretako lurrazal aproposa"**

**"Aizkorri Udalatx baino apur bat zailagoa da bizikletan jaisteko"**

### Irailaren 20an Arrasateko lehenengo Enduro Txapelketa

Enduro-zale amorratu bik, Asier Rosado eta Koldo Arana mondragoetarrek, antolatuta egingo dute irailaren 20an lehenengoz enduro lasterketa Debagoienean: "Inguruan sekulako parajeak ditugu, eta, lasterketetan batera eta bestera ibili ostean, gurean hutsune hori ikusten genuen, hemen ez dago halakorik".

Hala, kanpotik jende asko etorriko dela baieztatu du Rosadok: "Zailtasun handiak izaten ari gara proba antolatzeko, gogoa izanda ere, laguntza gutxi izaten da halakoetarako, eta administrazioetatik ere erraztasun gutxi. Baina animatuta gaude aurtengora begira".

Lasterketa domekan egingo dute, hilak 20 (09:00), baina zapatuan riderrak zirkuituan ibili ahal izango dira: "Guztira, lau tramu izango dira, eta horietako bi Anporretako inguruan egingo ditugu –Arrasateko Eroskiren atzealdean dagoen mendi magalean–, baina beste bi tramu sekretuan gordeko ditugu, inork aurrez entrena ez dezan".


Antolatzaileekin, Anporretan. | X.URZELAI



juruetan. | ARITZ GORDO

**Halako jaitsieretan, eskuleku edo manillarraren gainetik hegan egiteko ez da askorik behar...**
Ez pentsa, behin baino gehiagotan gertu ibili nintzen. [Barre] Sustoren bat edo beste hartu nuen, baina bizikleta menperatzea lortu nuen. Kontu handiz egin beharreko jaitsierak dira.
**Orbea etxearen irudi ere bazara.**
Bai, lan polita da hori ere. Aurten Andorran izan gara taldeko kide guztiak, argazki saio eta bideoak egiten, eta duela gutxi Aritz Gordo argazkilariarekin batera ibili ginen Orbeako gama berriko bizikletekin erretratuak ateratzen. Halakoetan ere gustura ibiltzen naiz.
**Amaitzeko, Orbea Enduro Crew taldean hainbat aurpegi berri dituzue; adibidez, emakumezko bat, Eva Garrido.**
Bai; poliki-poliki, geroago eta emakume gehiago dabiltza enduroan. Duela urte gutxi emakumezko bakarra ere ez genuen ikusten, eta orain hasi dira animatzen. Munduko Kopan, esaterako, 30 emakumezko izan dira. Garridok, adibidez, iaz Espainiako Opena irabazi zuen.



Markel Uriarte. | ARITZ GORDO

# Maider Unda, Las Vegasen borrokan

X.U. | ARRASATE

Rioko Joko Olinpiarretarako sailkatu ahal izateko txartela izango du jokoan Maider Undak datorren astean. Aramaioko borrokalaria Las Vegasen (AEB) dago abuztu amaiera ezkero, eta Munduko Txapelketa hasi aurretik bertara ondo egokitzeko hainbat entrenamendu saio egin ahal izan ditu.

**Irailaren 10ean hasita**

Munduko Txapelketa datorren eguenean hasiko dute, hilaren 10ean. Aramaiokoak bezperan ezagutuko du zein duen lehenengo kontrario, eta horrekin batera parekatze guztiak ere bistaratuko dituzte. Hala, Munduko Txapelketan duen helburu nagusia lehenengo bost borrokalarien artean sailkatzea izango da, horrek zuzenean emango lioke-eta Riorako txartela.

Londresko Jokoetarako sailkatzea izugarri kostatu zitzaion oletarrari, eta batera eta bestera ibili behar izan zuen txapelketetan esku hartzen, helburua lortu zuen arte. Eta horrek, noski, nekea areagotzea dakar. Hala, Las Vegasen lan ona egiten badu Undak, lasaitasun handiagoz prestatu ahal izango du datorren urtean izango den hitzordua. Oletarrak, baina, ez du harago begiratu gura: "Munduko Txapelketan dut buruan, eta ez dut beste ezertan pentsatu gura", adierazi du. Txartela lortuz gero, baina, Aramaiokoarendako hirugarren parte-hartzea izango litzateke halako hitzordu batean.

**75 kiloko kategorian**

Borroka libreko nazioarteko arautegia aldatu ostean, Undak 75 kilora arteko kategorian hartuko du esku. Hala, norgehiagoka bakoitzak bi borrokaldi izango ditu, hiru minutukoa bakoitza. Arautegi berriak ikusgarriago egiten ditu borrokaldiak.



Maider Unda, artxiboko erretratuan. | GOIENA

# Arrasate Hiria eta Agirreren omenezkoa

X.U. | ARRASATE

Denboraldiaurreko prestaketa lanekin aurrera egiten jarraitzen dute bailarako taldeek, eta asteburuan bi torneo izango dira: Mondrak antolatutako Arrasate Hiria –atzotik hasita– eta Aloñak Jose Luis Agirreren omenez antolatzen duena, hain zuzen ere. Hala, atzo, eguena, hasi zuten Arrasate Hirian Mondra eta Elgoibar ziren jokatzekoak. Gaur, egubakoitza, berriz, Elorriok eta Bergarak jokatuko dute (19:00etan), eta torneoko partidu erabakigarriak bihar, zapatua, jokatuko dituzte. 16:00etan hirugarren nor sailkatzen den erabakitzeko partidua jokatuko dute eta 18:00etan izango da finala.



Mondra eta Bergara, iazko Arrasate Hiria torneoan. | IMANOL SORIANO

**Aloñaren aurkezpena zapatuan**

Bihar, hilak 5, Aloñak jokatuko du Gasteiztik etorriko den Ariznabarra taldearen kontra (17:00) Jose Luis Agirreren omenezko lagunartekoa. Urtero moduan, klubak hitzordua aprobetxatuko du talde guztien aurkezpena egiteko, eta nobedadeetako bat izango da Erregional Mailan izango duten bigarren taldea.

## Bergarak eta Ford Mugarrik uko egin diote kategoria eusteari

Nahiz eta kantxan kategoriari eusteko kapaz izan ziren, Ohorezko Mailan Ford Mugarrik eta Euskadiko Txapelketan Bergarak mailaz jaistea erabaki dute. Eta bi kasu horietan arrazoi antzerakoengatik hartu dute erabakia: jokalari askok eskubaloia utzi dute, eta, maila horretan jokatzeko jende faltan ibiliko direla ikusita, "erabaki gogorra" hartu dute. Hala, Ford Mugarri Arrasate Euskadiko Txapelketara jaitsiko da eta Aloña Mendikoekin neurtuko dituzte indarrak. Eta Bergarak maila territorialean jokatuko du denboraldi berria, urteetan gorago egon eta gero.

## UDAk Durango hartuko du domekan, ligako hirugarren jardunaldian

Joan den astean Alavesen kontrako partiduko azken minutuetan kolpe gogorra jaso ostean, domekan ahaleginduko da Aretxabaleta ligako lehenengo garaipena eskuratzen, Durangoren kontra (16:30, Ibarra). Eta ikasgaia ondo ikasita izango dute, Hirugarren Mailan ezin dituztela partiduak epel hasi, eta azken unera arte gogor borrokatu behar dela baloi bakoitza. Kontrario gogorrak izango dira bizkaitarrak; liga ondo hasi dute eta dagoeneko lau puntu dituzte zorroan. Oraingoz, Balmaseda da jokatutako partidu guztiak irabazteko gauza izan den talde bakarra, baina gertu dago Durango, lau punturekin.

## Gatzagako mendiko bizikleta martxa egingo dute domekan

Urtero legez, Gatzagako mendiko bizikleta martxak hasiko du udazkenean bailaran antolatuko dituzten gainontzeko martxen denboraldia. Gatzagakoa lehenengo, eta ondoren etorriko dira, esaterako, Oñatiko eta Arrasateko mendi bizikleta martxak (uda aurretik egin zuten-eta Eskoriatzakoa). Hala, domekan, hilak 6, bizikleta-zaleak 09:00etan abiatuko dira plazatik, antolatzaileek prestatutako ibilbideari aurre egiteko. Izena emateko, federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuta ez daudenek 18 euro. Eta umeendako ere izango da ibilaldia, 10:00etan.

# Kalitatezko musika debalde entzuteko aukera Kulturaten

- Gaurtik hasita, sei kontzertu batuko ditu Udalaren saio akustikoak
- Kulturateko areto nagusian, 20:00etan eta dohainik dira guztiak

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE
Askotariko musika estilo eta jatorritako sei kontzertu izango dira gaur hasiko den Kulturate Akustikoak egitarauaren barruan.

Bi asteburutan banatuta, asteburu bakoitzeko hiruna emanaldi antolatu ditu, zazpigarrenez, Udaleko Kultura Sailak; horiek guztiak Kulturateko areto nagusian (20:00) izango dira, eta doan.

**Formatu txikian, baina kalitatez**
Helburu xumearekin hasi ziren eta horrela izaten jarraitzen dute oraindik ere Kulturate Akustikoko saioek, Karmelo Alberdi Kultura teknikariaren esanetan: "Asmoa ez da areto handiagoetara eramatea, kontua da kalitatezko musika eskaintzea, sarritan herrietan programatzen ez diren estiloei lekua eginez. Etortzen den jendeak oso ondo pasatzen du, eta, egia esan, sei urtean kontzertu ikaragarriak ikusi ditugu. Pentsaera horrekin etortzeko proposatuko nieke herritarrei; hau da, gauza berriak entzuteko gogoarekin etortzea".

Askotariko estiloak ekartzen eta urtero talde ezberdinei lekua egiten saiatzen direla dio Alberdik. "Yaimaren kasua berezia da, orain dela lau urte gurean izan zen-eta La Banda del Peporen telonero moduan. Bakarrik etorri zen orduan; bestelakoa da, beraz, oraingo proposamena. Horrez gainera, Petti ere Arrasaten jo izandakoa da, baina bakarlari moduan edo beste musikari batzuekin egindako proiektuekin, eta ez oraingoan moduan, bere abesti eta taldearekin".

**Jarrita gozatzeko emanaldiak**
Aulkiak jartzen dituzte, lasai entzuteko musika delako; ez diote, baina, inori dantzan egitea galaraziko; 140 lagun inguruendako tokia dago. 11.000 euroko aurrekontua du aurtengoak.

**ESANAK**

**"Sarritan programatzen ez diren estiloetako eta kalitatezko eskaintza egin gura dugu"**

KARMELO ALBERDI | TEKNIKARIA

## Irailaren 4an, 5ean eta 6an


ARRASATEKO UDALA

**YAIMA OROZCO ETA ALFRED ARTIGAS IRAILAK 4, 20:00** Musika kubatarra jazzarekin ezkonduta da Orozco koblakariak eta Artigas jazz-musikariak dakartena. Adituen esanetan, xalotasunetik eta zintzotasunetik abiatuta hunkitzen duen musika egiten du orain dela bi urte sortu zen bikoteak.


IMANOL SORIANO

**PETTI IRAILAK 5, 20:00** Amerikar sustraiak dituen rocka egiten du Berako eskarmentu handiko bakarlariak. Erraietatik ateratzen duen ahots urratu eta sakona eta gitarra jotzeko trebezia ditu, besteak beste, ezaugarri. Laukote formatuan egingo du biharkoa, *Osoron* (Gose) arrasatearrarekin eta Iñigo eta Igor Telletxearekin.


ARRASATEKO UDALA

**JOHN BERKHOUT IRAILAK 6, 20:00**
Oiartzungo bost gaztek osatzen duten taldeak, natura, nostalgia eta zentzumenak uztartuz, folk, rock, psikodelia eta indie musikaren ildotik egindako bidaia proposatzen du. Ameriketako Estatu Batuetako 70eko hamarkadako musikaren erreferentzia zuzena da.

## Irailaren 11n, 12an eta 13an


ARRASATEKO UDALA

**THE ROMANTICOS IRAILAK 11, 20:00** Iker Pirisek gidatutako hirukoteak bluesa du ardatz nagusi, besteak beste, funk, swing eta rythm-and-blues estiloekin nahastuz. 2009an sortutako taldeak emanaldi asko egin ditu, eta bi disko ditu kalean; *Do it yourself*, iazko urrikoa.


ARRASATEKO UDALA

**ANTILOPEZ IRAILAK 12, 20:00**
Andaluziatik datorren bikoteak, musika emanaldi hutsa baino gehiago, umorea eta musika batzen dituzten ikuskizunak egiten ditu. Gitarra bana eskuetan eta duten ahots ikaragarriekin, batzuetan berbetan, eta beste batzuetan kantuan, saio berritzailea dakarte.


ARRASATEKO UDALA

**BILILLO Y LOS SULLOS IRAILAK 13, 20:00**
80ko hamarkadako Bilboko pop giroko Los Santos talde ikurreko abeslaria da Bilillo; orain dela lauzpabost urte sortu zuen haren ildotik oso gertu dagoen pop-rock estiloko proposamenak borobilduko du Kulturate akustikoaren zazpigarren edizioa.


Valen Moñux. | GOIENA

**Valen Moñux**
| Zuzendari artistikoa

## "Finalera iritsi ginenean hasi ginen amesten, eta azkenean, txapeldunak!"

**A.A** | BERGARA
Donostiako Opus Lirica konpainiaren *La Traviata* opera zuzenduko du Valen Moñuxek, konpainiak deitutako Nazioarteko Eszena eta Eszenografia lehiaketa irabazita.

**Astean jakin duzu Alex Odriozola herrikidearekin batera aurkeztutako proposamena aukeratu dutela. Zorionak! Pozik?**
Oso pozik, benetan. Lehiaketara aurkeztu gineneаn ez genuen itxaropen handirik, baina finalera iritsi ginenean hasi ginen pixka bat amesten, eta, azkenean, txapeldunak. Ia ezin dugu sinistu.

**Zuen ardura izango da dekoratuak egitea, eta, horrez gainera, zuk zuzenduko dituzu aktore-musikariak.**
Nik diseinatuko ditut dekoratuak eta Alexek eraikiko ditu. Beti izan dugu lantalde ona laguntzeko, eta oraingoan ere espero dugu izatea. Eszenografiaz aparte, zuzendaritza eszenikoa ere nik egingo dut; hau da, agertoki gainean pasatzen den guztia kontrolatzea ere nire lana izango da. Arlo musikala, berriz, zuzendari musikalaren ardurapean dago.

**Lehiaketan aurkari profesionalak izan dituzue.**
Bai; Marta Egilior, Bilboko aktore zuzendari bat, eta Argentinako bi ahizpa: Maria Concepcion eta Maria de la Paz Perre. Haiek hamar urteko esperientzia dute opera profesionalak muntatzen.

**Ze ezaugarri ditu zuen proposamenak?**
Klasikoa da, oinarrizko operako garaia eta lekua aldatu gabe: Paris, 1900. urtea.

**2016ko otsailean izango da estreinaldia. Zein izango da zuen lan prozesua?**
Lau hilabete dekoratuak egiteko eta otsailean Donostiara eramango dugu. Han, oso aste gutxitan dena entseatu behar da, profesionalen erritmoa horrela baita. Eta otsail bukaeran, estreinaldia.

# Abian da irraileko egubakoitzetako iluntzeak musika lasaiarekin gozatzeko zikloa

## Serious Bussines zumaiarrak izango dira gaur Sastiña ermitan, 19:30ean

A. ARANBURUZABALA | ARAMAIO

Blues, jazz eta country folk rock musikaz doan gozatzeko aukera izango da, gaur hasi eta iraileko egubakoitz guztietan, 19:30ean, Aramaioko Udalak Gasteizko Xabigune elkartearekin elkarlanean antolatu duten Kontzertuak Sastiñan izeneko zikloan.

"Orain arteko edizioek oso harrera ona izan dute, jendeak oso gustura hartzen ditu emanaldiak. Pote batzuk hartzen dituzun bitartean, samur entzuteko musika aukeratu dugu. Ekaineko Sastiñako musika zikloan, herriko taldeei euren lana erakusteko aukera eman genien, eta oraingoan, berriz, bat izan ezik, Gasteizkoak dira gainontzekoak. Talde hasiberriak eta eskarmentua dutenak tartekatu ditugu", azaldu du Itsaso Aspiazuk, Zuiako Kuadrillako Kultura teknikariak.



Zumaiako Serious Bussines taldeak joko du gaur Aramaion. | XABIGUNE

### Zumaiako blues-rocka gaur

Aurten sortutako Serious Bussines taldeak zabalduko du gaur, egubakoitza, egitaraua. Uztailean estreinaldia eginda, Aramaiora ekarriko dituzte Zumaian egindako blues-rock doinuak. Aitor Badiolak (gitarra elektrikoa eta ahotsa), Maria Armendaritzek (baxu elektrikoa eta koruak) eta Ander Zulaikak (bateria eta koruak) osatzen dute hirukotea. Eskarmentudun kideak dira guztiak; hirukotea sortu aurretik, besteak beste, Arima Beltza, Vanpopel, Alligaitors, Bluestock eta Makala Jazz Funk Band taldeetan ibilitakoak dira.

Gasteizko The Crazy Wheels Band hirukoteak hartuko du lekukoa gaur zortzi; AEBetako musika jorratzen dute, bereziki. Datozen bi asteetan, berriz, Gasteizen sortutako jazz doinuekin gozatuko dituzte Sastiña ermitaren inguruak.

### EGITARAUA

**Irailak 4:** Serious Bussines. Blues-rocka. Zumaia
**Irailak 11:** The Crazy Wheels Band. Country-folk-rocka. Bilbo.
**Irailak 18:** Sindrome de Stendhal. Jazza. Gasteiz.
**Irailak 25:** Esan Ohi Da. Jazza. Gasteiz.

# Nazioarteko koru handien artean, Ganbara Abesbatza jaun eta jabe

A. A/ T. M | OÑATI

Aurreko asteburuan Italiako Arezzo hiriko nazioarteko jaialdian lehiatu ondoren, hiru sarirekin etxeratu zen astelehenean Ganbara Abesbatza: musika garaikideko eta koru mistoen saileko lehiaketan bigarren sariak eskuratu ditu, eta, horrez gainera, Aitor Biaini zuzendari onenaren saria eman diote. Era berean, errenazimenduko sailean puntuaziorik altuena lortu dute Oñatikoek, nazioarte mailako lehen lerrokoa den Guido d'Arezzo jaialdian.

### Errepertoriorik politena

"Hara joateko lan gogorra egin dugu, aurtengo proiekturik garrantzitsuena izan da honako hau. Talde asko aurkezten dira lehiaketa horretara eta aukeraketa zorrotza izaten da; beraz, aurrez ere bagenekien lehia gogorra izango zela, puntuazioko emaitza altuak izan dira horren adierazle", dio Aitor Biainek.

Koru misto sailean aurkeztu ziren, koru profesionalekin lehiatuta. "Apur bat beldurtuta geunden, baina bagenekien zeintzuk ziren gure karta onak: errepertorioaren aukeraketa asko zaindu dugu eta musikaltasuna asko landu dugu, geroago epaimahaikideek azpimarratu diguten moduan. Oso talde musikala garela eta programarik onena gurea izan dela esan digute". Koruaren ezaugarri guztiak erakusteko, garai askotariko kantuak aukeratu zituzten, eta baita euskal folklorea erakutsi ere.

### Txikia, handien pareko

"Japoniarrak, filipinarrak... denetik zegoen, eta txiki sentitzen nintzen gainontzeko abesbatzetako zuzendariekin konparatuz; nire lana ondo egiten saiatu nintzen. Meritua, baina, ez da nirea bakarrik, denon saria da, nahiz eta nire izena eraman. Gure korua asko hazi da aurten, ezagun da hori", gaineratu du Biain zuzendariak.



Biain saria hartzen. | JOXE FERNANDEZ

UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!**

Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.eus/argazkiak*

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



NEREA MENDIOLA. 2014ko Sari Nagusiaren irabazlea.



XABIER URTEAGA. 2014ko bigarren sariaren irabazlea.



ITXASO KALBANO. 2014ko hirugarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!

**Oinarriak***

**Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
**- Egilearen izen-abizenak eta herria.**
**- Harremanetarako telefonoa.**
**- Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
**- Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**

- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 10etik irailaren 20ra arte (biak barne).**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**
- **Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.eus* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrrasate
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 9an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

**HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!**

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez**, @udakoargazkiak helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez**, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitaterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: *ttiki.com/70956*

**Sariak**

**1. saria:** Nikon D3200 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. **Aretxabaletako Begira argazki-dendaren eskutik.**
24 megapixel / Full HD bideo-grabazioa / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa / ISO 100-12.800 sentsibilitatea / Integratutako edizio funtzio ugari.






**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
**Herritarren saria:** Amazon Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
**Boto emaileentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: Begira argazkilaritza · ARRASATE BIDAIAK · GURE AMETSA JATETXEA · Arrasateko hipermerkatua EROSKI zurekin · karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

# ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez da onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAk ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza. Hiru logela, sukaldea eta bainugela. Hilean 450 euro. Ganbara eta igogailua. 675 70 68 07

**Eskoriatza.** Eduardo Gorosarri enparantzan etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. 605 77 51 65

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Datorren ikasturtean Aretxabaletan ikasiko dut. Etxebizitza bila nabil. Xabier. 616 96 61 46

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan erdingunean. Grupo San Juanen, San Andresen edo inguruan. Pertsona bakarrentzat izango litzateke; beraz, etxebizitza txiki batekin nahikoa dut. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez. 618 28 91 28

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan, igogailuarekin. Senar-emazte erretiratuak gara eta logela bat edo birekin nahikoa dugu. Hilean 450-500 euro ordain ditzakegu. 632 77 35 38

**Oñati.** Bi oñatiar langile, arduratsu eta txukunek etxe bat errentan hartu gura dute Oñatin. Gehienez ere 400-450 euro ordaintzeko gertu. 685 73 06 80

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Erdigunean logela ematen da errentan. Telebistarekin eta zarrailarekin. 603 14 28 89

**Arrasate.** Erdigunean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. 678 82 69 77

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Cordoba y Oro kalean, San Andresen. Pertsona ez erretzailea eta arduratsua izatea eskatzen da. 648 00 86 55

**Donostia.** Ikasleen artean etxebizitza osatzeko jende bila nabil. 688 61 09 03

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN

**Arrasate.** Neska koadrilla batek lokala hartuko luke errentan. 680 29 99 79 (Amaia)

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**
Sukaldaria behar da erdiguneko taberna baten aritzeko.
943 79 60 49

**Bergara.** Pertsona euskalduna behar dugu umeak zaintzeko eta etxean laguntzeko. 636 10 44 31 edo 943 08 20 42

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Menni lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Bergara.** 46 urteko emakume bergararra etxeko lanak egiteko prest. 647 51 52 80

**Bergara.** Ume eta nagusiak zainduko nituzke egunean zehar. Baita garbiketa lanak egin ere. 631 53 76 74

**Debagoiena.** Arrasateko emakumeak, pertsona nagusien zaintzan, etxeetan zein zaharren egoitzatan, 9 urte baino gehiagoko lan esperientzia duena, etxeko garbiketa lanak egiten, pertsona nagusiak zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Telefono: 696 04 67 20

**Debagoiena.** Neska arduratsua, erizain laguntzailea, nagusi, gaixo edota umeak zaintzeko gertu. Baita orduka ere. Deitu telefono honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala hasteko gertu. 622 59 39 87

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen eta etxeko garbiketa lanak egiten esperientziadun emakumea lan bila. Etxean bertan edo orduka lan egingo nuke. Aurrez lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 631 52 40 03

**Debagoiena.** Sukaldaria naiz eta lan bila nabil. Zerbitzari lanetan ere aritu izan naiz. Ume eta nagusiak ere zain ditzazket. 685 64 85 64

**Debagoiena.** Ume eta nagusien zaintzan, tabernan, sukaldean, garbiketan ete abarrean lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Arrasaten bizi den neska pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 09 50 90

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaitzeko egunez, orduka zein gauetan. 645 58 71 61

**Debagoiena.** Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrak. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. Telefonoa: 632 12 65 40

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan arituko nintzateke. 602 34 04 13

**Debagoiena.** Neska arduratsua lan bila umeak edo nagusiak zaintzen zein bestelako lanetan. Esperientzia eta paperak ditut. 671 64 35 10

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Autoa daukat. Telefonoa: 666 26 75 08

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Geriatria tituluduna. Autoduna. Eskarmentua lanean. Ospitalean gaixoak zaintzeko gertu. Telefonoa: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Zerbitzari lanetan edota nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan arituko nintzateke. Leonarda Arandia. 629 29 11 23

**Oñati.** Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest irailetik aurrera. Haur Hezkuntzako ikasketak eta haurrekin esperientziaduna. 677 54 43 10

**Oñati.** Hezkuntza bereziko alorretik, lehen hezkuntzako ikasketak HUHEZIn burutzen ari naizen Oñatiko neska bat naiz. Aurtengo ikasturtean zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Haurrekin esperientziaduna. 664 65 12 15

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBH 3. mailako matematika eskolak jasoko genituzke, astean bi egunetan, ordubetez. 688 65 73 49 edo 943 79 92 15

**Bergara.** Irailetik aurrera DBH 4. mailako ikaskaetekin lagunduko didan norbait behar dut. Batez ere matematikan, fisikan eta kimikan. 695 70 58 33

**Ingeniaritzako eskola partikularrak.** Ingeniaritzako 2. mailako eskola partikularrak jasoko nituzke Bergaran. Batez ere ikasgai hauetan laguntza beharko nuke: mekanika, estatistika eta matematika III. 638 86 82 53

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Ikastaro trinkoak, HEO-eko zein Cambridge-ko azterketak prestatzeko eta abar. 618 91 32 89

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Motoarendako karroa.** Motoa eramateko karroa salgai, prezio oso onean. 665 73 37 75

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurkumeak opari.** Lau txakurkume ematen dira opari. Ama artzai txakurra eta aita ezezaguna. Konpromiso gabe ikusteko aukera. 658 75 97 55

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Lursaila salgai.** Gorla gainaren azpian. 3,5 hektarea. Bi borda egiteko aukera. Bat zutik, teilatu batik. Ura eta todoterrenoarendako pista. 35.000 euro. 629 17 45 57 (Aitor)

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Autoa konpartitu Segura-Aretxabaleta.** Aretxabaletan ikasten hasiko naiz aurtengo ikasturtean eta Seguran bizi naiz. Norbait balego joan-etorri hori egingo duena egunero, autoko gastuetan lagunduko nioke. Xabier. 616 96 61 46

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Araneerreka 79m², 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850 €
- Araneerreka 87m², 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 110.000 €
- Araneerreka 90 m², 3 logela, trasteroa. PREZIO JEITSIERA. 129.000 €
- Kaldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€ NEGOZIABLEA.
- Bolun 129 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 95.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Kaldo Eleizalde 87 m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztuta. 210.000 €
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje eata trastelekuarekin. 150.000 €
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 225.000€ PREZIO EITSIERA.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekua. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Araneerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN

ANGIOZAR:
- Duplexa 170 m², Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztea. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Borda 70 m². Lur sailak, zuhaitzak eta pinudiarekin. Inguruа ondo prestatuta. 90.000€
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000 €
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.

OSINTXU:
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA

ANTZUOLA:
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050€
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, odosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rebal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

## ZORION AGURRAK


ARRASATE
**Aner Iriarte Balerdi**
Irailaren 9an, 12 urte. Zorionak, txapeldun, lagunen eta familiaren partetik!


BERGARA
**Nora Agirrebeña Altuna**
Irailaren 3an, 9 urte. Zorionak, Nora! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik, eta fenomeno pasatu zure urtebetetze eguna.


ARETXABALETA
**Alluitz Lazkano Gorostiza**
Irailaren 2an, 8 urte. Zorion bero-beroak maitte zaittugun danon partetik! Ondo pasatu eguna!


ARETXABALETA
**Izar Zuazo Oianguren**
Irailaren 2an, 8 urte. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetetze egunean eta mila patxo potolo, aitatxoren, amatxoren eta, batez ere, Unaxen partetik! Mua, pitxin!


OÑATI
**Ekain Olalde**
Irailaren 1ean, 6 urte. Zorionak, potxolo! Ondo pasatu eta jarraitu horrela, txapeldun! Muxuak, familia guztiaren partetik.


BERGARA ETA ARETXABALETA
**Aratz Ormaetxea eta Haritz Garai**
Aratzek irailaren 1ean eta Haritzek irailaren 2an. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetze eguna.


OÑATI
**Uxue Aramburu**
Abuztuaren 31n, 4 urte. Zorionak, polit hori! Segi horrela, gure bizitza alaitzen. Ikaragarri maite zaitugu Haizeak, Nahiak eta gu biok, aitatxok eta amatxok.


BERGARA
**Eneko Zamakola Agirrezabal**
Abuztuaren 30ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi-handi bat gu guztion partetik!


ANTZUOLA
**Ainhize Azkarate Vazquez**
Abuztuaren 28an, 5 urte. Zorionak, Ainhize. Muxu handi bat, etxekoen partetik.


BERGARA
**Ekain Bakerin Zabaleta**
Abuztuaren 28an, 3 urte. Zorionak, Ekain! Muxu potolo bat etxekoen eta laguntxoen partetik.


BERGARA
**Aitzol Puga Saez**
Abuztuaren 27an, 7 urte. Zorionak, artista! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat familiakoen partetik. Maite zaitugu.


ARRASATE
**Iraia Prol Barbero**
Abuztuaren 27an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Ze azkar pasatzen den denbora. Egun zoragarria pasatuko dugu ospakizunean. Maite zaitugu, maitxia.


ARETXABALETA
**Ane Lasagabaster Arrieta**
Abuztuaren 27an, 3 urte. Zorionak, Ane! Merixenda eder bateaz ospatuko dogu zure eguna. Ondo pasatu! Patxo bat.


BERGARA
**David Casillas**
Abuztuaren 27an, 36 urte. Zorionak, David, etxekoen eta lagunen partetik.


ARRASATE
**Iñaki Barrutiabengoa**
Abuztuaren 27an, 30 urte. Zorionak, Iñaki! Mila esker afariagatik. Datorren urtean gehiago! Muxu potolo bat, etxeko guztion partetik. Pa, osaba!


ARRASATE
**Jon de Andres Garai**
Abuztuaren 26an, 23 urte. Zorionak, Jondi! . Muxu eta besarkada handi-handi bat familia guztiak bidaltzen dizugu, bereziki zure lehengusu eta lehengusina txikiek. Ondo-ondo segi.


ARETXABALETA
**Manex Amozarrain Olabarria**
Abuztuaren 25ean, 5 urte. Zorionak! Zoragarritxo bat zara! Patxo potolo-potoluak!


OÑATI
**Ander Urtaza Ronda**
Abuztuaren 24an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu bat etxeko guztien partetik!


ARRASATE
**Irati Uria**
Abuztuaren 23an, 8 urte. Zorionak, printseza, etxekoen partetik. Muxu handi bat.


BERGARA
**Unax Anakabe Iturbe**
Abuztuaren 23an, 4 urte. Zorionak, maittia. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi-handi bat etxeko guztion eta, bereziki, zure anaia Aimarren partetik.

## ZORION AGURRAK



ARAMAIO
**Ilargi Bengoa**
Abuztuaren 21ean, 8 urte. Zorionak, maitxia! Jaso patxo erraldoi bana Hegoaren, Enhubuharen, aitatxoren eta amatxoren partetik!



BERGARA
**Mikel Zaitegi Fernandez**
Abuztuaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Mikel! Oso ondo ospatu zure eguna, patxo handi-handi bat eta bost belarri tirakada familixa guztiaren partetik!



ANTZUOLA
**Izadi Sudupe Larrea**
Abuztuaren 19an, 6 urte. Zorionak, printsesa! Patxo handi bat Iratiren, aitatxoren eta amatxoren partetik!



ARRASATE
**Iraia Corral Rodriguez**
Abuztuaren 18an, 6 urte. Zorionak etxekoen eta baita ere Imanolen eta Itziarren partetik!



OÑATI
**Peru Gezalaga Rodriguez**
Abuztuaren 18an, 4 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
**Izar Curado Uzin**
Abuztuaren 15ean, 12 urte. Zorionak, Izar! Etxeko guztien eta, batez ere, Ekaitzen, Oierren, Eleneren eta Ametsen partetik. Aupa Reala! Patxo pila-pila bat zuretzat.



ARRASATE
**June Marcos Avila**
Abuztuaren 15ean, 2 urte. Zorionak, June! Alaitasun horrekin jarraitu, sorgintxo. Muxu handi bat familia guztiaren partetik!



ARRASATE
**Jon Aranzabal Vitoria**
Abuztuaren 15ean, 8 urte. Zorionak, *guapeton*. Aurten gainera merendola eta guzti ospatu dugu. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ESKORIATZA
**Aroa Garro**
Abuztuaren 14an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Bederatzi urte pasatu dira lehenengo negarra bota zenuenetik! Musu pila bat aitatxoren eta amatxoren partetik .



OÑATI
**Helene Kortabarria Otxoa-Aizpurua**
Abuztuaren 12an, 4 urte. Zorionak, Helene! Ze handi, lau urtetxo! Oso ondo pasatu zure egunean, *preziosa*! Patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
**Olaia Vitoria Herranz**
Abuztuaren 12an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Hiru urte pasatu dira jada zure poztasunak eta irudimenak inguratuta gaudela. Izugarri ondo pasatu eta mila muxu, danon partetik.



OÑATI
**Mara Vazquez Jimenez**
Abuztuaren 11n, 7 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu eguna, etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Oinatz Urkia Berezibar**
Abuztuaren 11n, 6 urte. Zorionak, Oinatz! Jada sei urte! Zorionak etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Oier Aranegi Leturiaga**
Abuztuaren 9an, 6 urte. Muxu eta besarkada handi-handi bat familia guztiak opa dizu, bereziki zure arreba Eiderrek eta lehengusu-lehengusina guztiek. Horrela jarraitu, alai-alaia izaten.



ARRASATE
**Danel Larrañaga Arana**
Abuztuaren 8an, 8 urte. Zorionak, Danel maitia! Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu pila-pila, maite zaitugun guztion partetik.



OÑATI
**Aiert Alberdi Elorza**
Abuztuaren 7an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Espero dugu ondo pasaittea zure eguna. Amaren, aitaren eta Erlantzen partetik.



ARRASATE
**Nerea Oroiz Muñez**
Abuztuaren 5ean, 5 urte. Zorionak, *preziosa*! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta musu potolo bat familia guztien eta, bereziki, Naiararen eta lehengusuen partetik.



ARETXABALETA
**Iker Lopez**
Abuztuaren 5ean, 8 urte. Zorionak, Iker! Jada zortzi urte! Muxu erraldoi bat maite zaitugun guztion partetik.



ARETXABALETA
**Iraide Larrañaga**
Abuztuaren 5ean, 5 urte. Zorionak, *txiribuelta*! Zelako ederki pasatu genuen zure urtebetetzean! Muxu potolo bat familiaren eta, bereziki, Jonen partetik.



BERGARA
**Danel Goikoetxea Blanko**
Abuztuaren 4an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat etxeko guztien eta bereziki, Maialenen eta Eleneren partetik.



BERGARA
**Xabat Unamuno Etxeberria**
Abuztuaren 3an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu potolo bat etxeko denen partetik.



BERGARA
**Unax Barrenetxea**
Abuztuaren 3an, 2 urte. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian, maitxia, eta patxo handi bat etxekuen eta batez be Sareren, Peruren eta Ikerren partetik!



BERGARA
**Irati eta Enara Urrutia**
Iratik abuztuaren 3an, 4 urte eta Enarak abuztuaren 6an, 2 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu zuen urtebetetze egunetan! Patxo handi bat, familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Ixone Guridi Urteaga**
Abuztuaren 2an, 7 urte. Zorionak, sorgintxo, mundiala zara! Muxu handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Iker Andueza Mozos**
Abuztuaren 2an, 6 urte. Zorionak, Iker! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna Iratiren, amatxoren, aitatxoren eta familia guztiaren partetik! Patxo handi bat, *xalau*!



ARRASATE
**Urko Txakon**
Uztailaren 31n, urtebete. Baina ze handi ein dan gure karramarrue! Zorionak, maittie, zure lehen urtebetetze honetan, aitatxoren eta amatxoren partetik! Patxo potolo pillo-pillue!



ARRASATE
**Haizea Mendizabal**
Uztailaren 31n urtebete betetzen dozu. Zorionak, maitxia, eta urte askotarako! Patxo potolo-potolo bat aitaren, amaren, Manexen eta etxeko guztion partetik.



OÑATI
**Ane Garitano Moyua**
Uztailaren 31n, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, politta! Zelako handixa egin zaren! Ondo-ondo ospatuko dogu danok batera! Patxo erraldoi bat familixa danaren partetik!



BERGARA
**Jose Ramon Piñeiro**
Uztailaren 31n, 48 urte. Zorionak lagunen eta, bereziki, familiaren partetik.



BERGARA
**Iker Olabarria Vicente**
Uztailaren 29an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran pasatu zure urtebetetzian, zure familixiaren partetik eta muxu erraldoi bat.



ESKORIATZA
**Unax Arrese Otamendi**
Uztailaren 29an, 10 urte. Zorionak, Unax! Ondo pasatu zure eguna eta topera disfrutatu! Belarritxik hamar tirakada familixa danaren partetik. Aupa Reala!



BERGARA
**Peio Arana Garitano**
Uztailaren 28an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu urtebetetze eguna eta baitta oporretan be. Etxeko danen eta, batez be, Manexen partetik.



BERGARA
**Mikel Olabarria**
Uztailaren 27an, 2 urte. Zorionak, polit hori. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian, familia guztixaren partetik. Mila muxu!



BERGARA
**Laia eta Uxue Arrieta Arriola**
Gure sorgintxuek 4 eta 1 jada! Zorionak, bikote! Etxeko poztasuna zarie. Muxu erraldoi bat familixa guztixaren partetik.



ARETXABALETA
**Maddi Eskibel**
Uztailaren 26an, 3 urte. Zorionak, pitxin! Ondo pasatu zeure egunian. Aitatxoren, amatxoren eta Haitzen partetik. Familixa danaren partetik be, besarkada handi bat!



OÑATI
**Unax Arana Urtzelai**
Uztailaren 26an, 3 urte. Zorionak, Unax! Ondo pasatu zure egunian eta patxo bat etxeko danen partetik.



ARRASATE
**Itxaso Barrutiabengoa**
Uztailaren 26an, 33 urte. Zorionak, printzesa. Asko maite zaitugu. Zorionak eta musu pila familiaren eta, bereziki, Ionen partetik. Pa!



OÑATI
**Ana Mari Liziaga**
Uztailaren 26an, 82 urte. Zorionak, amama, etxeko danon partetik! Patxo handi bat!



BERGARA
**Maren Unamuno Martinez**
Irailaren 3an 11 urte. Urte askotarako, printzesa, etxeko guztien partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

## ASTEA GOIENAN


ENEKO AZKARATE

### Mikel Irizarri egindako elkarrizketa gaur ikusgai

Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari Mikel Irizarrek kargua hartu eta eskaini duen lehenengo elkarrizketa ikusi ahal izango da gaur, egubakoitza, Goiena telebistan. Lanerako dituen asmoen berri emango du Eneko Azkarate kazetariak aurkeztutako saioan.
**'Elkarrizketa: Mikel Irizar'**
Egubakoitza, 22:00


IMANOL GALLEGO

### Leintz Gatzagako jaietan jasotakoa, astelehenean

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Leintz Gatzagako Andramari jaiak eta egunotan ez dute aspertzeko denborarik izango herrian. Ekitaldietan izango da Aitor Agiriano horiek ematen dutena jasotzen, eta astelehenean *Debagoiena zuzenean* saioan ikusi ahal izango da.
**'Debagoiena zuzenean'**
Astelehena, 20:00

## LABURREAN

### Irabazi liburu edo DVD bat zozketan parte hartuta

Helduei zuzendutako Mariasun Landa idazlearen *Inurrien hiztegia* liburua eta umeendako *Peter Pan* DVDa zozketatuko dituzte egubakoitzean Arrasate Irratian. Zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera. Zorte on!

### Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan

Astean zehar irratian izan diren hainbat elkarrizketa berreskuratuko dituzte asteburuan 10:00etan. Besteak beste, Kultura teknikari Karmelo Alberdi hizketan izango da Kulturate Akustikoen gainean eta Josu Zubia Mondrako entrenatzaileak Arrasate Hiriari buruz jardungo du.

### Kontsultatu sarean telebistako programazioa

Astean zehar Goiena telebistan izango diren saioen ordutegia sarean kontsulta daiteke.

**Programazioa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Angel eta Mari Carmen

Angel Fernandez de Arroiabe eta Mari Carmen Aranburuzabala orain dela 50 urte ezkondu ziren. Abuztuaren 29an ospatu zituzten urrezko ezteiak, Dorletako amaren elizan elkartu eta Gure Ametsan bazkalduta. Zorionak, bikote!





### Alaia eta Iker

Alaia Maiztegi eta Iker Agirrezabal zapatuan ezkonduko dira. Ezkontza Oñatiko San Juan ermitan ospatuko da eta ondoren Etxe Aundi jatetxean izango da bazkaria. "Zorionak bikote, zuen familiaren eta lagunen partetik! Bizitzako etapa berri honetan zoriontsu izatea opa dizuegu, merezi duzue–eta! Pozik bizi, bikote!".

ESKER ONA

### Andres Gabilondo San Martin



2015eko abuztuaren 13an hil zen, 84 urte zituela.

Emaztea: Isabel. Seme-alabak: Elisabet eta Roman, Joseba eta Ane, Ander.
Bilobak: Irene eta Joey, Diego, Pablo, Eneko eta Naia. Eta gainerako senideak.
—
Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
*Zure irribarrea beti izango da gure artean.*

**Bergaran, 2015eko irailaren 4an.**

ESKER ONA

### Pilar Ortubay Cenitagoya



Marcelino Sanzen alarguna

Donostian hil zen 2015eko uztailaren 20an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2015eko irailaren 4an.**

ESKER ONA

### Bernardina Zumalde Arana



(Arantzazuko Gesaltza baserrikoa)

Abuztuaren 7an hil zen, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
—
Bere aldeko meza, domekan, irailaren 6an, 10:00etan,
San Martin egoitzako elizan ospatuko da.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

**Oñatin, 2015eko irailaren 4an.**

URTEURRENA

### Eulalia Sudupe Astigarraga

Bedoñan hil zen 2005eko abuztuaren 21ean.

*Zeruko izar paregabea*
*gure amama Eulali maitea.*
*Hamar urteko hutsunean*
*zure irrifarra dugu oraimenean.*

*Gero arte, amama, beti egongo zara gure bihotzean.*

**Zure bilobak: Gorka, Nerea, Eider, Edurne, Maia, Miren eta Jon.**
**Arrasaten, 2015eko irailaren 4an.**

## HILDAKOAK

**Pilar Ortubai Zenitagoia.** Arrasaten, uztailaren 20an. 82 urte.
**Carmen Iñarra Gantxegi.** Bergaran, uztailaren 23an. 82 urte.
**Esteban Igartua Gabilondo.** Bergaran, uztailaren 24an. 86 urte.
**Maria Teresa Valencia Janices.** Arrasaten, uztailaren 26an. 87 urte.
**Heriberto Abasolo Heriz.** Arrasaten, uztailaren 27an. 70 urte.
**M. Isabel Iturbe Urrutia.** Arrasaten, uztailaren 29an. 98 urte.
**Consuelo Argarate Aldai.** Arrasaten, uztailaren 30ean. 86 urte.
**Bizenta Pastor Oliva.** Aretxabaletan, uztailaren 31n. 93 urte.
**Cipri Martin Portal.** Bergaran, uztailaren 31n. 65 urte.
**Maria Basauri Unamuno.** Bergaran, abuztuaren 2an. 89 urte.
**Miren Oregi Aranburu.** Bergaran, abuztuaren 3an.
**Jose Millan Sanchez.** Arrasaten, abuztuaren 3an. 76 urte.
**Jose Luis Uzin Artolazabal.** Arrasaten, abuztuaren 3an. 85 urte.
**Ana Maria Antonia Uriagereka Kaltzakorta.** Arrasaten, abuztuaren 4an. 87 urte.

ESKER ONA

## Fermin Arruti Mazmela



Arrasaten hil zen 2015eko abuztuaren 19an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2015eko irailaren 4an.**

ESKER ONA

## Esteban Igartua Gabilondo



Bergaran hil zen 2015eko uztailaren 24an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2015eko irailaren 4an.**

ESKER ONA

## Raquel Gallego Martin



Bergaran hil zen 2015eko abuztuaren 30ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2015eko irailaren 4an.**

ESKER ONA

## Jaione Ormaetxea Trojaola

Alejandro Piedehierroren alarguna



Arrasaten hil zen 2015eko abuztuaren 23an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Arrasaten, 2015eko irailaren 4an.**

ESKER ONA

## Jose Maria Gallego Garcia



Aretxabaletan hil zen 2015eko abuztuaren 28an, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

*Unibertsoa bukaezina bada,
Zergaitik zuk mugarik izan?
Ez zara amaitzen zoazenean
Ez zara aldentzen distantziarekin
Izarren antzera betirako zara*

*Eskerrik asko eman diguzun
maitasun guztiagatik.*

**Aretxabaletan, 2015eko irailaren 4an.**

ESKER ONA

## Francisco Oskoz Telletxea

'Pako'



2015eko abuztuaren 28an hil zen, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Aretxabaletan, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Jose Galan Barquero

Eskolako gurasoa

2015eko abuztuaren 8an hil zen.

San Martin Agirre Herri Eskolako Komunitateak
bat egiten du familiaren saminarekin.

San Martin Agirre herri eskola

**Bergaran, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Jose Maria Gallego Garcia

*Joan zinen, eta urdin eta arrosen hodei batek bildu zintuen.
Zure hitz baxuak, beste garai batekoak,
bihurtu ziren biziak, eztiak, doinuz beteak.
Bat-batean, izar iheskorrezko euri-jasa batek gure bidea argitu zuen, samina baretu zigun.
Zu zinen. Ez zara joan, gurekin zaude.*

Xeli. Gure lagun Txaro eta bere familiarentzat, Jose Mariaren oroimenez.

**Aretxabaletan, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Francisco Oskoz Telletxea

'Pako'



2015eko abuztuaren 28an hil zen, 77 urte zituela.

*Patxo haundi bat, aitita Pakito.*

**Markel eta Eñaut.
Aretxabaletan, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Arrate Bengoa Gorosabel



2015eko abuztuaren 20an hil zen,
56 urte zituela.

*Lagunek triste alkarri
Nun sartu da ordia
Gure albotik juan jaku
Zure irrifarria
Milesker eskaintziarren
Zu ezagutzeko ohoria
Adiorik ez, Arrate
Maite zaitugu*

**Zure Eibarko kuadrilla.
Eibarren, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Arrate Bengoa Gorosabel

*Erkide eta abertzale zintzo,
Euskal Herriak ez zaitu ahaztuko.*

aralar

**Aralar Alderdia
Bergaran, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Arrate Bengoa Gorosabel



Iñigoren emaztea, Aitorren, Nerearen eta Liberen ama.
Gure laguna

*Eskerrik asko zure bizitzan parte hartzen lagatzeagatik.
Agur, maitia.*

**Bergarako lagunak.
Bergaran, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Sebastian Gorosabel Villar

Arizmendi ikastolako guraso izandakoa

Irailaren 2an hil zen 44 urte zituela.

Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.

arizmendi ikastola

**Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2015eko irailaren 4an.**

OROIGARRIA

## Sebas Gorosabel Villar

Irailaren 2an hil zen 44 urte zituela.

*Joan zara gu hemen utzita baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.*

**Zure kuadrilla.
Arrasaten, 2015eko irailaren 4an.**

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55
BERGARA*

**ARAMAIO Serious Bussines**
Zumaiako hirukoteak hasiko ditu Sastiñako kontzertuen emanaldiak. Blues-rocka egiten duen taldea Aitor Badiolak, Maria Armendarizek eta Ander Zulaikak osatzen dute. Aurretik beste talde batzuetan esperientzia duten musikariak dira hirurak. Irailaren 11n eta 25ean beste bi taldek joko dute Sastiñan.
Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 19:30ean.


MUSIKAZUZENEAN.COM


IMANOL SORIANO

**ARRASATE Kulturate Akustikoen lehen emanaldiak**
Yaima Orozco eta Alfred Artigas (gaur, egubakoitza), Petti (bihar, zapatua) eta John Berhout (etzi, domeka) izango dira Kulturate Akustikoen lehen emanaldiak. Datorren astean, Antilopez eta Bilillo y Los Sullos taldeak egongo dira.
Aipatutako egunetan, Kulturaten, 20:00etan.

# NON-ZER

IRAILA 4
IRAILA 10

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI Chalwa Band & King Konsul, Revolutionary Brothers eta Sangre de Mono taldeak**
Rock kontzertua Oñatiko Atzeko kaleko jaietan.
Gaur, egubakoitza, Atzeko kalean, 22:30ean.

## JAIAK

**OÑATI Atzeko kaleko jaiak**
Gaurtik domekara askotariko ekintzak egingo dituzte. Besteak beste, haurrendako jolasak, txorimaloekin kalejira eta rock kontzertua egubakoitzean; sokamuturra eta poneyak, triki-poteoa, zezensuzkoa eta mariatxien emanaldia zapatuan; eta mus txapelketa, txirrindulari lasterketa eta bertso saioa domekan.
Gaurtik domekara arte, Atzeko kalen.

**BERGARA San Mateo jaiak**
Ubera auzoan ospatuko dituzte jaiak bihar, zapatua: 10:30ean kalejira; 11:00etan meza eta ostean luntxa, bola-jokoa eta azoka; 14:00etan auzo bazkaria eta ostean helduendako jokoak; eta gauean, berakatz-zopak.
Bihar, zapatua, Ubera auzoan.

**ARETXABALETA Agorreko andramaixak**
Areantza auzoan ospatuko dituzte hilaren 11tik 13ra, baina hilaren 8an ere egongo da ospakizunik: 18:30ean kanpai-joaldia eta 19:00etan meza. Ostean, tantaia jaso eta Martin Kabarrixa auzora eroango dute.
Irailaren 8an, Areantza auzoan, 18:30ean.

## ERAKUSKETAK

**OÑATI Untzurruntzagaren erakusketa**
Juan Antonio Untzurruntzaga oñatiarraren argazki erakusketa ikusgai dago, hilaren 19ra arte.
Irailaren 19ra arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

**ARETXABALETA Marije Carrilloren ikasleen lanak**
Marije Carrillorekin ikastaroan parte hartu duten emakumeek egindako pintura lanak ikusgai ipini dituzte.
Irailaren 29ra arte, Arkupen.

**OÑATI 'Oñati oroitzapenean'**
Oñatiko antzinako hogei argazkiren erakusketa, Ulma taldearen zerbitzu orokorretako harreran.
Irailaren 14ra arte, Ulman.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**
Azken errementari Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina ikusgai.
Harresi aretoan ikusgai.

**OÑATI Arizmendiarrietari buruz**
Haren jaiotzaren mendeurreneko ekitaldia. Arantzazuko basilikaren aurrean panela ipini dute, Arizmendiarrietaren ekintza nagusiak jasotzen dituena. Aurretik, Donostian, Bilbon eta Arrasaten egon da.
Irailaren 25era arte, Arantzazun.

**ESKORIATZA Isabel Guridiren ondarea**
Eskoriatzaren eta eskoriatzarren aldeko hainbat ekintzatan parte hartu zuen Guridiren ondarea batu dute. Askotariko elementuekin erakusketa osatu dute, eta herritarren eskura ipini.
Ibarraundi museoan ikusgai.

## OSPAKIZUNAK

**ARAMAIO Marixeka eguna**
Askotariko ekintzak egingo dituzte domekan: 11:00etan salda, txorizoa eta edariak egongo dira; 12:00etan meza, eta ostean, trikitilarien emanaldia; 14:30ean bazkaria; eta 17:00etan Gorritiren eta bere animalien erakustaldia.
Etzi, domeka, Marixeka baselizan, 11:00etan.

**BERGARA Ortuko produktuen dastatzea**
Bosgarren urtez egingo dute azoka San Juanen, eliza ondoko plazan. 11:30ean zabalduko dituzte postuak, eta ondoren, 12:30ean, aurtengo ortu lehiaketako produktuen dastatzea egongo da. Bost euroren truke plater konbinatua eta edaria banatuko dute herritarren artean.
Etzi, domeka, San Juanen, 11:30ean.

## IRTEERA

**OÑATI Urbiara irteera Trautirekin**
Urbiara irteera Trauti taldekoekin. Eragozpen eta mugikortasun murriztua duten pertsonendako eta haien laguntzaileendako.
Etzi, domeka, Oñatitik, 09:00etan.

**OÑATI Posets mendira**
Pirinioetara irteera antolatu du Aloña Mendiko mendi sailak irailaren 12ko asteburuko. Posets mendia igoko dute (3.375 metro). Irailaren 1etik 8ra eman behar da izena.
Izen-ematea, Aloña Mendi tabernan.

## LEHIAKETAK

**ESKORIATZA Udako argazkien lehiaketa**
Ibarraundi museoak deitutako lehiaketa. Edonork parte har dezake, gehienez bi erretratu bidalita. Lanak aurkezteko epea urriaren 1ean bukatzen da, *ibarraundi@eskoriatza.eus* helbidean. Axtrokitan hiru sari banatuko dituzte, adinaren arabera.
Urriaren 1era arte, aipatutako helbidean.

**ARRASATE 'Maite ditugu maite, Debagoieneko bazterrak'**
Debagoieneko edozein arlo, gai edo errealitate islatuko duten argazkiak izango dira protagonista Erein Da Janek deitutako lehiaketan. Argazkiak –pertsonako gehienez bi– *ereindajan@bagara.net* helbidera bidali beharko dira irailaren 30a baino lehen.
Irailaren 30era arte.

**BERGARA Udako euskarazko postalak**
Jardunek deitutako lehiaketan, postalaren edertasuna, edukia, originaltasuna eta idazkera baloratuko ditu epaimahaiak. Lanak entregatzeko azken eguna irailaren 18a da, Jardunen bulegoan.
Irailaren 18ra arte, Jardunen.

## TURISMOA

**ELGETA Intxortara irteera**
Gerra zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide horretan, Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera dago: hileko lehen domekan euskaraz eta azkenekoan ele bitan. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus*.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

**ESKORIATZA Zubiate labea**
XIX. mendeko labea gaur egunera arte iritsi den zeramika labe bakarrenetakoa da, Gipuzkoan gorde den bakarra. Egun, Bittoriano Larrañagaren etxeko buztinezko ontzien bilduma dago han. Bisita gidatuak egiten dituzte iraileko zapatuetan eta domeketan: 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gazteleraz.
Etzi, domeka, Ibarraundin.

## IKASTAROAK

**ARETXABALETA Yoga eskolak**
Aredhana yoga elkarteak ikasturtea hasi du: martitzenetan eta eguenetan dira eskolak, 17:30ean eta 20:00etan. Izena emateko, 616 96 57 95 telefonora dei daiteke (Encarna Mendez).
Aipatutako egunetan, Lezama komertzio gunean.

**ARRASATE Yoga eskolak nagusiendako**
Aredhana yoga elkarteak nagusiendako eskola bereziak antolatu ditu: eguaztenetan, 16:45ean.
Aipatutako egunetan, Arrasate yoga elkartean.

**BERGARA 'Bakardadean': Ana Abajo Lazkanoren erakusketa**
*Bakardadean* erakusketa Ana Abajok eskultura ikasgairako egindako lan batetik ateratako obra da: Pina Bausch-ek egindako *Café Müller* maisu -lanean inspiratua dago. Egilearen esanetan, "norberak ikusteko erakusketa da *Bakardadean*, momentua gozatzeko eta isiltasunean sentitzeko".
Irailaren 13ra arte, Aroztegi aretoan.


ANA ABAJO


PARKETXE SAREA

**OÑATI 'Bizi pottoka!' ekimena**
Pottoka protagonista den ekimena egingo dute familiendako: 10:30ean *Pottoka: mamuten garaiko euskal zaldia* izeneko ikus-entzunezkoa emango dute; eta 12:00etan pottokak ikusi, ukitu, orraztu eta eurekin ibiltzeko aukera egongo da.
Etzi, domeka, aipatutako orduetan, Parketxean eta Pottokalekun.

**OÑATI Igeriketa ikastaroak eta uretako ekintzak**
Zubikoa kiroldegiko ikastaroetan parte hartu gura dutenendako izen-ematea: hilaren 7tik 11ra. Behin-behineko zerrendak hilaren 16rako publikatuko dituzte, eta behin betikoak hilaren 22rako. Ikastaroak urriaren 7an hasiko dituzte.
Izen-ematea, Zubikoa kiroldegian.

**OÑATI Komunikazio ez bortitza**
Nerea Mendizabalek egingo du ikastaroa hilaren 16an, 17an eta 22an. Iazkoaren jarraipena izango da. Informaziorako: *txantxiki@gmail.com*.
Ikastaroa, aipatutako egunetan.

## DEIA

**BERGARA Matrikulazioa zabalik**
Musika eskolan zabalik dute matrikula egiteko epea irail bukaera arte eta lekua dagoen taldeetan. Informazioa eskatzeko edo izena emateko: *idazkaritza@bme.e.telefonica.net* helbidea edo 943-76 57 80 telefonoa. Ikasturtea irailaren 7an hasiko dute.
Izen-ematea irail bukaera arte.

**BERGARA Danborradako entseguak**
Hasi dituzte San Martin eguneko helduen danborradako entseguak. Umeak datorren astean hasiko dira: 7an, 8an, 9an eta 14an egingo dituzte, 19:00etan. Helduak egun berberetan elkartuko dira, baina 20:00etan.
Aipatutako egunetan eta orduetan, Seminarioko patioan.

**ESKORIATZA Erretiratuen omenaldiko bazkarirako txartelak**
Ekitaldian parte hartzeko txartelak aldez aurretik erosi behar dira: hilaren 8an, 10ean, 15ean, 17an eta 22an, sei eurotan.
Aipatutako egunetan, erretiratuen elkartean.

**OÑATI Arantzazura irteera**
Lagun Lekuren eskutik Parketxera bisita egingo dute eta ostean bazkaria Arantzazuko Auzo Etxe elkartean.
Irailaren 8an, Lagun Lekutik.

**BERGARA Kafekonpon**
Etxean apurtutako etxetresnak konpontzeko elkartuko dira.
Irailaren 9an, San Joxepe elkartean, 16:00etan.

**ANTZUOLA Oinezkoen plana**
Oinezkoen planaren gaineko informazioa eta azalpenak emango dizkiete herritarrei. Ekarpenak egiteko aukera egongo da.
Irailaren 9an, Olaranen, 19:00etan.

**ESKORIATZA Ostegun Bidaiariak**
Irraileko hiru eguenetan hainbat bidaiaren diaporamak eskainiko dituzte Eskoriatzako kaleetan. Lehena Xabier Gonzalez izango da: Japoniara egindako bidaia erakutsiko du.
Irailaren 10ean, Fernando Eskoriatza plazan, 21:30ean.

## AZOKA

**BERGARA Merkemerkaua**
Ibai-Arte merkatarien elkartearen eskutik uda-udaberriko denboraldiko produktuak beherapen handiarekin erosteko aukera. 38 komertziok parte hartuko dute.
Bihar, zapatua, Arrasaten, 10:00etan.

**BERGARA 'Stock factory'**
Denboraldiko prezio merkeenak ipiniko dituzte Bergarako hamabost komertziok.
Bihar, zapatua, Seminarioko karpan, 10:00etan.

## AURKEZPENA

**ARRASATE Ibabeko Andra Mari Kofradiaren liburua**
Aramaioko Ibabeko Andra Mari Kofradiak elkartearen 500 istorio biltzen dituen liburua argitaratu du. Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du eta Jesus Mari Elejalderen eta Cristina Etxenausiaren hitzaurreak ditu.
Irailaren 8an, Harreman dendan, 11:00etan.

## KIROLA

**ARRASATE Arrasate Hiria futbol txapelketa**
Gaur, egubakoitza, jokatuko dute Elorriok eta Bergarak (19:00), eta bihar finalak: 16:00etan hirugarren lekua zehazteko eta 19:00etan txapelduna ezagutzeko. Mondrak atzo jokatu zuen Elgoibarrekin.
Aipatutako orduetan , Mojategin.

**OÑATI Jose Luis Agirreren omenezkoa**
Aloña Mendik Gasteizko Ariznabarraren kontra jokatuko du liga hasi aurreko Agirreren omenezko lagunartekoa.
Bihar, zapatua, Azkoagainen, 17:00etan.

## ZINEMA

### ARETXABALETA

**HERRIKO PLAZA**

**Familia Belier**
Egubakoitza: 22:00.

**Basalagunak**
Egubakoitza: 19:30.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Anacleto: agente secreto**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30, 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:10, 19:10, 20:20, 21:20, 22:30.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:00.

**Transporter 4**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 20:30, 22:40.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:10.

**Mientras seamos jovenes**
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:00, 22:10.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:40.

**Atrapa la bandera**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:45.
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka: 17:00, 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:00, 19:15, 20:15.

**Atrapa la bandera 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 18:30.

**Ricki**
Egubakoitzetik domekara: 17:50, 20:00.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:40.

**Un dia perfecto**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.

**Extinction**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**Cuatro fantasticos**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.

**Operacion U.N.C.L.E.**
Egubakoitzetik eguenera: 22:25.

**Vacaciones**
Egubakoitzetik domekara; 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 20:30, 22:40.

**Mision imposible 5**
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**Cut bank**
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Domekatik eguenera: 21:30.

**Del reves**
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:20.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:00.

**Mi casa en Paris**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:50.

**Ahora o nunca**
Egubakaoitza eta zapatua: 00:50.

**Los Minions**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

**La casa magica**
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Ant -Man**
Eguaztena: 16:00.

**FLORIDA**

**Anacleto: agente secreto**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:45, 20:40, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30, 21.30.

**Atrapa la bandera**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00,19:00.

**Corazon silencioso**
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 20:40, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 21:30.

**Cuatro fantasticos**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Del reves**
Egubakoitzetik domekara: 16:45.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Las sillas musicales**
Egubakoitzetik domekara:20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**Los Minions**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Mientras seamos jovenes**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 21:00.

**Rey gitano**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**Ricki**
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:00.

**Si hijos**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00.

**Un dia perfecto**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00, 21:00.


Imanol Arias, *Anacleto: agente secreto* pelikulan. | CINEDOR.ES


# Goiena Klubeko irraileko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**


Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
**LG telebista 32 hazbetekoa**
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



**DVD-a**
**Peter Pan musikala**
Parte hartzeko sariaren izena: PeterPan


**Liburua**
**Gerardo Markuletaren azken liburua**
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua



**Jokoak**
**Ardibidez eta Kirolaz Badakit jokoak**
Parte hartzeko sariaren izena: Jokoak


www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak
**Otarra**
**Bidezko merkataritzako produktuak**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra


ARRIKRUTZ
**Sarrerak**
**Arrikrutz kobetarako sarrerak**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

**PARTE HARTZEKO:**
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Hilarion jatetxeko mariskoz beteriko mihi arrain popietak



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-09-04

BUKATZEKO

# Beste Euskal Herri bat erakusten

▶ Julen Landaluze aretxabaletarrak Aupa Hi! enpresa sortu du atzerritarrei askotariko irteerak eskaintzeko

▶ Gastronomia, kirola eta parranda oinarri dituzten egun-pasak egiten ditu, baita Debagoienera ere

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Abuztuan jarri zuen abian Julen Landaluzek (Aretxabaleta, 1988) Donostian egoitza duen Aupa Hi! enpresa *(Aupahi.eus)*, eta ondo lanpetuta dabil ordutik. Azken lau urteotan Zurriolako surf eskolan lanean jardun eta gero, atzerritarrei beste Euskal Herri bat ere badela erakusten hasi da orain: "Neure bizimodua eta lanbidea kontuan hartuta, berez sortu zitzaidan ideia; izan ere, jende askorekin dut harremana, bertakoak eta atzerritarrak. Pena handia ematen dit kanpotik gurera etorri eta Donostian eta Bilbon bakarrik geratzeak". Horregatik, oporretan Euskal Herrira datozenei bestelako eskaintza egiten die.



Julen Landaluze, txapela eta zapia aldean, txakolina zerbitzatzen. | J. LANDALUZE

## Kirola, jatekoa eta parranda

Txapela buruan eta zapia lepoan ibiltzen da hara eta hona furgonetarekin. "Geure ezaugarriekin identifikatze aldera janzten ditut; geurea, bertakoa, oso garrantzitsua dela iruditzen zait-eta", dio. Bi eratako irteerak eskaintzen ditu: egun-pasak eta bi egunekoak. "Bi aukera horiek bakarrik ditut, oraingoz; batetik, hasiberria naizelako, eta bestetik, jende asko egun gutxi batzuetarako etortzen delako", argitu du, eta gaineratu: "Bi kasuetan, euskaldunok zer garen eta zelan bizi garen erakusten ahalegintzen naiz".

Kirola, gastronomia eta parranda dituzte oinarri irteerok. "Surfa eskaintzen dut, baita *stand paddle*-a ere; hau da, surf taula gainean arraun batekin jardutea", dio. Bertan ekoiztutako produktuak bezalakorik ez dagoela uste du, "kalitate ezin hobea" dutenak. Eta kirola eta jatekoa errematatzeko, parrandarako gertu dago: "Edozein eskaera eta nahitara moldatzen naiz, energia izanez gero, behintzat, eta oraindik hori lepo dut". Hainbat irteera ditu aukeran Landaluzek; besteak beste, Bizkai aldera, Gipuzkoako kostaldera eta Debagoienera: "Aretxabaletako Galartza auzoko Etxezuri baserrian ogia eta gazta zelan egiten dituzten erakutsi, gero ortu batera joan eta Aramaioko sagardotegian bazkaldu. Paisaia dotoreak ditugu hemen, aparteko jatekoa eta jende jatorra; zergatik ez erakutsi hori? Jende asko ez da kontziente zer daukagun".

## Suediarrek bertan bizi gura

Suediarrekin, poloniarrekin eta Japoniatik etorritakoekin jardun du lanean azken asteotan. Suediako boskote batekin Urdaibai inguruan izan zen; Lekeitio, Ondarroa eta inguruak erakutsi zizkien. Poloniarrak, ostera, Zumaia eta Getaria aldera eraman zituen surfean egin eta pilotan jokatzera. "Ondo pasatzeko gogoarekin etorri dira guztiak eta oso gustura ibili dira. Pentsa, suediarrek bertan geratu gura zuten bizi izaten!", dio, barrez.

Uda partean atzerritarrekin jarduteko asmoa du, baina neguan ere ez du geratu gura eta euskal herritarrei egingo dizkie eskaintzak. "Negua luzea da gurean eta bertakoei bizipoz apur bat eman gura diet bestelako irteera hauek eskainita; bertako jendea modukorik ez dago-eta!".

AZKEN BERBA

**IDOIA ETXEBERRIA**



# Atrakzio parkea

Venezian potrotaraino ei daude turistekin. Bartzelonan obarioetaraino. Donostian… kokoteraino jartzen hasita? Turistekin baino, turistak erakartzeko moduekin.

Ingelesez besterik ez dakiten gazteak gerturatzen zaizkizu kalean. Zerbeza 2 x 1. Txupito gratis. "No, thank you". Tabernetan plater handi bat ematen dizute. Barratik pintxoak har ditzazun. "Ez, eskerrik asko".

Sangria iragartzen dute edonon. Paellarekin, nola ez. Turista askok ez baitituzte bereizten kalimotxoa eta sangria. Osborneko zezena eta ardi latxa. Flamenkoa eta trikitixa.

Hori bai, gero eta "euskal" souvenir denda gehiago dago: lauburua, ikurriña, Kontxako baranda… Txangoak ere antolatzen dituzte Donostiatik *Ocho apellidos vascos* pelikula grabatu zuten lekuetara. Leitzara eta Zumaiara. Benetako Euskal Herria erakusteko. Itzurun horregatik ote da "Espainiako hondartza ederrena" *Hola* aldizkariko irakurleentzat?

Esan didate Parte Zaharreko denda batean "euskal estiloko" argazkiak ateratzen hasi direla. Zuri-beltzekoak. Taldean, euskaldunez mozorrotuta: bata aizkolariz, bestea pospolinaz, harri jasotzailez… Port Aventuran bakeroekin egiten duten bezalaxe. I love San Sebastian.

